


ANTONIO ZAVALA, S. I.

**ERRENTERIA'KO**

**BERTSOLARI ZAARRAK**



**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**ERRETERIA'KO  
BERTSOLARI ZAARRAK**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**74-75**

---

## **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Eudo. P. Antonio Zavala, S.J.  
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

**Ordaindu bearak:**

**Urte betekoa: 280 pezeta      Atzerrian: 380 pezeta  
Ongilleak: 500      "      Ale bakarra: 35      "**

**ANTONIO ZAVALA, S. I.**

**ERRENTERIA'KO  
BERTSOLARI ZAARRAK**

**AUSPOA LIBURUTEGIA  
1968**

*D. L. S.S. 157/68*

**IZARRA - Peña y Gofí, 13**  
**San Sebastián - Marzo 1968**

# A-RKIBIDEA

Errenteria'ko bertsolari zaarrak ... ..	9
<b>PANDERITARRAK</b>	
Joakin Maria Jauregi Salaberria ... ..	13
Jose Migel Salaberria Iraola ... ..	24
(1880) Bertso Berrial Panderik jarriak: " Milla zortzireun da..." ... ..	27
Bertso Berriak Panderik jarriak: "Bertso bi paratzeko..." ... ..	35
Bertso Berriak Panderik jarriak: "Bertso bi jarritzeko..." ... ..	41
<b>LEANDRO SALABERRIA</b>	
Leandro Salaberria ... ..	49
Bertso Berriak orain dela 37 urte pasatu- tako kontuak bi anaiari ... ..	51
Komerianteak ... ..	58
<b>JOSE MARIA ELIZEGI "Frailia"</b>	
Jose Maria Elizegi Berasarte "Frailia" ...	67
Oiartzun'go Misiyoari ... ..	69
Aotik aora ... ..	71
(1919) Bertso Berriyak Errentei'ko Frai- liak jarriyak ... ..	73
<b>JOSE INAZIO INARRA "TXINTXUA"</b>	
"Txintxua" ... ..	83
Bertso Berriak "Lenguan zer pasa zan..."	86
Bertso Berriyak: "Ama Birjiña eguna..."	93
Mendiz-mendi ... ..	97
(1906) Bertso Berriak: "Milla bedera- tzireun..." ... ..	104
Ezkontza Galduba: "Abiyatu naiz asunto bati..." ... ..	109
Aotik aora ... ..	115
<b>JOSE MARIA BERRA "TELLERI-TXIKI"</b>	
Telleri-Txiki ... ..	121
Aotik aora ... ..	124
<b>JOSE RAMON TABERNA</b>	
Jose Ramon Taberna Mitxelena ... ..	131

Bertso Berriak On Jose R. T. jarriak: "Españia'ko katolikuai..."	132
Bertso Berriak I. R. T.'ek jarriyak: "Bertso berriyen erresposta..."	138
Gora Oiartzun!	143
Dijuakiyonarentzat	145
"Biyotz oneko gizon prestuai..."	147
Euskaldunak ernel	149
Euskaldun Berriyak	151
Bertso Berriyak: "Gerratian karlistak..."	153
Bertso Berriyak: "Au dakienik arkitzen bada..."	156
Bertso Berriyak: "Liberalak jarriyak..."	158

#### JOSE KRUZ URRUTIA

Jose Kruz Urrutia Olazabal	163
Bertso Berriak Urrutia'k jarriyak: "Inoren zat ofensil..."	166
Bertso Berriyak Urrutia'k jarriyak: "Guraso asko penatzen daude..."	172
(1931) Bertso Berriyak Urrutia'k jarriyak: "Malen-kalian jarriya dago..."	177
(1932) Kalez-kale	182
(1932) Arrantzale onari	187
(1932) Atsuan Penitentziak	191
(1932) Morroi Baten Errenkurak	-96
(1932) Basarritarren Lengo Oiturak	201
(1932) Ugaldiaren Oroipenak	206

#### JOXEPA ANTONI ARANBERRI PETRIRENA

Joxepa Antoni Aranberri Petrarena	213
Neskazarrak	232
(1917) <i>Guerra Europea</i> 'ri jarriyak	252
Errenteriyá'n Uztaren laubean milla ta berderatzereun ta ogei ta seigarren urten egin zan Prozesiyuari	260
Ama Jenerosari	265
Fabrikari Bertso-kantari	268
Mariaren alaba batek Jaungoikoaren eta bere Amari	271
Rikardo Arakiña	274
Markola'ko patatak	280
Madalena'ko Ermita	282

## ERRETERIA'KO BERTSOLARI ZAARRAK

Erri gutxi erakus dezakete, Erreteria'k ainbateko bertsolari-izen-zerrenda.

Lenengo, Zabaleta bi anaiak aitatuko ditugu, auen bertsoak Auspoa Liburutegiak argitaratuak baititu bere 63-64'garren alean.

Urrena, Saiburu iru anaiak. Auen bertsoak ere Auspoa'k publikatuak ditu, bere 73'garren liburuan. Anai auek Ernani'n eta Donostia'n jaiok ziran, bañan txikitandikan Erreteri'ra etorriak, eta, Ameriketara joan zana izan ezik, bertan egin zuten beren denbora guzia.

Ta Txirrita bera, Ernani'n jaioa ta Alza'n illa bada ere, Erreteria'n egin zuan bere bizitzaren puskarik onena, gazte denbora alegia, ta Erreteria'ri zor dio bere bertsolari-izena, bizi zan baserritik artua.

Liburu ontan, berriz, bederatzi bertsolarien bertsoak bildu ditugu. Bat edo beste etziran Erreteria'n jaiok, bañan hai emen. Saiburutarrak bezela, beren denbora guzia



egiñak. Ona emen bertsolari oien izenak: Panderitarrak, Joakin Maria Elizegi ta Jose Migel Salaberria; Leandro Salaberria; Jose Migel Elizegi "Frailia"; Jose Inazio Iñarra "Txintxua"; Jose Maria Berra "Telleri-Txiki"; Jose Ramon Taberna; Jose Kruz Urrutia; ta Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, Xenpelarren illoba, aren arreba baten alaba.

Ta, azkenik, Xenpelar aundia ere Errenteria'koa degu. Il zaneko eungarren urtea emendik urtebetera elduko zaigun ezkeror, beraren liburua ordurako egingo degu.

Gaiñontzean, liburu onetzaz zer esanik gutxi dago.

Bertsolari bakoitzari itzaurre bana jarri zaio, bizitzaren berri emanaz.

An ta emen zenbait doñu arkituko du irakurleak. Zeñi jaso degun, aldi bakoitzean adieraziko da. Beti bezela, magnetofonotik paperera pasatzeko lana, Ambrosio Zatarain jaunak egin du.

Bertsolari guzien erretratua ez, bañan zenbaitena, beintzat, eskuratu al izan degu. Oietatik arpegi-dibujua egiten, Ayalde, Antonio Valverde jauna alegia, saiatu da.

Ta besterik gabe, atsegin ar dezazula opa dizut, irakurle, Errenteria'ko bederatzi bertsolari zaar auen bertsoak irakurriaz.

**PANDERITARRAK**

**JOAKIN MARIA JAUREGI**  
**(1844-1921)**

**JOSE MIGEL SALABERRIA**  
**(1838-1905)**



**Joakin Maria Jauregi Salaberria**

## JOAKIN MARIA JAUREGI SALABERRIA

Garai artan, Errenteria'n, gaur egunean Panderi pentsu-fabrika dagoan ortan, errota izan zan. Ta, oi danez, etxeari ez-ezik, bertan bizi ziranai ere Panderi edo Panderitarrak esaten zieten.

Fameliko guziak, edo geienak beintzat, bertotan zekitenak omen ziran. Kantu-lan orretan geientxoen jardun ziranetatik bat, Joakin Mari izan zan. Joakin Mari Panderi esaten zioten. Beraren anai Jose Manueli, berriz, Lairon deitzen zioten. Au ere bertso-laria zan.

Joakin Mari orrezaz argibiderik asko bildu degu, beraren alaba Rufinak eta illoba Antonio Ugarte'k emanda. Auei zor dizkiogu orain emen esango ditugun guziak, besterik gaztiazten ez bada.

Joakin Mari, 1844 urteko Martxuaren 27'an jaio zan, goizeko seiretan. Gurasoak "Manuel Francisco de Jauregui" ta "M.<sup>a</sup> Vicenta de Salaverria", biak errenteriarrak. izan ziotuan. (1)

---

(1) Errenteria'ko 12'gn. bataio-agiri-liburua.

Joakin Marik oso bertso politak omen zituan, arrats batez etxera-bidean zerri batzuk topo egin ta aiekin zer gertatu zitzaion esanaz. Askotan kantatzen omen zituan. Bañan gaur egunean bertso oiek galduak dira, alabak eman dizkigun onako puntu auek izan ezik:

Nijuala Panderi-bidian,  
amabi zerri jarri zitzaizkian aurrian;  
nik egin nuen gurutze fede onian;  
libre gelditu nitzan bidian;  
leiotik beira jarri nitzan urrengo goizian  
zerriyak artale jaten ai ote zian;  
sorgiñak dirala ez degu sinistu,  
bañan ni ibilli nitzan bastante estu;  
Joakin Marik fedia badu,  
orreatatik nitzan libratu.

Liberalen eta karlisten arteko bigarren gerra piztu zanean, Joakin Mari ta bere anai guziak karlistetara joan ziran, beren amak bialduta. Andre Bixenta esaten zioten. Onek, semeak ez-ezik, anaiak, illobak, adiskideak eta sui-gaia ere bialdu zituan; guzira, emezortzi mutil.

Emezortzigarrena nola bialdu zuan, kontu polita da. Lapurdi'koa zan. Juan Jose Larre zeritzan. 1870'gn. urtean, frantzesen eta prusiarren gerra sortu zanean, bera andik one-

ra gerratik itzuli, desertore alegia, etorri zan. Errenteria'n jarri zan bizitzen. Ta emen, oso neskatxa ederra baitzan, Joakin Mariren arreba batez, Sebastianaz, maite-mindu zan. Ta, emengo gerra asi zanean, andre Bixenta orrek, bere amagiarreba-gaiak alegia, onela esan zion:

—Nere alabarekin ezkontzeko asmotan al zera?

Ta Larre'k:

—Bai noski!

Ta andre Bixentak:

—Ba, nere alabarik artu nai badezu, zu ere, besteak bezela, mendira, gerrara!

Ta ala joan zan. Au ta beste guziak joan ziran bezpera-arratsean, apari ederra egin zuten Amulleta deritzaion etxean, goiko-kalean. Biaramon-goizean meza entzun, Jauna artu ta mendira...

Joakin Mariren anai bat, Leandro, gerran il zan. Joakin Marik, herriz, txira, zauria izan zuan ankan. Ta Larre, preso arrapatu ta Donostia'ko gazteluan euki zuten. Bañan, gerra bukatzean, ain maite zuan Sebastianarekin ezkondu ta Frantzia'n bizi izan zan. Errenteria'ra ere etortzen zan, noizean bein, bere emaztearekin. Egun batez, Donostia'n, gazteluari begira jarrita, onela esan omen zuan:

—Nik egin nuen marka! Frantzia'tik onera gerratik itzuli desertore etorri, ta emen gerrara boluntariyo joan!

Joakin Mari, Santa Cruz apaizarekin ibillizan. Onek, emendik alde egin zuanean, onela esan omen zion:

—I, Panderi: gerra galdu diagu! Ni baniak emendik, bañan bertan gelditzen zeraztenak, kanpokoan mendean bizi bearko dezute! Bertan sortu zaizkiguk kontrariyoric gogorrenak!

Bertsoak ere ba omen zituan Joakin Marik Santa Cruz apaizari jarriak. Bere alaba Rufinak askotan entzun zizkion, bañan orain puska au besterik ezin gogoratu izan du:

atian guardiyak,  
aspertuta gelditu  
ziran erdiyak,  
tximinitik eskapo...

Onako auek ere, gerrate artan jarri zituan bertso batzuen puntuak omen dira:

Gizon fiñak ill eta  
faltsuakin bizi,  
ni ere banua  
emendik igesi.

Gerra bukatzean, Sebastiana Larrarte Men-

dizabal'ekin ezkondu zan. Bertsoak ere ba omen zituan bere emazte oni jarriak. Bañan auek ere galduak dira, alabak emandako puntu auek izan ezik:

Nere lendabiziko andria  
Astabizkar'ko arrosa,  
usai onekua ta  
oso hermosa...

Etzuten aurrik izan. Ta noiz ta nola ezta-kigula il zitzaion emaztea.

Orduan Ameriketa'ra joan zan. Argenti-na'ra. Panpetan ganadu-zai ibilli zan. Azien-da besterik ikusten etzutela, denbora-aldi lu-zeak pasatzen omen zituzten. Ta gero, noiz-bait ere errira etortzean, diru guziak gasta-tu ta atzera mendira... Ola bizi omen ziran. Bere ango bizi-moduari jarriak, bertso polit askoak omen zituan. Ona emen alabari jaso dizkiogun puntuak:

*Hotel de Buena Sopa'n*  
azkeneko jana.  
bota biar genula  
biña edo bana.

Ostatu ori Tandil errian zan. Ain zuzen, Pello Errota, Ameriketara joan zanean, erri-ontan bertan eta ostatu berean izaten omen



zan. Eskutitzak beintzat ostatu orretara bialtzen zizkioten etxetik (2). Bañan Pello ara joan zanean, 1895'ngo. urtean, Joakin Mari Euskalerrian zan ostera ere, aspaldian etorrita.

Aurrean Joakin Mariren arpegi-dibujua jarri degu. Valverde Jaunak egiña da aren erretrato batetik. Erretrato ori, berriz, Tandil'en aterea da, onako toki onetan: *Fotografía del Progreso / con sistema premiado / de Pedro Momini / Tandil.*

Ameriketako bertsoen puntuak dira aukeratuak:

Menditikan giñan jetxi,  
berriz igotzeko algo gutxi;  
atiaren onduan zalduyak irrintzi;  
obia degu danak utzita  
Euskalerrira igesi.

Bein batez, zaldi gañean zijoala, bi lapur atara zitzaizkan. Bañan Joakin Marik zaldia zutik bi oñean jarri zuan eta aien gañera salto eragin zion. Ta alde egin zien. Gertaera oni ere bertsoak jarri omen zizkion. Oraingo ontan puntu bakarrak kontatu behar ditugu:

---

(2) "Pello Errotaren Bizitza", Auspoa 32, 124'gn. orrialdea.

zaldiya nedukan nik  
erakutsiya...

Esne partitzen ere jardun omen zan. Egun batez emakume batek onela esan zion:

—*Panchito, ven p'acá!*

Ta Joakin Marik onela erantzun zion:

—Nere mandoak esnea bâka,  
baña ez iretzako! Arre!

Amerikatik onera bueltatu zanean, ezagun batek onela galdetu zion:

—Diru asko ekarri al duk, Joakin Mari?

Oni etzizaion galdeera ori gustatu, ondo igertzen baitzion burla antzean esana ziola. Ta onela erantzun zion:

—Ik asko aurreratu al duk, ni an nintzan bitartean?

Ta onela jarraitu zuan:

—Aizak: ekarri dizkit, bañan paperak zelaian jarri dizkit legortzen, eta aizeak eraman zizkiak!

Ta gero segiran:

—Onek daukan andria Kuxkuliña deritza;  
kontua jakiten zertako zabilta?  
Musua daukazu oso zikiña;  
ondo garbitzen intzazu alegiña!

Amerikatik etorri ondoren, bigarrenkoz ezkondu zan, 1885'gn. urteko Apirillaren 25'an. Andregaia, Maria Ursula Isasa Ortiz zeritzan; 26 urte zituan; Oiartzun'en jaio ta Errenteria'n bizi zan. Joakin Marik 40 urte zituan. Errenteria'ko Larrepitxi baserrian jarri ziran bizitzez. Bañan gero kalera aldatu ziran.

Izan zituzten seme alabak, batzuk aur txikitán il ziran: Tomax, Anselma...; beste bi, gizon egin da gero: Jose Manuel ta Inazio; gaurko egunean bat bakarrik bizi da: bere alaba Rufina, itzaurre ontarako ainbeste argibide eman diguna.

Errenteria'n ba omen zan, garai artan, izengoitia Xoxua ta izen-deiturak Jose Antonio Loinaz zituan gizon bat. Liberal jauntxo bat omen zan. Egun batez, Joakin Marirengana etorri zan, eskuan berrogei duro zituala, botoa erosi nairik. Joakin Mari pobrea zan; duro aiek, garai artako berrogei duro-zillar aundi-eder aiek, kalterik egingo etziotela, zer esanik ez dago. Andrea arren ta arren artzeko asi omen zitzaion. Bañan Joakin Marik etzuan bere burua saldu; etzuan sosik artu.

Biamamonean alkar topo egin zuten sagar-

---

(3) Errenteria'ko 10'gn. ezkontz-agiri-liburua, 106'garren orria.

dotegian. Ta bertsoan asi omen ziran.  
Onako erdia eman digu Joakin Mariren alabak.  
Xoxuak kantatua dala ematen du.  
Onela dio:

Botoa emateko ez dezu  
izandu borondaterik,  
sagardua artu gabe  
etzera juango emendik.

Ona emen Joakin Mariren beste bertso-  
puska:

Erronda Mikaelita,  
erronda Mikelez,  
ori kantatzen nuen gabez.

Santa Ageda'ra joan zan batean, bertso au  
kantatu zuan:

Gure fraile gaxuak  
eztitut mendratzen,  
goizian jaiki eta  
beti errezatzen;  
askotan egoten naiz  
oietaz pentsatzen  
oiek ere ez dirala  
askorik gizentzen;  
naiko lana badute  
eroak zuzentzen.

Txistoso amorratua omen zan, ta parran-dero xamarra ere bai. Bere parranda-laguna, Antero karterua zuan, Manuel Urtxalle pelotariaren semea. Biak etxe berean bizi ziran: Antero atzeko aldean, eta Joakin Mari aurrekoan. Gauaz eskaratzeko atea itxi egiten zuten, tranka emanda.

Bein batean Antero ori gau beranduan zettorren. Eskaratzeko atea trankarekin itxita arkitu zuan. Orduan Joakin Mariri deitu zion, mesedez atea idikitzeke, bera etxea sar zedin.

Joakin Mari jeiki zan, jantzi ere bai, bannan gelatik irten eziñik gelditu zan, alabak, aita atera etzedin, kanpotik atea itxita zeukalako. Anterok, ordea, berantetsirik, onela esaten zion:

—Joakin Mari, idiki zak ba atea! Zer egiten dek or?

Ta Joakin Marik:

—Nola irikiko'it, ba? Neroni ere preso niok eta! (4)

Gerratik ekarri zuan txira, zauria alegia, etzitzaion sekula sendatu. Bera bere gisa, belarrakin-da, sendaketak egiten aritzen zitzaion. Etzion ez medikuri ez beste iñori uzten.

---

(4) Pasadizo au, Errenteria'ko Jose Goñi'k kontatua.

Egun batez, gazte-kuadrilla bat mezetara zijoan agustiñetara, mojetara. Bide-bazterrean, muntto batean exerita, Joakin Mari ikusi zuten. Bere txira sendatzen ari zan. Guziak ezagunak ziran, da norbaitek onela galdetu zion:

—Zer da, Joakin Mari: kojo?

Ta onek:

—Bai; anketik niok flojo;  
i ere jarriko aiz nere edaderako.

Ta txira artatik il omen zan. 1921'gn. urtea zan. Orduan ere gaitz pegakorren bat bazan. Joakin Mari ere derrigorrean txertatzerara eraman zuten. Etzion onik egin Txirarik izan ez balu, denbora geiago iraungo zuala ta sendatu ere egingo zala esan zuan medikuak; bañan, dana dala, txertu artatik gaizkituta il zan, 1921'gn. urteko Ilbeltzaren 19'an, 77 urterekin, *miocarditis* gaitzarekin, elizako eriotz-agiriak dionez.

\* \* \*

## JOSE MIGEL SALABERRIA IRAOLA

Errenteria'n jaio zan, 1838'garren urteko Garagarrillaren 3'an. Gurasoak, "M i g u e l Agustin de Salaverría" ta "Josefa Micaela de Iraola", biak errenteriarrak, izan zituan. (5)

Oni ere Panderi esaten zioten, ta bertso-laria zan.

Joakin Mari Panderiren osaba zan. Onen ama ta Jose Migel, anai-arrebak.

Ondarrabia'ko alaba zan Joakina Lekuona'rekin ezkondu zan. Etzuten aurrik izan.

Jose Migelen bertso gutxi jaso degu; jarri-aldi baten herri ta bi bertso erdizka; besterik ez.

Orra jarri-aldi ori nola sortu zan: Gerra-denboran, Errenteria liberalen mende gertatu zan. Orregatik, erria kanpoko soldaduz beterik egon zan. Auek majokeritan asi ziran erriko neskatxekin, baita auetako zenbaitek aurrerabidea eman ere. Jose Migelek bertsoak jarri zizkien.

Esan bezela erdizka jaso ditugun oiek onela zioten:

---

(5) Errenteria'ko 12'garren bataio-agiri-liburua.

Neskatxetan ezikan  
andrietan ere  
badira gaizki xamar  
dabiltzanak oaindik ere.

Castilla'ra juatian  
majuak akabo,  
ez dute ikusiko  
sekulan geiago. (6)

Jose Migel au, 1905'garren urteko Urriaren 14'an il zan, Errenteria'ko Goiko-kaleko 10'garren etxean, 67 urterekin, *bronchitis crónica* gaitzarekin.

\* \* \*

Xenpelarren bertso bat onela asten da:

Panderiyako onek  
memoriya erne...

Bertsolari-kuadrilla ederra juntatua zan, bertso orrek berak dionez: Panderi, Lexoti, Ibarre, Xorrola, Bordondo, Ardotx, Arotxa, Larraburu ta Xenpelar.

Panderi, beraz, orduko bertsolaririk onekin bildurtzen etzana zan. Bañan zein da

---

(6) Jose Migelen ondorengoa dan Errenteria'ko Inazio Odriozola'ri jasoa.



Panderi ori: Joakin Mari ala Jose Migel? Xenpelar il zanean, 1869'garren urtean, arek 25 urte zituan, eta onek 31. Oni begiratuta, Jose Migel izango dala itxura geiago du. Bata ta bestearen ondorengoai galdetu diegu, bañan ez digute auzia erabaki; ez dakite.

\* \* \*

Gure artxiboan baditugu iru bertso-paper izenburu onekin: *Bertso Berriak Panderik jarriak*. Emen ere auzia, beraz, zeñenak diran: Joakin Marirenak ala Jose Migelenak.

Auzi au erabakitzen ere, ez dute beren ondorengoak jakin. Bertso-paper oiek bazirarnik ere etzekiten.

Dana dala, jarri-aldi oiek emen urrengo orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak.

(1880)

**BERTSO BERRIAK  
PANDERIK JARRIAK**

- 1/ Milla zortzireun da  
ta larogei urte,  
Kristo etorri zanetik  
onera bitarte;  
bertso bi paratzeko  
enkargatu naute,  
nere iritzirako  
ez dirade kalte,  
alegiña egingo det  
kapaz naizen arte.
  
- 2/ Bertso berriak para  
biar ditut oraiñ,  
komeni diralako  
misiyuan onran;  
ezagutu ditugu  
jaun oriyek obran,  
mundu ontan ez dakit  
oberika nor dan,  
erakutsi digute  
gauza ona zer dan.

- 3/ Jaun oiek presentatu  
zaizkigu erriyan,  
Azaruko illaren  
ogei ta zortziyan;  
itz bi egin zituzten  
meza nagusiyan,  
asko jende erori  
giñaden graziyan,  
ongi portatu dute  
nere iritziyan.
- 4/ Gauzak diran bezela  
nua esatera,  
asko gustatu zaigu  
oien etorrera;  
amar t'erdiyak ziran  
gutxi gora bera,  
Justiziya ta apaizak  
juan ziran bidera,  
relijioso oiek  
errezibitzera.
- 5/ Alegiña egin dute  
oiek gugatikan,  
asko nekatu dira,  
ez dago dudikan;  
galtzera ez dute utzi nai  
pekatarrirkan,  
ondo konfesatzeko  
tokatzen dan gisan,  
barkatuko dirala  
naiz aundiyak izan.

6/ Zer egiñ biar degun  
digute erakutsi,  
orrelako askorik  
ez degu ekusi;  
pekaturikan lotsaz  
ez dezagula utzi,  
danak konfesatzeko  
txiki ta aundi guzti,  
Jaungoikoan graziyan  
nai badegu bizi.

7/ Enkargatu gaituzte  
juateko elizara,  
deboziyo aundiyan  
guztiyok al bada;  
nere kristau maitiak,  
konseju ona da,  
zerurako birian  
nai gaituzte para,  
prokura genezake  
geok nor bagara.

8/ Egiñ dezagula arren  
konfesiyo on bana,  
ondo esamiñatu  
lenbiziko lana;  
egiyaz akusatu  
gogoratzen dana,  
damutasuna arturik  
Jaungoikuagana,  
garbi geldituko da  
ala dijuana.

9/ Egindako pekatuz  
artu doloria,  
proposito firme bat,  
zer gauza obia?  
ondo pensatu zer dan  
eternidadia,  
beñere aituko ez dena,  
kaburik gabia,  
obeto guarda zagun  
Jaunaren legia.

10/ Kristau gaiztuarentzat  
dagon eriotza,  
dala esan digute  
bastante zorrotza;  
iñon sosegurik ez  
ta triste biotza,  
sentitutzen duela  
deabruan otsa,  
mundu triste ontatik  
zer despeida motza!

11/ Gaiztua infernura  
juango da abian,  
beti an egon biar  
denbora guztiyan,  
oñaze ta tormentu  
kolera biziyan;  
Jaunari erregutu  
umildade aundiyan,  
gurekiñ orlakorik  
gerta ez deriyan.

12/ Gurasuak daukagun  
obligaziyua,  
umiari emateko  
edukaziyua;  
erakusten saiatu  
ondo leziyua,  
asko enpeñatu da  
ortan misiyua,  
Jaungoikoak emanik  
inspiraziyua.

13/ Nola dan esango det  
seme-alabana:  
ondo errespetatu  
aita eta ama,  
jantzi ta alimentua  
emanaz al dana,  
umildadian egiñ  
beraren esana...  
au da relijiyuak  
agintzen duana.

14/ Errespetua ondo  
dezagun guardatu,  
gauza biarra dala  
dute predikatu;  
erakutsi digute  
zer nola giyatu,  
gurasuen esanak  
ez errebokatu,  
alegiña egitera  
gaitezen saiatu.

- 15/ Errenteriyen izandu  
dira misiyon bi,  
konbertitu gaituzte  
zenbait pekatari;  
Jaunak bigaldu digu  
erregaliya ori,  
eman biar dizkagu  
graziyak berari,  
ia zer mesedia  
egiñ digun guri.
- 16/ Funtziyo oietara  
degu akuditu,  
gauza oberik danik  
etzait iduritu;  
miserikordia aundiya  
Jaungoikoak baitu,  
guztiyak amoriyoz  
konbidatu gaitu,  
zer egiñ biar genduben  
ez balitz oroitu?
- 17/ Misiyuak zaizkigu  
errira etorri,  
zer itz egiñ diguten  
esango det garbi:  
injuriya gaiztuak  
barkatzeko elkarri,  
danak jua biagula  
mundutikan sarri...  
zerurako birian  
nai gaituzte jarri.

18/ Aita Oiartzun eta  
Aita Etxeberria,  
gauzak predikatzeko  
orlako gutxi da;  
asko gustatu zaigu  
oien egokira,  
gogoz egondu gera  
guztiyok begira,  
gure onagatikan  
trabajatu dira.

19/ Erakutsi digute  
zenbait ejemplo on,  
juan dan aspaldiyan  
premiya bazegon;  
pekatuan luzaro  
ez gaitezela egon,  
ez daukala alakuak  
sosegurik iñon,  
oien faltan ez gera  
kondenatuko iñor.

20/ Oraiñ alegre gaude  
lenago txoll triste,  
alabantza aundiyak  
merezi dituzte;  
maizago etortzia  
guk obe genduke,  
nola portatu duten  
esan biar nuke,  
makiña bat persona  
konbertitu dute.



21/ Orra ogei ta bat bertso  
onradamentian,  
zabaldu nai nituzke  
jendien artian;  
obra onak egiñez  
gabiltzan pakian,  
eriotza gurekiñ  
degu instantian,  
guztiyok zerurako  
prebeni gaitian. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Donostiyan: Juan Osés-en moldizteguien", Paris'ko Bibliotheque Nationale'tik, Ant. D'Abbadie zanaren bertso-bildumatik.

## BERTSO BERRIAK PANDERIK JARRIAK

- 1/ Bertso bi paratzera  
saiatu nerriyan,  
txit komeni zaizkigu  
oraingo aldiyan;  
Zarauz'ko fraile bat  
daukagu erriyan,  
predikatutzen digu  
alegiñ guztiyan;  
mesede franko egiñ  
du Errenterriyan.
  
- 2/ Don Krispin Beobide  
gizon ona da agitz,  
lenbiziko sermoia  
egin du austerriz;  
konbertitu nai gaitu  
guziyak, al balitz;  
jaun orren itz gozuak  
ez dira alferrik,  
limurtu geradela  
asko uste det nik.

3/ Garbi itz egin digu  
zer egin biar den:  
konfesiyo on bana  
egiteko arren,  
esaminatutzeko  
premiya nola den,  
ordu segururikan  
ez daukagula emen,  
prebenitzeko diyo  
guziyak lenbailen.

4/ Frailia etorri zaigu  
Errenteriya'ra,  
asko enpeñatu da,  
ori egiya da;  
orren konsejuakiñ  
alegratzen gara,  
zerurako birian  
nai ginduzke para,  
galtzera ez ginduzke  
utzi nai, al bada.

5/ Egin dezagula arren  
esamiña ongi  
zertan faltatu degun  
esateko garbi,  
injuriya gaiztuak  
barkatzeko elkarri;  
danak zuzen-birian  
nai ginduzke jarri  
anparatzalle txarra  
etzaigu etorri.

6/ Ongi predikatu du  
zer arrixku dagon,  
geroko esperantzan  
ez gaitzela egon;  
erakutsi dizkigu  
makiña bat gauz on,  
juan dan aspaldiyan  
premiya bazegon,  
bedorrek ez luke nai  
kondenatzia iñor.

7/ Bere partetikanen  
alegiña egin du,  
gaiztuak ondutzia  
desiatutzen du;  
gure animan mantxak  
nai dizkigu kendu,  
nola remediatu  
garbiro esan du,  
obe genduke ori  
egingo bagendu.

8/ Frailliak egin digu  
guri egiñala,  
nork bere pekatuak  
aitortu ditzala;  
umildade aundiyan,  
biar dan bezala,  
ori egiñ ezkerro,  
ez litzake txarra;  
Jaungoikoak orretan  
allega gaitzala.

- 9/ Nere kristau maitiak,  
gaitezen bildurtu,  
sententziya kruela  
ez dezagun artu;  
infernura juateko  
gogorikan nork du?  
Jaungoikuen legia  
dezagun guardatu,  
gurekiñ okerrikan  
ez dedin gertatu.
- 10/ Pekatu mortalakiñ  
juaten bagerade,  
alferrik izango da  
negar eginta're;  
munduko egun aliak  
zertan jua dirade?  
obra onetan asko  
enpeñatu gabe...  
Luzifer egingo da  
orlakuen jabe.
- 11/ Munduan egun bi ta  
bat segururik ez,  
alere eziñ ase  
iñor interesez;  
besteri ostu eta  
egiñak zenbaitek, (sic)  
orrelakua franko  
bada nere ustez;  
nori beria eman ta  
konbertitu bitez.

12/ Pekatu gaitza dala  
ostutzia iñori,  
frailiak esan digu  
pulpitotik guri;  
begiratzeko arren  
konzienziyari,  
lenguak bueltatzeko  
bere jabiari,  
prezisua degula  
salbatzeko ori.

13/ Asko enpeñatu da  
predikadoria,  
okerrak zuzentzia  
degula obia;  
guri egin naian  
dabill faboria,  
erakutsi nai digu  
zerura biria,  
gloriyan pasa zangun  
eternidadia.

14/ Usterik gutxienian  
gerade akabo,  
seguranziyarikan  
batere ez dago;  
asko juanak ditugu  
aurretik lenago,  
ezkerreko aldera  
sobra, *mal pecado!*  
zer ikusi biagun  
bildurtua nago!

15/ Iñork eskaporik ez,  
ortan daude lanak!  
barrena lasai dauka  
kulpik ez daukanak;  
utsa serbitzen dute  
munduko afanak,  
egiñ obe ditugu  
frailien esanak;  
azertatuko dizu  
prokuratzen danak.

16/ Orra amasei berso  
onradamentian,  
ez al da ofendituko  
iñor gure artian!  
beti ibilli gabe  
animen kaltian,  
garizuma santuan  
konberti gaitian;  
biyar baño gaur obe  
bitatik batian. (1)

---

(1) *Bertso-papera*, "Donostiyan: Juan Oses-en moldizteguian", Aita Arana zanaren bertso-bilduma, Loiola'n.

## **BERSO BERRIAK PANDERIK JARRIAK**

1/ Berso bi jarritzeko  
badaukat biria:  
nola portatu zaigun  
esain det frailia.  
Gizon aditua da  
eta gustablia,  
konbertitu nai luke  
emengo jendia.

2/ Frailia etorri zaigu  
Zarauz aldetikan,  
eztigu erakutsi  
ejenplo txarrikan.  
Konfesatzeko diyo  
tokatzen dan gisan,  
bestela ez daukagula  
salbazyorikan.



3/ Gauza nola biar dan  
digu irakurri,  
zerurako birian  
nai ginduzke jarri.  
Kondiziyo guziyak  
esan ditu garbi;  
nork egin biar diyo  
kontrarikan orri?

4/ Zenbait itz egin digu  
konfesiyo ortan,  
nola faltatzen degun  
jendiak askotan.  
Prokuratzeko diyo  
ongi mundu ontan,  
zerurako biria  
alkantzatzekotan.

5/ Pekatu mortalian  
iñor bagerade,  
salbatuko ez gerala  
konfesatu gabe.  
Milla penitenziya  
egiñ arren ere,  
serbituko ez digute  
oriyek batere.

6/ Frailiak itz egin du  
guztiz animoso:  
konfesa ditzagula  
pekatuak oso,  
norbait egongo dala  
lotsetan akaso,  
ez izutzeko diyo  
izan arren asko.

7/ Askok aditu degu,  
beorrek esanta,  
garbitu dezagula  
pekatuen mantxa,  
konfesatzeko danak  
oietara juanta  
umildade aundiyan  
zeñek bere falta.

8/ Izanagatikanen  
pekatu grabia,  
barkatzeko badute  
oek potestadia.  
Artu damutasuna  
eta doloria,  
au egingo bagendu  
danontzat obia.

9/ Usterik gutxienian  
akabo gerade,  
segururik ez dago  
minuto bat ere.  
Frailiak itz egin du  
gauz ortan dotore,  
pronto egoteko diyo  
deskuidatu gabe.

10/ Gauza txarretatikan  
ibiltzeko aparte,  
au egingo bagendu  
ez genduke kalte.  
Ez generala emenguak  
bildurtzeko fuerte,  
aprobetxatzeko diyo  
denbora dan arte.

11/ Juiziyoko eguna  
ikaragarriya,  
frailia bera dago  
bildurrak jarriya.  
Mundu guziyan bistan  
sentenzi garbiya,  
ekusi biar degu  
gauz izugarriya.

12/ Onak alde batera,  
gaiztuak bestera,  
presentatu biagu  
danak ikustera.  
Azken despeida ura  
zer izango ote da?  
Oek adituta ere  
izutzen ez gera!

13/ Nere kristau maitiak,  
gaitezen bildurtu,  
guziyok biar degu  
sentenziya artu.  
Galduak esango du:  
"Ai ez banintz sortu!";  
betiko infernuan  
biarko du sartu.

14/ Jaunari eska zaiogun  
miserikordiya,  
zergatik egin degun  
milla pikardiya.  
Bitarteko ipintzen det  
Birjiña Mariya,  
alkantza dezaigula  
zeruko gloriya.

15/ Frailia etorri zaigu  
aurtengo urtian,  
lenbiziko sermoia  
austerri-goizian.  
Ongi predikatu du  
onradamentian,  
pekatari guziyak  
konberti gaitian.

16/ Amasei bertsoarekin  
nai det despeditu,  
atenziyuarekin  
au ongi aditu:  
Jaungoikoen legia  
dezagun serbitu,  
iltzian faltako ezta  
nork errezibitu. (1)

---

(1) *Bertso-papera*, "Donostiyan: Juan Osés-en moldizteguian", Antonio D'Abbadie zanaren bertso-bilduman, Paris'en.

Onako itz auek eskuz erantsita daude: *reçu Janvier 1879*. (Arana).

**LEANDRO SALABERRIA**

**(1845-1909)**

“Leandro Vicente de Salaverria Astivia” Errenteria'n jaio zan, 1845'gn. urteko Urriaren lenengo egunean.

Gurasoak Rafael Eusebio ta Maria Bizenta izan zituan; biak errenteriarrak ziran. Aitaren aldeko aiton-amonak: Migel Agustin ta “Josefa Micaela de Iraola”, biak errenteriarrak; amaren aldekoak: Martin Jose, irundarra, ta “M.<sup>a</sup> Fermina de Echeverria”, lezoarra. (1)

Leandro au, Joakin Maria Panderiren lengusua zan. Leandroren aita ta Joakin Mariaren ama, anai-arrebak.

Leandro 25 urterekin ezkondu zan, Errenteria'n bertan, 1870'gn. urteko Uztaillaren 19'an. Andregaiia, Josefa Antonia Mitxelena zeritzan; 24 urte zituan; Errenteria'n bizizan, bañan Arano'ko alaba zan. (2)

Leandro, ofizioz eulea zan.

Leandroren bi bertso-paper eskuratu di-

---

(1) Errenteria'ko 13'gn. bataio-agiri-liburua.

(2) Errenteria'ko 10'gn. ezkontza-agiri-liburua.

tugu. Paperak ez dute Leandroren izenik aitortzen. Bañan Erretereria'ko zaarrak berarenak dirala esan digute; baita jarrialdi bakoitzaren pasadizua kontatu ere.

Leandro 1909'gn. urteko Martxuaren 9'an il zan, arratseko zortziretan, Viteri kaleko 13'gn. zenbakian, bigarren bizitzan, buruko atake batekin, *embolia cerebral*'ekin, elizako agiriak dionez, 63 urterekin. (3)

---

(3) Erretereria'ko 11'gn. eriotz-agiri-liburua, 322'garren orria.



## BERTSO BERRIAK

### ORAIN DELA 37 URTE PASATUTAKO KONTUAK BI ANAIARI

“Amaiketan arrapatu niñuen Alkate Jau-nak tabernatik aterata munta ematiatik, ta nik, nola eldu baizen kastigu aundiya guretzat, eniyon esan zein tabernatik atera nitzan; esan ziran etxera joateko arren begiyan bistatik.”

Au dana bertso-paperak dio. Urrena, bertsoetan, ori dana berriro kontatzen da. Baita urrengo gauean zer gertatu zan ere.

Bertso-paperak ez du egillearen izenik jartzzen. Bañan Errenteria'ko Pello Zabaleta bertsolariak, Leandrorenak dirala esan zigun.

Pellok berak adierazi zigun, ta idatziz adierazi ere, Leandroren bigarren gaueko ibillerak zer izan ziran. Bertsoetan obeto kontatzen dira, bañan Pellok idatzi duanak ere merezi du emen jartzea:

“Garai aietan, sagardotegietatik ondo serbituak ateratzen ziranean, nola errikoak ala

kanpokoak, bulla eta eskanbillan ibiltzen ziran, sesiyo eta abar. Eziñ burutu zalako, alkateak bandua jo zuan, amaiketarik aurrera arrapatzen zana kartzelan sartzeko. Alkatea bera ibiltzen zan serenuakin kaleak ekusten.

Egun batez, Leandro deskuidatu zan. Alkateak ekusi zuen. Baita Leandrok alkatea ere. Etxean sartu zan, eta anaiari onela esan zion:

—Iñor etortzen bada galdeka, zein sartu dan etxe ontan azkena, esaiok i sartu aizela.

Anaiak, erdi lotan:

—Bai, bai, esango ziot!

Alkatiak *dan-dan* atea.

Atera da Bizente, anaia. Galdetzen dio:

—Zein sartu da etxe onetan azkena?

—Ni, jauna.

—Goazemak nerekin!

—Nora?

—Etorriko aiz bereala!

Beko sotoan ekusi zuan serenua, eta orduan konturatu zan nora zijoan.”

Bertso-papera, Errenteria'ko Jertrudis Arrieta zanarengandik degu. Moldiztegiaren izenik ez du.

Ona emen bertsoak:

1/ Igande-gau batian,  
amaikak aldian,  
pentsatu dut tabernatik  
etxera joatia;  
birian topo egin  
nuen alkatia,  
“Nun zabilta?” esan ziran  
lenbizi galdia.

2/ Errespuesta eman niyon  
merezi bezela:  
“Ez al nazu ikusten  
geldik naguela?  
“Bai al duk korajia  
mintzatzeko orrela?  
Uari emendikan  
etxera beriala!”

3/ Oiek orrela pasata  
urrengo jai-gabian,  
bederatziyetatik  
amarrak artian,  
alkatia ikusi dut  
kolera batian,  
sartzeko esan ziran  
agudo etxian.

4/ Errespuesta eman  
niyon berielá:  
“Ez al nazu ikusten  
etxera nuala?”  
“Nik arrapatzen baiat  
lenago bezela,  
bisitatuko dirak  
agudo kartzela!”

5/ Koleran sartu nitzan  
gaba artan etxera,  
oraindik goiza zan ta  
kanpora atera;  
alkatia beriala  
ni arrapatzera,  
agudo jua nitzan  
anaian oiera.

6/ Oiera jua eta  
anaia esnatu:  
“Arren faboretxo bat  
egin biar nazu:  
etxi ontan azkena  
sartu zerala zu,  
iñork galdetzen badu  
esan biar duzu.”

7/ "Gizonan arpegirik  
azaldutzen bada,  
mutill, ez ikaratu  
emain ziot kara!"  
Atia jo ta joan zan  
eskalleretara,  
zarpatik artu eta  
gero kartzelara.

8/ "Arren, alkate jauna,  
erruki zaitia,  
kartzelara dâmazu  
kulparik gabia."  
"Urrena eskusa zak  
gezurra esatia,  
orain preso pasa zak  
anaian partia!"

9/ Ustez seguratua  
zuten paketa,  
kontrabanduen billa  
pozez alkatia;  
serenuak lagunduta  
jo zuan atia,  
anaiak artu zuen  
nere gonbitia.

10/ Geroztikan anaia  
dut estimatua,  
guardatu zuelako  
nere pekatua;  
libre espero zuen  
beraren burua,  
bañon etziyon eman  
asolbiziya.

11/ Eman etziyonian  
asolbiziya,  
gero biyamonian  
neri sesiyua:  
“Maiz egiten badirak  
orlako aziyua,  
auzuan izango dek  
estimaziya!”

12/ Igande-gaba pasa,  
astelen-goizian  
aserre plantatu zan  
anaia etxian:  
“Ni kulpa gabe preso,  
i berriz oyian,  
eztirak peatuko  
urrengo batian!”

13/ Igarri niyonian  
nitzala lazuan,  
estu nitzan ta zerbait  
egin biar nuan;  
anaia sartu zuten  
preso konzejuan,  
kulpa zuena oyian  
gero deskantsuan.

14/ Mintzatu izan banitz  
biar dan bezela,  
etzen engañatuko  
jauna ori orrela;  
kulpa zuena oyian,  
anaia kartzelâ,  
inozementian  
ai ura pastela!

15/ Amabost bertsoekin  
nai det akabatu,  
gure pasadizua  
orra deklaratu;  
alkatiak kartzelan  
nai niñuen sartu,  
nere zorrak anaiak  
zituen pagatu.

## KOMERIANTEAK

Egun batez, orain urte asko dala, kome-riante batzuek Errenteria'ra etorri ziran. Asi ziran beren abildadeak erakusten, ta aietako bati bere alabak jo egiten zion, bañan arek etzuan, itxuraz beintzat, miñik artzen. Gero, lurrean luze-luze etzan, da bere alaba ori besoetan artu ta jaso egiten zuan.

Urrena, berriz, lurretik altxa ta, alaba karga ariña zuala-ta, publikotik bateonbat etortzeko eskatu zuan.

Jende artean Leandro zegoan. Au mutil aundi bat zan, kalekoa, erderaz tutik ere etzekiana, ta bertsolaria gañera.

Lagunak ura atera-arazi zuten. “Ua, motell, ua!” esan zioten.

Komeriantea, berriro ere lurrean luze-luze etzanda jarri zan, ta Leandrori esaten asi zitzaion bere besoetan jartzeko, jaso zezan.

Leandrok, ordea, etzion tutik konprenditzen, ta lagunai onela galdetu zien:

—Zer dio onek?

Ta lagunak:



—Muturrean jotzeko! Ez duala miñik artzen!

Leandrok etzuan ori lendabizikoan sinistu:

—Bai? Ori esaten al du?


Ta lagunak:

—Baietz, motell, baietz! Muturrean jotzeko! Ez duala miñik artzen!


Leandrok, orduan, ostikoz muturrean jo zuan komeriantea. Batzuek diotenez, eskalaproiak omen zan gañera. Garai artan jendea asko ibiltzen zan oñetako oiekin. Altxa zan au segituan, tximistak zerizkiola, ta anasi ziran biak alkarri mutur-joka, izugarrizko egiñalean. Bitartean, jende guzia purrez lertzen.

Gero, Leandro gizagajoa istillutan ibillizuten, alkatearengana-ta eramana.


Bañan bertsolaria izaki, ta pasadizo guzia bertsotan jarri zuan:




O-fi-zi-yo be-rr-i-bat bi-ar de-guar-  
-tu, Le-an-dro'k kan-tak ja-rr-i. A-rran-di-a'k sal-



-du; as-ko-tan pa-tri-ka-ran so-sik ez-tau-ka-



-gu; zer-bait o-fi-zi-yo-tan sa-ya-tu bi-a-



-gu

1/ Ofiziyo berri bat  
 bear degu artu,  
 Leandrok kantik jarri,  
 Arandiak saldu;  
 askotan patrikaran  
 sosik ez daukagu,  
 zerbait ofiziotan  
 saiatu beagu.

2/ Gure Errenterian  
 komediantiak  
 igande-gau batian  
 txit balientiak;  
 alabak eman arren  
 dale fuertiak,  
 etzuben miñik artzen  
 nik jo bitartian.

3/ Gau arretan pailasok  
ura pantasiya!  
astuak bezela egiten  
zuen irrintziya;  
alabari jotzeko  
nai zuen guziya,  
nik deklaratu nuen  
aien maleziya.

4/ Ortzaz gora jarri zan  
ondradamentian,  
etzuen uste bañon  
beretzat kaltian;  
pailasok esan arren  
jartzeko gañian,  
publikua ejuka:  
“Jo zak muturrian!”

5/ Pailasoren esanik  
nik ez konprenitzen,  
orduan asi nitzan  
jendiai galdetzen;  
berriz ere lengua  
zuten esplikatzen:  
“Jo eta ez omen dik  
miñikan artutzen!”

- 6/ Aitak alaba zuen  
besuakin jaso,  
beste bat ere egingo  
lukela airoso;  
ni nonbratu niñuten  
koadrillan pailaso,  
egiñalakin joka  
nioken eraso.
- 7/ Asi giñadenian  
dili eta dale,  
intentziyo fiñakin  
tranpa aundirik gabe;  
orain komeri ederrak  
egiten dirade,  
bañan ez guriakin  
konparatzeko're.
- 8/ Alkatia etorri  
zaidan beriala,  
esan ziran merezi  
nuela kartzela:  
“Ik zer motiboz jo dek  
pailaso orrela?”  
“Berak esan du miñik  
artzen ez dubela!” (1)

---

(1) Bertsoak, Pello Zabaleta'k eman bezela jarri

ditugu. Bañan *Bertsolariya*'n ere arkitu ditugu (15'garren zenb., 1931/XII/27), bañan aldaketa auekin:

1/1: Bizimodu berri bat; 3/1: gabaetan pailasok; 3/8: arren maleziya; 5/1: Pailasoren esana; 5/3-4: gero publikuari — asi naiz galdetzen; 6/1-2: Alabak grizuakin — aita zuen jaso; 6/7-8: egiñalakiñ jota — niñuen eraso; 7/4: tranpa aundi gabe; 8/2: zaian beriola.

Ta bertsoak tokiz aldatuta daude, beste orden on-tan jarrita: 1, 2, 6, 4, 5, 7, 3, 8.

**JOSE MARIA ELIZEGI «FRAILIA»**

**(1859-1925)**

Jose Maria Elizegi Berasarte, Errenteria'n jaio zan, 1859 urteko Otsaillaren 7'an. Gurasoak, Kaitano, Oiartzun'en jaio ta Errenteria'n bizi zana, ta Inazia, Ernani'ko alaba, izan zituan. (1)

Jose Mariari ez-ezik, familiko guziaz ere Frailia edo Frailetarra esaten zieten. Izengoiti ori lengo zaarretatik zetorkien. Oietako bat, baserritarra bera ere, inguruko baserritako aurrei dotriña erakusten ari-zen zan. Orregatik erantsi zioten Frailia izengoitia.

Elizegi, Errenteria'ko pelotari famatua, famili orretakoa zan. Ta Alzo'ko Aundia ere oiekin pariente xamar egiten omen zan.

Jose Mari, Errenteria'ko alaba zan Antonia Aramburu'rekin ezkondu zan. Errenteria'ko Iturralde baserrian bizitu ziran. Iturralde'k bi bizitza zituan. Batean berak, nausiak, bizi ziran, ta bestean maizterrak. Jose Mari ondasunetan ondo xamar zegoana zan.

Aldi batez, maizterrak andik bota bear izan zituan, aiengandik xoxik ere artu ezin

---

(1) Errenteria'ko 14'garren bataio-agiri-liburua.

zualako. Maizter oiek, man doekin egur-  
-ikatzta ta iruria saltzen ibiltzen ziran. Iru-  
ria, ikatzaren kondarra da. *Auntxa* esaten  
zioten izengoitiz famili orri. Maizter auek.  
Iturralde'tik ateratzean, Errenteria'ko Etxe-  
-txiki'ra etorri ziran bizi izatera.

Etorri berrian, famili artako mutiko bati  
onela galdetu zioten kalean:

—Orain arte nun bizi ziñazten?

Ta mutikoak onela erantzun zuan:

—Nun bizi giñan? Iturralde!

Bederatzi illabetean egon gaituk debalde!

Izorra adi, Fraile!

Bere gurasoengandik-edo ikasia izango  
zuan ori, bañan mutikotan olako piper-miña  
zana, gozoa izango zan zartuta gero!

Jose Mariren bertso gutxi jaso al izan degu.

Errenteria'n il zan, Iturralde'n, 1925 ur-  
teko Maiatzaren 23'an, 66 urterekin, *cirrosis*  
*hepática* deritzaion gaitzak jota. (2)

---

(2) Errenteria'ko 14'garren eriotz-agiri-liburua,  
18'gn. orria.



## OIARTZUN'GO MISIYOARI

Jose Mari onek bertsoak jarri zizkion Oiar-  
tzun'go misio bati. Ezd akigu zein urtetakoa  
izango zan. Bañan Jose Mari 1925'gn. ur-  
tean il baitzan, aurreagokoa bearko du nos-  
ki. Jarri-aldi osoa ez degu iñon ere jaso al  
izan. Onako bi bertso ta erdi auek, Errente-  
ria'ko Jose Goñi'ren aotik ditut:

Mixiyuan ikasiya  
naiz esplikatzen asiya  
esan diguten guziya;  
bat beñepiñian ezta  
aspertu eta jetxiya,  
... ..  
gure Jaungoiko biziya,  
eman oieri graziya.

Erderaz maldiziyua,  
Judasen oraziyua,  
euskaldunen leziyua;  
blasfemiyakin aienatzen du  
Jesusen bendiziyua,  
triste dago misiyua,  
utzitzeko biziya,  
nai badu salbaziyua.

... ..

**Bonifazio Baraibar'i (1)**  
ta **Bikariyo** jaunari,  
ez juaten utzi oieri.

---

(1) Bonifazio Baraibar, alkatea omen zan.

## AOTIK AORA

Leen ere esan degunez, *Frailia*'ren emaztea, Errenteria'ko Antonia Aranburu izan zan. Beltz xamarra omen zan. Orregatik, egun batez, onako bertso au kantatu omen zion Jose Mariri beste bertsolari batek:

Frailek ereiñ omen du  
gaitziru bat baba,  
baliatuko zaio  
urtabia bada; (1)  
zozuak eta beliak  
joango zaizka ara,  
obe luke andria  
*izugarri* para.

Andrea txori-izugarri jartzeko alegia. Ta onela erantzun zion Jose Marik:

---

(1) Urtabia = urte ona.

Adituak aditu  
ekusiak ekusi,  
Praile bere andre beltzakin  
kontentu da bizi;  
ederrak esatia  
(y) ukek ik merezi:  
i zertara juan intzan  
Prantzira igesi?

Beste ura, gerratean ixpiya izaki-ta, Fran-  
tzia'ra igesi joana baitzan. (2)

---

(2) Errenteria'ko Pello Zabaleta zana.

(1919)

## BERTSO BERRIYAK

### ERRENTEI'KO FRAILIAK JARRIYAK

Onako au da osorik jaso al izan degun Jose Mariren jarri-aldi bakarra. "Errenitei'ko Frailiak jarriyak" esaten du paperak, eta famili orretan bera baitzan bertsolaria, berarena izango da. Irun'go "Tip. Pio Garmendia" moldiztegia inprentatua dago. Oiarzun'go Jose Angel Sarasola'ri (Olalde, Alzibar) jaso genion. Erljio-gaia du paperak.

- 1/ Bertso berri batzuek  
nai nituzke jarri,  
pekatariyentzako  
oso penagarri;  
neronek orain arte  
eztiyot igerri;  
juan tenplo santura  
garbitu ta jarri  
nai eztuanak ikasi  
infernuko berri.

- 2/ Egin oraziyua  
artzagun indarra,  
bestela gurekin da  
sua edo garra;  
utzi alde batera  
demoniño zarra,  
mundu guzian dago  
lege bat bakarra,  
Jesukristok jarriya,  
ezta oso txarra.
- 3/ Esplikatu digute  
misiyo santuak,  
erabat utzitzeko  
munduko kontuak;  
gu bezela len emen  
izandutakuak,  
inpernuko zolera  
badira sartuak;  
orra zeñen mantxa gaiztua  
duen pekatuak.
- 4/ Anima kulpa gabe  
ikusiko da galtzen,  
propositu firmerik  
ezpadegu artzen;  
gure anai Lutero  
inpernura joan zen,  
aren anima nola  
daguén ondatzen,  
batzuetan eztegu  
askorik pensatzen.

5/ **Daukazkit kunplituak**  
irurogei urte, (1)  
len banaka ta orain biñaka  
martxa deramate;  
Jesukristoren ordenak  
nai nituzke bete,  
iltzeko señak ere  
asi zaizkit fuerte,  
fraile zarrak zerura  
gonbidatzen naute.

6/ **Jesus etorko zaigu**  
aingeru batekiñ,  
Luzifer diabrua  
arsanuarekin;  
gure miseriyak klaro  
biarko tuzte jakiñ,  
konejatu gaitezen  
sazerdotiakin,  
okerrikan etorri  
ezteiyen gurekin.

---

(1) Kanta auek jarri zituanean 60 urte baldin bazituan, bera 1859'garrenean jaioa zan ezkerro, bertso auek 1919'garren urtekoak izango dira, ta izenburuan ala jarri degu.

7/ Jesusek gorde nai gaitu  
bere biyotzian,  
ala itz egin zigun  
Ark eriyotzian;  
diadarka egondu zan  
denbora luzian,  
zerbait erregutzeko  
Beraz oroitzian,  
pagatuko giñula  
Artan biartzian.

8/ Munduan izan dian  
gauzarik onenak  
dana guziyak dira  
Jaungoikuarenak;  
pazientziyan pasa  
mundu ontan penak,  
relijio santutik  
diraden ordenak,  
zintzo gorde lezake  
munduan txit denak.

9/ Irtentzen geranian  
mundu onetatik,  
izango ote degu  
geiago bueltik?  
mandatari joanak  
badira aurretik,  
alerikan bialtzen  
eztute orretik;  
au bera esango dute  
oraindik gugatik.



- 10/ Misiyua kulpitotik  
mintzatu da garbi,  
ederrak esan dizkate  
emakumiari;  
endemas dendero  
jostuna oieri,  
gonak luzatutzeko  
neska gazteari,  
gurasuen kulpa  
egin dute ori.
- 11/ Korsian bolantiak,  
petxua ageri,  
kamisa jantzi nai ezik,  
gezurra diruri;  
gonak betik moztuak  
sobra ta geiegi,  
sorgiñaren figura  
nai luteke jarri;  
dontzellarentzat planta  
ederra da ori.
- 12/ Soñu edo batzarra,  
dantza edo bailia,  
orrekin kejatu da  
misiyo-jendia;  
neskatx arrosko samar  
dantza orren zalia,  
inpernura ikasi  
zenduen biria;  
eztakazu pasaturik  
eternidadia.

13/ Juiziyoko eguna  
eldu zaigunian,  
a zer beldur-ikara  
geren barrenian!  
erdiyak pekatuan,  
lotan onenian,  
eren etsai gaiztuak  
arturik mendian;  
a zer diadar tristiak  
iltzen geranian!

14/ Jesusen llaga tristiak  
ai gera berritzen,  
nola sendatuko diran  
beti añaditzen;  
pekatu egiteaz  
eztira arritzen,  
iya konfesatu gabe  
geraden gelditzen;  
ondo konsideratu  
zer nola gabiltzen.

15/ Ostiral santu egun  
iru ta erdiyetan,  
odola jatxitzen da (2)  
Jesusen oñetan;  
deusen kulpa gabia  
gaxua ezertan:  
"Ama, etsai gaiztoak  
ilko naute bertan,  
munduan pekataririk  
salbatutzekotan".

---

(2) Paperak *jantzitzen* dio; *jatxitzen* jarri degu,  
onela bear dualakoan.

16/ Pekatua da gauza bat  
oso itxusiya,  
Jesus gurutze batez  
or dago josiya;  
misiyuak esan du:  
"Au da desgraziya!  
odolez zikindua  
zeukaten guziya,  
egur iar batian  
nerauk ikusiya."

17/ Belen'dik jua zanian Jesus  
Sinain'go basuan,  
pekatariyagatik beti  
errezua egin zuan;  
beste penarik etzuen  
..... (3)  
animak sartu ziran  
inpernuko suan,  
an esplikatu zan zeren  
egarriya zuan.

18/ Bataiatu giñanian  
emandako itza  
esaten erraz zan, baño  
kunplitutzen gaitz da;  
projimua maitatu,  
guardatu Eliza,  
Zerura joan ziran  
santu aien gisa;  
guretzat ezta faltako  
zuzen bagabiltza.

---

(3) Moldiztegiaren utsegiñez-edo, paperean pun-  
tu au falta da.

19/ Amar gauza dirade  
animako lanak,  
misiyuak penitentzi orde  
geroni emanak,  
batere utzi gabe  
egin biar danak;  
erregutu dezala  
Jaungoikuan Amak;  
ai zer diar tristiak  
deskuidatzen danak!

20/ Eskela bat egin du  
zeruko Maisuak,  
pronto irukitzeko  
anima gaxuak;  
deskuidatzen geranak  
bagera batzuak,  
egin penitentziyak  
edo errezuak,  
abrasatu ez gaitzan  
infernuko suak.

21/ Au da atzenik eta  
errematia emen  
gure fiñaren atzena  
orra bada zer den;  
deia eldu deneko  
prestaturik gauden,  
zerura joateko  
emendik lenbailen;  
denari deseatzten diyot  
ala gerta dedilla, amen.

**JOSE INAZIO IÑARRA «TXINTXUA»**

**(1874-1912)**

Errenteriarrak bertakotzat daukate bertsolari au ere, bañan Oiartzun'en jaioa zan, 1874'gn. urteko Urriaren 14'an, goizeko sei-retan. Bañan bere denborik geiena Errenteria'n egin baitzuan, erri ontako bertsolarien liburuan jarri degu.

Gurasoak, Jose Luis Iñarra ta Joakina Etxeberria zituan. Biak Oiartzun'en jaioak ziran. Aitaren aldeko aiton-amonak: Jose Luis eta Josefa Antonia Portugal. Amaren aldekoak: Sebastian eta Anastasia Sein. Laurak oiartzuarrak ziran. (1)

Errenteria'n esan didatenez, Tobar base-rrian bizi izan ziran Txintxua ta bere familia. Baserri au, Txirrita ta Telleri-Txiki baserrietatik alde-aldean eta Saiburu base-rritik urruti gabean dago. Bertsolari-baratza emankorra izana degu, beraz, benetan Errenteria'ko erreka-zulo au.

Txintxua izengoitia bere aiton batetik-edo zetorkion. Lanean ari zala, lagunak amarretakoa egiten asten ziranean, berak txintxo-

---

(1) Oiartzun'go 17'gn. bataio-agiri-liburua, 135'gn. orria.

txintxo segi egiten zion lanari. Ta *Txintxua* jarri zioten.

Egun batez, Txintxua ta bere lagun bat broman ari ziran. Bañan, alako batean, bere lagun orrek onela esan zion asarretuta:

—Esango dît, gero, esango dît aditu nai eztukena!

Ta Txintxuak erantzun zion:

—Esan zak, ba, esan zak!

Ta lagun arek orduan:

—Nola esaten ditek? Ez az!!!

Alegia, txintxua etzala. (2)

Isabel Narzisa Salaberria'rekin ezkondu zan, Erretereria'n bertan, 1901'gn. urteko Urriaren 29'an. Txintxuak 27 urte zituan; andregaiak berdin. Au ere, senargaia bezela, Oiartzun'en jaioa zan, bañan Erretereria'n bizi zana. (3).

Bi alaba izan zituzten: Jenobeba ta Pepita.

Txintxua arotza zan, eta Papeleran egiten zuan lana.

Beste bertsolari askorengatik esan izan deguna, emen berriro esan bearke degu Txintxuagatik: onek, alegia, beste bertso asko

---

(2) Erretereria'ko Pello Zabaleta bertsolaria zana.

(3) Erretereria'ko 10'garren ezkontz-agiri-liburua,, 203'gn. orria.

kantatu zuala noski, bañan jaso al izan ditugun pizarrakin konten bearko duala irakurleak, zer moduzko bertsolaria zan juzgatzeko.

Txintxua gazterik il zan, Errenteria'n bertan, Goiko-kaleko I m a z'enea deritzaion etxean, 1912'gn. urteko Ilbeltzaren 25'an, 37 urte zituala.

Txintxuaren bertso bat, emen ez dagona, Txirritari botia, onen liburuan arkituko du irakurleak. (4)

---

(4) "Txirritaren Bizitza", Auspoa 18-19, 122'gn. orri-alde.



## BERTSO BERRIAK


“Oiek ziran Papelerako neskatxa langi-  
lleak. Oiek zelebrazten zuten Maiatzaren sei-  
garrena. Urtero egiten zuten bazkaria, eta  
bazkari ori egiteko pentsatu zuten, urte ba-  
tean, asteen erriala bota eta egingo zutela  
Lezo’ko Zubitxo’n. Eta an bazkaldu zuten,  
eta nonbait ere oso alegre etorri ziran, eta  
asi ziran ttuntunean dantza, eta etzuten ibi-  
lli nai izan lengo beren oitura zuten mutille-  
kin; nunbait ere nai zuten txamarra-dutena-  
kin; eta egin zituzten bruxa-dutenak despre-  
ziatu. Ta bruxa-duena despreziatu zuteneko  
bat, zen Txintxua, eta orrek jarri zizkaten  
bertsoak.” (1)

Len-gu-an zer pa-sa zan nai det de-klara-  
-tu, lenez-ta-ki-zu-te-nak o-raiñ en-te-ra-

(1) Juan Zabaleta bertsolaria zanaren alarguna dan Errenteria’ko Monika Galarraga’ri magnetofono-  
noz artua.



-tu: ku-a-dri-lla po-li-pat nai nu-ke on-rra-



-tu, ar-ga-ti-kan ber-tsu-ak di-ra-de pa-ra-tu.

1/ Lengan zer pasa zan  
nai det deklaratu,  
len ez dakizutenak  
orain enteratu;  
kuadrilla polit bat  
nai nuke onratu,  
argatikan bertsuak  
dirade paratu.

2/ Ogei ta amar neskatxa  
fabrika batian  
junta egiñak dira  
elkarren artian;  
errial bana bota  
bakoitzak astian,  
bazkalduko zutela  
Lezo'ko partian.

- 3/ Ogei ta amarretatik  
bat bolsera jarri,  
kintzena artu orduko  
dirua eman arri;  
nabaitu nituben  
esanaz alkarri,  
etzitzaiala eguna  
nai orduko etorri.
- 4/ Illaren seyian zan  
oien komeriya,  
batzuek txoratu're  
egia ziran iya,  
esanez nola zuten  
Lezo'n bazkariya,  
pasa biar zutela  
zelebrekeriya.
- 5/ Kontramaestran etxera  
ziraden juntatu,  
esantako ordurako  
etzuten faltatu;  
lendabiziko lana  
guziyak kontatu,  
abiyarako orla  
ziraden plantatu.

6/ Soldadu-tropan gisan  
Lezo'ra juañ zian,  
birian oso triste  
ibilli etzian;  
bazkaldu biar zuten  
ostatu eo etxian  
irrintzi eta bulla  
sartu omen zian.

7/ Mixeririk etzuten  
jenerorik gabez,  
zernai klasetatikan  
aspertubak janez;  
kafia artu dute  
kopatik eranez,  
tripak betiak dira  
aditu dedanez.

8/ Bazkaldu eta gero  
oien erretira,  
batzuek Pasaiara  
bestiak errira;  
jende asko giñaden  
oieri begira,  
gustatzeko moduban  
ibilliyak dira.

9/ Beriala dantzâko  
ziran prebenitu,  
iñola ere plazan  
eziñ errenditu;  
badira etziranak  
ezertan metitu,  
kulparik eztubenak  
ez beretzat aditu.

10/ Mutill batzuak juan  
giñan elkarrekiñ,  
dantzatzeko ustian  
neskatx oriyekiñ;  
beriala aitzakiya  
bazuten gurekiñ,  
etzirala ibilliko  
blusa-dunarekiñ.

11/ Traje-dunakiñ dantzan  
nai dute igandian,  
blusa-duena berriz  
utzi bazterrian;  
gu aña pobre ziran  
juan dan astian,  
ez dakit noiz ezker  
aberastu dian.

- 12/ Guk genduben okerra:  
bulla eta kanta,  
pixka bat toriatu  
bazterrera juanta;  
traje eta relojo,  
gañera korbata,  
oriyen desiyua  
orrelakon bat'a. (1)
- 13/ Au da pazientziyan  
artu biar dana,  
asko gustatzen zaigu  
neskatx oien lana;  
gezurra eta saltsa,  
arrunka eta afana,  
burla egiñ geniyela  
alkatiangana.
- 14/ Alkatian ordena  
izan astelenian,  
Konzejura juateko  
urrengo egunian;  
desterratuak giñan  
neskan mingañian,  
bañan emen gabiltza  
oriyek añian.

---

(1) bat'a = bat da.

15/ Biba neskatxa gazte  
dantzari nobliak,  
juiziyorik gabeko  
enreadoriak!  
Asko poztutzen gaitu  
oien faboriak,  
erakutsi dituzte  
abillidariak.

16/ Despeditu nai ditut  
ongi esanian,  
gero're dibertitu  
umore onian;  
bertsuak ez badaude  
bire zuzenian,  
berriz ere parte eman  
nai dezutenian. (2)

---

(2) Bertso-papera, "Impr. Baroja. San Sebastian", bertako D. Serafin Muñoz-Baroja jaunak emana.

"Bertsolariya" bertso-errebista, 41'gn. zenb., Errenteria, 1932/VI/26.

Bertsoetan ez da ageri zeñek jarriak diran. "Bertsolariak" esaten du Txintxuarenak dirala. Ta ori bera esan zigun bertako Pello Zabaleta bertsolariak, baita onen anaiaren alarguna dan Monika Galarragak ere.

## BERTSO BERRIYAK

Txintxua ta bere lagun batzuek, karta-jokuan ari ziran egun batez tabernan, Errenterian. Alako batean, erriko alkate-aguazillak sartu ziran. Karta ta diruak artu ta Donostia'ra bialdu zituzten. Baita, andik gero-ra, Txintxua ta onen lagunak Antigua'ko garai bateko kartzelara eramán ere. Ta Txintxuak, kartzelan zala, bertso auek jarri zituán.

Bertso-paperak, egillearen izenik ez du. Errenteria'ko Pello Zabaleta'k esan zigun zeñenak diran.

1/ Ama Birjiña eguna  
siñaladamente,  
kontu ori pasarik  
badira bi urte;  
kausa txiki bat izan  
dala mediante,  
ez dira deskantsatu  
preso sartu arte.



2/ Egun ori oraindik  
daukagu goguan,  
aztuko etzaiguna  
berialakuan;  
zazpi lagun aritu  
giñaden jokuan,  
tranpa aundirik gabe (1)  
libre zalakuan.

3/ Atia irikita  
ai giñan kartakiñ,  
siñale etzeguela  
tranparik gurekiñ;  
gizon bat sartu zaigu  
bere lagunakiñ,  
aixa agindu zuen  
an zeuden gauzakiñ.

4/ Gizon abek aldegiñ  
ziguten onela,  
kartak eta diruak  
berekiñ zituztela;  
Donosti'ra bialdu  
zituzten beriala,  
len an orrelakorik  
ez balitz bezela. (2)

---

(1) Paperean *aundirikan*.

(2) Izendatu gabe, Donostia'ko Kasinoa edo jokoe-  
-etxe aundi-famatua aitutzen da bertso ontan; alegia,  
leen ere bazala Donostia'n orrelakorik asko.

Bertso-paperak *len lan orrelakorik* esaten du; ba-  
ñan *an* bear du, dudarik gabe.

- 5/ Ongi ateratzeko  
leku berritikan  
laguntzaille gaiztuak  
ez daude erritikan;  
kastigatu naita're  
kausa orregatikan,  
zertan ez abisatu  
aldez aurretikan?
- 6/ Lenago're gizonak  
baziran munduan,  
ikusten zituztenak  
libre etzan jokuan;  
arrapatuagatik  
iñoiz pekatuan,  
bazekiten barkatzen  
lendabizikuan.
- 7/ Bestek kulpa aundiyak,  
berak berriz gutxi,  
onela ikusten da  
gaur zenbait nagusi;  
txikiyak kastigatu,  
aundiyari utzi, (3)  
orrela eziñ liteke  
zerua irabazi.

---

(3) Alegia, taberna-txoko batean egiten zan joko txikia, kastigatu, ta Donostia'ko joko-etxe dotorean egiten zan joko aundiari, utzi.

- 8/ Auek onela pasatzia  
gezurrak diruri,  
guregana etortzen da  
amaika komeri;  
Kristok barkatu ziyen  
bera ill zutenari,  
oiek berriz kastigua  
iñozentiari.
- 9/ Orra zer diran esan  
gure pikardiyak,  
ezer gutxigatikan  
abek komeriyak!  
kastigatzekoz orla  
ai diran guziyak,  
berriz ere ein litezke  
kartzela berriyak.
- 10/ Orra ba amar bertso  
pasadizuenak,  
kartzela aundi batian  
jarri diradenak;  
utzi litezke kartak  
eta joku denak,  
Antigua'ko ostatura  
juan nai ez duenak. (4)

---

(4) Bertso-papera, "Imprenta Macazaga. — Rentería", Jose Ramon Errazkin Lujanbio, Txirritaren illoba, Gazteluene, Alza.

"Bertsolariya", 7<sup>gn.</sup> zenb., 1931/XI/1.

## MENDIZ-MENDI

1902'gn. urteko Garagarrillaren 15'an edo 22'an, Errenteria'ko gazte-kuadrilla batek ibillaldi ederra egin zuan mendiz-mendi. Gazte aietako bat Txintxua zan; beste bat, Enrike Elizetxea, *Ibaizabal* errebistan ia astero idazten zuana. Aldi artan (*Ibaizabal* 1902/VI/29), mendi-ibillaldi orren berri eman zuan, ondoren Txintxuaren bertso batzuek agertuaz. Ona emen aren kontraera eta onen bertsoak:

“Erri ontako gazte batzuek, umore on eta anka azkarrekoak, pensatu genuen mendiz-mendi egun bat pasatzea, eta ortarako bereiztu zan joan dan igandea.

Goizeko iruretan irten giñan kaletik zortzi lagun, opa litekien denborik onenakin, au da, zeru urdiña, odei bakar bat gabe, izar ederrez estalia, da illargi iya betiak argi egi-ten zuela.

Eguzkiaren irteerako allegatu giñan denbora bateko ol-etxe Añarbe izena duenera.

Ezin nizake esan zer edertasunak ikusi ge-

nituen bidean. Aize goxo batek preskatzen zituen gure arpegi beroak, eta bide-txidoretako iratzeak zeukaten intzak preskatzen giñuen belaunetatik beera.

Errenteri'ko baso ederretan, aritz, gaztañ, lizar, pagu, urritz, ostazuri, arte, zumar, urki eta beste mota askotako arbol galanta eta ederrez beteak daudenetan... ura poza nabaitzen nuen nere barrenean! Ango aize garbi eta osasungarria ez liteke ezerekin ere pagatu! Zer gogoz asnas egiten zan! Ura ango atsegiña! Ziñetan, arrazoi zuen nere lagun batek, esatean leku artako *oxijenuakin* berdintzeko gauzik ez dala munduan. Ura ango musika ederra! Bean, errekatxoan dijuan urak egiten duen soñua; basoan, zoragarritzko aizeak, arbol tantai aien ostoak mugitzean, eztiro sortzen duen armonia; arbol-adarretan, milla txori polit beren kantu ederrakin agur egiten diotela agertzen asten dan egunari, alaiturik denbora berian paraje oiek; mendi-egal batean, ardiak beee egiten dutela...

Igotzen gera mendizka batera, eta... aiek baso eta mendiyak agertzen dira gure begien aurrean! Zer isiltasuna! Bakar-bakarrik entzuten degu *eup* luze-luze bat. Begiratzen degu alde guztietara, eta an... txit urrutian, ikusten degu, kea dariola, txondor bat; du-

darik gabe, bera zaitzen zeguen ikazkillen batek ematen zizkigun egun onak *eup* arkin.

Utzi ditzagun geldi-geldi, gure esku traketak eziñ erakutsi-azi dituen edertasun eta aunditasun oriek bear dan bezela, eta guazen aurrera.

Allegatu giñan Goizueta'ko errira, gutxi gora bera zazpi ta laurdenetako, eta meza entzun ondorean, gosaldu genuen ostatu batean. Jan eta edan lasai egin, eta nekea zer-bait aztu zanean, abiatu giñan Arano'ko errira, eta... bide onetan bai ez giñala len bezin azkar ibilli! Aldapa gora joan bear genuen ordu t'erdiyan, eguzki beroakin, ez bordik eta ez arbolik ikusi gabe. Aiek bai zirala mendi sollak! Alako batean, oso leer egiñik, an eseritzen da danboliñ-jotzalle bat iratze-leku batean zerraldo, segituan *Ibaizabal*'en korresponsala, eta... gero —pozik ale!— gañerako guztiak.

Itxedon-aldi bat eginta, joan giñan Arano'ra, eta, au begi aurrean ikusi zuenian, dio batek: "Arrazoi zuen Jaungoikoak, esan zuenian munduan ibilli zanean: *Ara, no*. Ez ni ere, jakin izan banuen orlako nekiak pasa bear nituela."

Amaiketakoa egin ondorian, jatxi giñan

Arranbide'ra saltoka, gain-bera zalako eta jateko zaletu gainalako.

Ogei ta amazazpi urteko intxaur-arbol aundi eta eder baten azpian, ibai zabal baten ertzian, maia prest segon, eta antxen bakoi-tzak bere tokia topatu zuen. Jaten asi gainan, eta... jaunak, ura ango eramana!

Serbitzariak maiera janari onak maiz eta ugari ekartzen bazituen ere, etzuen bildurrik maietik sukaldera bitartean eskutik platera eroriko zitzaiola lurrera, jaso eziñik kargaren merioz. Ai zer zortzi tripazai sartu ziran Arranbide'ra, ol-etxe zar eta guzti garbitzeko! Inguru abetan beste zortzi baldin badira, datoztela, egiña dago apostua.

Jan eta edan bapo egiñ eta abiatu gainan etxe aldera, eta, bi edo iru billeretan dantzatu arren batzuek, jo genuen Pikoaga, gero Epeleko-etxeberri, eta andik mendiz-mendi sartu gainan errira bederatzi t'erdietan —ez errazki nik dakizkiten bi—.

Etzait iduritzen gau artako arkakusu-ozkak miñ aundirik emango ziotela. Eta ori esanta bukatuko nuen karta au, ez balizkira eman, an zan lagun Jose Iñazio Iñarra'k —Txintxua—, bertso abek:

Gauza bat pensaturik  
dira amar egun,  
Goizueta'n izandu  
gera zortzi lagun;  
egualdia zeguen  
eder eta legun,  
etzala eudirikan  
aisa zan ezagun,  
adierazi nai det  
zer lan egin degun.

Errenteri'tik dago  
biaje fuertia,  
lau legua pasiak,  
naiko apartia;  
gogoratu zitzaigun  
araño joatia,  
irabazirik ez ta  
gorputzak nekia,  
egin degula nago  
aurtengo pakia.

Allegaturik giñan,  
aulkiyan eseri,  
txerri bat besterikan  
etzan ageri;  
arriya ta lokatza  
zeguen ugari,  
lagun bat trabaturik  
zitzaigun erori,  
oraiñ eun urteko  
aitona diruri.



Andik Arano'raño  
bide egokiya,  
iru kana altuan  
badago sasiya;  
damutu zan aguro  
lan ortan asiya,  
iya galdu genuen  
osasan guziya.

Pozez ipintzen gaitu  
zerbait ikustiak,  
ibiltzeko gogua  
badegu gaztiak;  
urrutiko intxaurrak  
urtero betiak,  
bertara joatean  
askotan tristiak;  
ni ez nijua berriz,  
or konpon bestiak!

Gizona ibiltzeko  
jaio zan mundura,  
bañan ez luke joan nai  
alako elkura;  
oñez igo bearra  
paraje altura,  
eziñ duenak berriz  
beti errenkura,  
danboliña jotzeko  
toki txarra da ura.

\* \* \*

Oiek dira Txintxuaren bertsoak. Ondoren, Elizetxeak, berak asmatuak, beste lau bertso jarri zituan. Txintxuak etzuan bertsoak geiago atera gai oni buruz; bai ordea Elizetxeak eta Jauregi tanbolinteruak, kua-drillan zan beste lagun batek alegia. Geiegi ez luzatzeagatik, ez ditugu emen jarriko, tanbolintero orren bertso bat izan ezik, Txintxuari buruz dalako:

Orañ nik emen nai nuke esan  
gauz bat Txintxuagatikan:  
bertsuetako etzeneukala  
goizetikan gogorikan;  
etzan milagro, bada zeguen  
baraurikan oraindikan,  
tripatik bapo jarri zanian  
nork ixildu ordutikan? (1)

---

(1) *Ibatzabal*, 1902/VII/13.

(1906)

## BERTSO BERRIAK

Bertso auetan, 1906 urtean Donostia'ko euskal jaietan egin zan bertso-saioaren berri ematen digu Txintxuak. Juradukoak eta bertsolariak zein ziran ere esaten du.

1/ Milla bederatzireun  
da seigarrenguan,  
Donosti'ra deituak  
gerade juan,  
bertsuak kantatzera  
plaza publikuan;  
ala itzegiñgo zan  
Ayuntamentuan;  
asirik kantuan  
koraje altuan,  
guztiyok kontuan  
nor bere puntuan;  
giyatzalle Zapiraiñ (1)  
izan genduan.

---

(1) Jose Zapirain jauna zana, urte askoan bertso-saio guzietan bertsolari-giyatzalle bezela jarduten zana, ta bera ere bertsotan bazekiana.

2/ Donostiya'n gerade  
kantuan izanak,  
ez daukagu damurik  
ara juanak;  
leialtade guztiyan  
propinak emanak,  
ondo pagatu dira  
egiñdako lanak;  
berak jarri planak,  
ez oso baldanak,  
alkarren esanak  
broman artu danak;  
esplikatu nai ditut  
pasa diranak.

3/ Aurten fiesta euskerak  
ziran Donostiya'n,  
famatu dituztenak  
leku guztiyan,  
gure Gopuzkoa'ko  
kapital aundiyan,  
gustora geldituak  
gera probintziyan;  
gauza asko graziyan  
beren dezentziyan,  
aiñ modu garbiyan,  
zuzen justiziyan;  
gustu ori badute  
Euskalerrriyan.

4/ Juraduko jaun oiez  
nai nuke itz egiñ:  
Satrustegi ta Vega  
Elosegi'kiñ;  
Seoane ta Alzaga  
Salaberria'kiñ,  
Lizarriturri zuten  
seigarren berekiñ;  
oiek dute jakiñ  
lana nola eragiñ,  
begiratubak fiñ,  
arrazoiarekiñ;  
bestela etzeguan  
ezer gurekiñ.

5/ Don Jose Zapiraiñ'ek  
maite du euskera,  
len dagona utzi nai  
eztu galtzera;  
askori eman izan  
diyo aditzera,  
arren, enpeñatzeko  
zerbait altxatzera;  
orrek du bandera,  
onenaz aurrera,  
berak asiera  
eta bukaera;  
au gabe plazarako  
kapaz ez gera.

6/ Pello Errota ori  
asko dakiyena,  
Gaztelu bertsua aisa  
sortzen duena;  
zer esanik ez dago  
Oloki orrena,  
ni're oien artian  
pasa nintekena;  
gauzik ederrena  
egiti genduena:  
kuadrilla dena  
unitu elkarrena;  
au da arbolan aurrian  
ots egiti zana.

7/ Nola aldatu baitzan  
arbola maitia,  
au zan gizon oriyen  
borondatia;  
bedeinkaziyora're  
nai zuten joatia,  
bestela alperrik zan  
gure izatia;  
daukagun ustia  
ondo ikustia,  
liraiñ ta gaztia,  
etzaude tristia;  
arren urte askuan  
bizi zaitia!

8/ Gipuzkoa'n kontu au  
zanik pasatuko,  
lenago ez genduan  
sinistatuko;  
akaso Donostiya'n  
etzan igartuko,  
bestela apenas zan  
berririk sartuko;  
ez dala sortuko  
ez naiz bildurtuko,  
aldatu orduko  
bota du publiko  
puja berde eder bat  
Euskalerriko.

9/ Orra Errenteri'tik  
ipiñi bertsuak,  
onak badira, baña  
txarrak batzuak;  
nobedaderik badu  
ezertan kasuak,  
al bait barkaziyua  
naiko du Txintxuak;  
askoren gustuak  
aiñ dira nastuak;  
gure arrastuak  
ez daude aztuak;  
agur Gipuzkoa'ko  
jende prestuak! (2)

---

(2) Bertso-papera: "Renteria: Tip. Vda. Valverda" Errenteria'ko Jertrudis Arrieta zanak emana.

## EZKONTZA GALDUBA (1)

1/ Abiyatu naiz asunto bati  
bertsuak jarri bearrez,  
gure kontuak aditutzian  
egongo zerazte farrez;  
itzak aundiyak lendabizian,  
azkenerako ezer ez,  
oraingo zenbait neskatxarekin  
ez dago fiyatzen errez.

2/ Orañ ogei ta sei illabete  
ziñaden nere nobiya,  
pasatakua kontatuko det  
gezurrik gabe egiya;  
geroztik beti lagundu dizut  
nere alegiñ guziya,  
baña jendiak jakiñ bear du  
egin dirazun tranpiya.

---

(1) Bertso auk ez dute inun esaten zeñenak di-  
ran; bañan ontan ere, "Bertsolariya" errebistak  
Txintxuarenak dirala dio.



3/ Ezkontzeko itza eman nayian  
zedorri ziñaden asi,  
lengo majuak zer egiñ zizun  
galdetu nizun lenbizi;  
esan zeniran nola erana  
zenduen gaizki ikusi,  
ni konformatu ezkerotikan  
naiago zendula utzi.

4/ “Len nobiyua daukazularik  
oraiñ nerekiñ astia,  
gauza orrekiñ etorriko da  
okerra edo nastia;  
ezkontzeko itzak edozeiñ moduz  
urratzekuak ezta,  
motibu ori bakarra bada  
gaizki deritzat uztia.”

5/ Errespuesta eman zeniran  
itz batetikan bestera:  
“Gaur zuri eman dizudan itza  
ni ez nijua austerera;  
gusto aundiyan obligatzen naiz  
lengo majua uztera,  
bigar despeida emango diyot  
zu konformatzen bazera.”

6/ Ainbesteraño saiatu ziñan,  
agindu nizun pozika,  
ez nuen uste izango zanik  
modu ontako gauzika;  
mutill askoren berri jakiñ nai,  
ez dezu beste trazika,  
maliziyaren faltan ez zaude  
lengo atsuak ezika.

7/ Illaren ogei ta amarrian zen  
San Marzialen eguna,  
fiesta aundiyak nola baiziran  
biyok juañ giñan Irun'a;  
begiya alegre jarri zeniran,  
mingaña berriz leguna,  
gastu asko ta probetxurik ez  
nik izan dedan fortuna.

8/ Egun artako pasadizua  
esango luke egoki,  
nerekiñ an zan polts urdiñ batek,  
izketan baldiñ baleki;  
erregaliyak eman nizkitzun,  
jana ta erana galanki,  
gure orduko jolas gozuak  
mindu dirade ederki.

- 9/ Bi pañuelo sedazko eman  
eta gañera sonbrilla,  
pentsa dezazu engañatu ta  
nola zeneukan mutilla;  
oraiñ bezela baldiñ bazabiltz  
nastuko dituzu milla,  
zuk desiua ala badezu  
gustua kunpli dedilla.
- 10/ Andik urrengo erromeriya  
Guadalupe'ko mendiyán,  
ez nik pentsatzen nuen bezela  
oso kariño aundiyan;  
engañatua ez naiz egondu  
oso denbora gutxiyan,  
esposatzeko asmorik ez ta  
zertan ibilli falsiyan?
- 11/ Esan zeniran: "Gauza txarra da  
gure ezkontza galtzia,  
oraiñ zurekiñ uts egiñ baño  
naiago nuke iltzia;  
komeniko zait zu bezelako  
gizon polit bat artzia,  
ni pronto nago, nai dezunian  
billa ezazu etxia."

12/ Nik etxe ori billatu eta  
andik urrengo jayian,  
asi ziñaden zerbait pretesto  
manifestatu nayian;  
miñ-paperian pasa zenduen  
egun guziya oyian,  
zu ikustera etorri nintzan  
iru legua birian.

13/ Iru legua pasa ta gero  
sartu nitzaden etxera,  
joan baño askoz tristiagua  
buel tatu nintzan atzera;  
motibo gabe utzi dezu zuk  
gure ezkontza galtzera,  
Españiyan dan saltserarikan  
naturalena zu zera.

14/ Nere nobiya izandu ori  
Pasaia'kua da berez,  
ogei ta zortzi urte daukazki,  
gaztia dago edadez;  
oien ordañak jarri itzatzu  
al den lenena faborez,  
jendiak azkar ikasiko du  
fiña zeraden edo ez. (2)

---

(2) Bertso-papera: "Imprenta de "La Voz de Guipúzcoa", Errenteria'ko Jertrudis Arrieta zanak

emana. Naiko paper zarra da, ortografiatik ageri denez.

“Bertsolariya” bertso-errebista, 49'gn. zenb., Errenteria, 1932/VIII/21. Aldaketak: 7/5: Begiyak alegre; 9/4: pentsa dezazun; 10/1: Andik urrena; 12/3: zenbait pretesto.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Jose Ramon Errazquin Txirritaren illobak emana. Onek 6 ta 10'garren bertsoak falta ditu. Gañerako aldaketak: 1/5: lendabiziko; 5/5: gusto aundiyan gertatutzen naiz; 8/8: mindu ziraden ederki; 9/4: nola zeukazun; 11/8: billatu zazu etxia; 12/3: zenbait pretesto; 13/8: aunditxuena zu zera; 14/3: urte badauzka; 14/7: ikusiko du.

## AOTIK AORA

Onako bertso au, Txintxuak zerbaiten arrapaketan ari zan bati botia da.

*En el barrio de Txuitxo (1)*  
*arrobando pelux, (2)*  
ezagun da etxian  
ez dutela erruz;  
okollua betia  
daukate ganaduz,  
ostu gabe ezin pasa  
iñolako moduz.

\* \* \*

Beste au, berriz, Txintxuak, Pontika zeri-  
tzaion baserri ta sagardotegian botia da:

- 
- (1) Txuitxo = Lezo'ko ballara bat.  
(2) pelux = paotxa.

*En casa de Pontika*  
sagardotegiyan  
*han roto siete jarras*  
fanfarroikeriyan;  
*porque ibilli erando*  
beti aurkeriyan,  
Pepetxo Morrok jo du  
Fermin arpegiyan.

\* \* \*

Beste egun batez, Txintxuak bere lagunekin Oiartzun'en meriendatu zuan. Kontua, ordea, geiegikeri bat iduritu zitzaion. Orre-gatik, bertso au bota zuan:

Diabruakin parte  
artutako Posta, (3)  
aiekin ez liteke  
inozenteik josta;  
gizona zorria zala,  
andria langosta,  
gaur gure merienda  
ez da gutxi kosta!

\* \* \*

---

(3) Posta, merienda egin zuten sagardotegia zan.

Bazkariren batean-edo, bertso au bota zuan  
Txintxuak Juan Kruz Elizegi Pello Errota-  
ren anaiarengatik:

Juan Kruzi esaiozu  
kararikan kara,  
eztuela gurekin  
ustu patrikara;  
aditu nai baditu  
zazpi errenkara,  
aprendiz datorrela  
gure erredera.

Arramendi'ko erredera alegia, Txintxua ta  
Telleri-txiki, Saiburu ta Txirrita bizitzen  
ziran tokira. (4)

---

(4) Lau bertso auek, Errenteria'ko Pello Zaba-  
leta bertsolariak emanak ditugu.



**JOSE MARIA BERRA «TELLERI-TXIKI»**

**(1875-1944)**



Errenteria'n jaio zan, 1875'gn. urteko Martxuaren 14'an, goizeko amaiketean.

Gurasoak, biak errenteriarrek, Jose Agustín eta Maria Katalina izan zituan. Aitaren aldeko aiton-amonak, Jose Antonio, Alza'koa, ta "Maria Jesus de Goñi", Astigarraga'koa. Amaren aldekoak, Jose Antonio, Errenteria'koa, ta "M.<sup>a</sup> Fermina de Irazu", Alza'koa. (1)

Telleri-txiki esan zioten beti. Izengoiti ori jaiotetxearen izenetik zetorkion. Baserri ori Arramendi'ko erreka ondoan eta kamioaren bazterrean zegoan. *Zegoan* esan det, orain urte bete bota egin baitzuten, fabrika berri bat egiteko.

"Manuela Josefa de Apalategui"-rekin ezkondu zan, 1899'gn. urteko Garagarrillaren 8'an. Berak 24 urte zituan; andregaiak, 26. Lazkao'ko alaba zan, bañan Errenteria'n bi-zi zan. (2) Etzuten familirik izan.

Guk dakigularik beinzat, Telleri-Txikik

---

(1) Errenteria'ko 14'gn. bataio-agiri-liburua, 335'-garren orrian.

(2) Errenteria'ko 10'garren ezkontz-agiri liburua, 190'gn. orria.

etzuan bertsorik paperetan jarri. Aotik aorra kantatu, berriz, bai, ta erruz kantatu ere, bai lagun-artean, ta bai plaza ta sagardotegietan ere.

Saiburu'ra, Saiburu bertsolariaren base-rrira alegia, askotan joaten zan, Saiburuk sagardoa ateratzen zion, etorri bezin laister. Gero onela galdetzen zion:

—Zer moduzkoa da?

Ta Telleri-Txikik erantzuna:

—Ederra zio, prezio ontan izateko!

Zenbait bertsolarik, bertsotan asita lenengo botatzen ziotena, familirik etzuala izaten zan. Ta berak, oso gizon prestua ta piña baitzan, pena aundia artzen zuan.

Txirritaren liburuan (3) Telleri-Txikiren bertso bat dago. Emen jarri ditugunak, bartzuek osorik eta beste bartzuek erdizka daude. Benetan pena artzekoa da, beraz, ain bertsolari ugariagandik geiago ez jaso izana.

69 urterekin il zan, Errenteria'n, Maria de Lezo kalean, 8'gn. zenbakian, 1944'gn. urteko Abenduaren 21'an, San Tomas egunean beraz. (4)

---

(3) Auspoa, 18-19, 146'gn. orri-aldean.

(4) Errenteria'ko 15'garren eriotz-agiri-liburua, 143'gn. orrian

Emaztea, berriz, andik amabost urtera, 1959 urte inguruan il zan. Eriotz-berri au jakitean, lau bertso jarri zizkion Pello Zabaleta zanak. (5)

---

(5) Auspoa, 63-64, 271'gn. orri-aldean.

## AOTIK AORA

Bein batez, Telleri-Txiki bertsolariak San Markos mendiko atzean zegoan sagardotegi batean, Arkiegi baserrian, pasa zuan igande-arratsaldea, ta illundu ondoan erretiratu zan, bete-bete eginda. Auringoia'ko aitonak, Joxe Labaka'k, lagundu omen zion etxera. Urrena alkarrekin bertsoan egokitu ziranean, Saiburu bertsolariak kantatu zion jornara ederrarekin nola etxeratua zan jakiñaren gañean zala. Ta Telleri-Txikik onela erantzun zion:

Jotzen nituan egurrak eta  
jotzen nituan sasiyak,  
lurrian ere marka gogorrak  
nitun egiten asiyak;  
neri begira parrez or zauden  
ikusten zuten guziyak;  
Joxe Labaka'k lagundu ziran,  
eman biaizkat graziyak. (1)

\* \* \*

---

(1) Jose Maria Lujanbio, Pasaia, Saiburu bertsolariaren semea.

Zepai bertsolaria gaztetan, bolara batean,  
Errenteria'n jardun zan lanean. Makiña bat  
aldiz kantatu zuan ango bertsolariekin. Ber-  
tsoak ere jarri zizkion, andik denbora-puska  
batera, oietako batek, Juanito Zabaleta za-  
nak. (2)

Egun batez, Madalenetan, sagardotegian,  
onela kantatu zion Telleri-Txikik Zepairi:

Goizeko izotzak galdutzen ditu  
eldu gabeko pikuak,  
oaiñdik gaztia zerade bañan  
esan dituzu naikuak;  
osasunakiñ laguntzen badit  
neri gure Jaungoikuak,  
batere enaute ni bildurtutzen  
Usurbil'dikan goikuak. (3)

\* \* \*

1914'ngo. gerratea sortu berria zan. Ba-  
tzuek aleman-zaleak ziran, besteak ingles-  
zaleak. Batzuek alako egunetarako alema-  
nak Paris'en sartu baietz, besteak ezetz, tra-  
besak ere egiten zituzten, estropadak balira  
bezela. Baziran España'k ere gerran sartu  
bear zukeala esaten zutenak. Telleri-Txiki,  
ordea, pake-zalea zan oso. Oju aundi egi-

---

(2) Auspoa, 63-64, 76'gn. orri-aldean.

(3) Pello Zabaleta zana, Errenteria.

ñez, onela bukatu zuan, bein batez, bertsoa, Kantaleko sakardotegian:

guk segitu dezagun  
neutralidadian! (4)

\* \* \*

Errenteria'ko baserri batean aita- seme bi asarre zebiltzan. Ta bakoitza bere aldetik, bestearen kontra keja ematera, Madrid'era, etxeko nagusiagana alegia, joan ziran. Ta onek, biai entzun ondoren, biak bota zituan etxetik. Ori zala-ta, Telleri-Txikik onela bukatzen zuan bertsoa kantatu zuan:

Bat korriuan eta  
bestia expresian,  
obe zuten batere  
juan ezpazian! (5)

\* \* \*

Bi atso sesioan asiak zirala-ta, onako bertso au bota zuan Telleri-Txikik:

---

(4) Jose Goñi, Errenteria.

(5) Jose Goñi, Errenteria.



Gure auzoko baserri batek  
izena daduka Masti,  
okasiyua eta disputa  
ezta izaten garesti;  
atso sorgiñ au barrendik zerbait  
egiten danian busti,  
amona iltzera abiatzen da  
altxarrastalu ta guzti. (6)

\* \* \*

Beste egun batez, bertso au bota zuan Te-  
lleri-Txikik Errenteria'ko Albisu'nean:

Erodesek Jesusi  
zion gorrotua,  
mundu ontan zebillen  
pranko arrotua;  
inpernuko ondarran  
an dago sartua,  
sugur-mizpiretatik (7)  
argollaz lotua. (8)

\* \* \*

---

(6) Altxarrastalua, sarde-mota bat da.

Bertsoa, beste norbaitek idatzi ta nik Monika Galarraga'gandik jaso.

(7) Sudur-mintzetatik, sudur-zuloetatik alegia, aziendak bezela.

(8) Bertso au ere, beste norbaitek idatzi ta Monika Galarraga, Juan Zabaleta zanaren alargunak, neri emana.

Bein batez, sagardotegian bertsoan ari zira-  
rala, Juanito Zabaleta'k kantatu zion Telle-  
ri-Txikiri berarentzat testamentu egiteko, ta  
onek bertso onekin erantzun zion:

Emen gauza bat det nik  
adieraziko:  
eztakit nik noiz arte  
geraden biziko;  
oraindik sano gaude,  
ez noski tisiko;  
testamentu egiten  
banitzake asiko,  
zuretzat sosik ere  
ez nuke utziko. (9)

---

(9) Juan Maria Lujanbio, Saiburu bertsolariaren  
semea, Errenteria.

**JOSE RAMON TABERNA**

**(1886-1942)**

Jose Ramon Taberna Mitxelena, Oiartzun'en jaio zan, 1886'gn. urteko Uztaren 31'an, arratsaldeko zazpiretan.

Gurasoak, Luis ta Manuela Antonia zituan. Aitaren aldeko aiton-amonak, Inazio ta Luisa Albistur izan ziran; ta amaren aldekoak, Bizente ta Manuela Franziska Olaizola. (1)

Lezo'ko alaba zan Kristina Garmendia'rekin ezkondu zan. Gutxienez, lau seme-alaba izan zituzten: Anastasio, Petra, Balentin ta fraile joan zan beste bat.

Errenteria'ra Lezo'ko Kaxerna baserritik aldatu omen ziran. Pasai Antxo'ko *Campsa*'n egiten zuan lana. Errenteria'ko Goiko-kalean bizi zan. Jende guziak Thaberna esaten zion.

Etzan ibiltzen jendearen aurrean bertso botatzen; bere doaia bertsoak paperean jartzeko zuan. Jaso ditugunak urrengo orrietan arkituko ditu irakurleak.

1942'gn. urteko Azaroaren 25'an il zan, gaueko amaiketan, Aldunzin kalean, 6'garren zenbakian, *a consecuencia de hemorragia cerebral*, elizako agiriak dionez. (2)

---

(1) Oiartzun'go 16'gn. bataio-agiri-liburua, 340'gn. orria.

(2) Errenteria'ko 15'gn. eriotz-agiri-liburua.

(1907)

## BERTSO BERRIAK

### ON JOSE R. T. JARRIAK

Bertso auek, Tabernak bateonbati egindako erantzuna dira. Beste ori ere bertsoan itzegiña zan. Nor ote zan, ez dakigu batere.

13'gn. bertsoa, "zori onian Donostia'ra egin dan bisitaz" mintzatzen da. Bisita ori, 1906'garren urteko Abenduaren 30'an egin zan. Gipuzkoa'ko bazter guzietatik etorrita, ogei bat milla kristau bildu zan. Erlijioaren kontrako lege berri batzuen kontra protesta egin nai zuten. Ordukoak dira bertso auek.

- 1/ España'ko katolikuai  
bertsuak jartzen asi da,  
estranjerua izanagatik  
bera ere emen bizi da;  
eztu baliyo gizon batekiñ  
itz egiteko biz-bira,  
iñoiz edo beñ asten danian  
sartutzen dute azpira;  
baldiñ nagusi izan nai badu  
baliyoake Frantzira.

2/ Au kontsejatu duana zein dan  
ondo enteratu naute,  
len pobria zan aberats ori  
erriyan askok du maite;  
bere jatorrak kanpora laja,  
besterenakin amante,  
Euskalerrriyan ekusten degu  
amaika orlako tunante,  
nori beriak eman ezkeru  
ezer ez luke sobrante.

3/ Erne oneri errespuesta  
nua bertsuak jartzera,  
au zer alaja agertu zaigun  
eman nai det aditzera:  
ezkabia edo lepra gaixtua  
sortu zan gure etxera,  
lendabiziko fueroak kendu  
eta gero islak galtzera,  
pariente eta anaiez orain  
akordatutzen al zera?

4/ Milla ta bederatzi eun da  
zazpigarrengo urtian  
katolikuan anaitasuna  
sartu nai dute lur-pian;  
frailiak eta monjak fetxatu  
nai lituzteke golpian,  
gure aitonen lege zarrari  
laja zaizute pakian,  
orduan ez da gerrik izango  
españolaren artian.

5/ Begiyen bistan jarriya dago  
nai duanak enteratu,  
aberatsak beren guardirako  
orrenbeste enpleatu;  
bastoia artu eta paseatuaz  
oiek berena tiratu,  
eta bi jornal irabaziya  
ainbeste erretiratu,  
frailiai fetxik kargatu gabe  
badago non erreperatu.

6/ Frailiak fetxak pagatutzeko  
atera dute idia,  
langilleantzat bentaja dala  
**esaten or ari dia;**  
orrekiñ asko alegratzen naiz,  
aizazu, adiskidia,  
pobriarentzat orrenbesteraño  
urrikaldutzen badia,  
oik berenetik laja bezate,  
egiña dago guria.

7/ Garai batian Españi ontan  
baziran frutu gozuak,  
oraiñ pusketan arkitzen dira  
len ziradenak osuak;  
fetxaz kargatu nai lituzteke  
berriz relijiosuak,  
lenago ere oiei kenduak  
badira milloi batzuak,  
asko-biarrak izaki nonbait  
gilbur aundiko otsuak.

- 8/ Oraiñ kapitala nonbratzen dute,  
lenago zan Irutxulueta,  
nik arrazoia au eman artian  
artu ezazute beta:  
miserablian bizkarretikan  
bizi da zenbait maleta,  
oiek daukaten salariyuaz  
iñor keжатutzen ezta,  
gizon bakarrak gaur kobratzen du  
len bostek añako errenta.
- 9/ Gerra biziya guk darkadegula  
ari danak gezurretan,  
merezi luke makill batekiñ  
ematia ezurretan;  
beretakuak dituzte faltak,  
ez da dudarik orretan,  
pakian laja izan bazuten  
len zeuden lege zarretan,  
gure Españi maitagarriya  
gaur etzeguen zorretan.
- 10/ Bai al dakizu jesuita,  
fraile eta monjañ legia?  
zuk esan dezun erremate eta  
obretan sartzen al dia?  
kontzientziko gizon bateri  
egin zaiozu galdia,  
edo bestela ixillik zaude,  
pikaro ajol-gabia,  
gaur ere oien gaiñ balegoke  
ondo litzake pobria!



11/ Ama Birjiña Pillarekua  
arturik nere anparo,  
arrazoia orren errespuesta  
emango dizutet klaro:  
uste zenuten izango zala  
gezurra esan da akabo,  
elizik itxi ezpada ere  
saiatu faltik ez dago,  
relijiyua jarri nai dute  
libertadian esklabo!

12/ Gezurrarekiñ besteren bizkar  
kargak botatzen ez asi,  
botuak fuerzan bildutakuak  
zerok ziñaten lenbizi;  
Españiya'ko relijiosuak  
kanpora bialdu-azi,  
oju egiñaz ilbertadia  
bear zenutela nagusi,  
gure zarraren erentziyak  
etzuen ori merezi.

13/ Zori onian egiñ genduben  
Donostiara bisita,  
ejenplu onak ikasi ere bai  
maisua erakutsita;  
relijiyorik ez da galduko,  
egon zaitezte etsita,  
banderarekiñ zuek jua arren  
boina gorriyak jantzita,  
guria goitik gelditua da  
ez eramanakgatika.

14/ Nere barrena deskantsatu da  
errespuestak jarrita,  
gu Donosti'ra juanagatik  
ez da etorri gerrika;  
nere lagunak, letu zazute  
papera auxen korrika,  
usteko zuten an zeguela  
anarkistaren fabrika,  
urrengorako badakizute,  
etzan orrelakorika. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Imp. Correo Guipuzcoa", Joa-  
kin Ganborena Zabala, Errenteria.

## BERTSO BERRIYAK

### I. R. T'ek JARRIYAK

Bertso auek, *Guerra Europea* deritzaionari jarriak dira. Lenengo, Txirritak jarri zituan, frantzesen alde ordea. Ori etzitzaion Jose Ramon Taberna'ri gustatu. Ta onako auek aterra zituan, Txirritari erantzunaz eta alemanen alde:

- 1/ Bertso berriyen errespuestak bertatik nai ditut kanta,  
jendia ondo entera dediñ  
egiyak garbi esanta,  
oiek aditu nituenian  
oso arritu nintzan-ta;  
auzuetatik zertan eraman  
etxian indarra izanta?

2/ Diyozutenez Belgika ori  
izanik orren txikiya,  
aundiyaguari onez onian  
zertan ez utzi tokiya?  
gañera berak tiroka ekiñ,  
erantzuera propiya,  
istoriyetan azalduko da  
galtza oien aroakiya. (1)

3/ Ogei ta amar milla milloiko  
omen zituzten eskatu,  
frantzesak esan omen ziyoten  
etzutela nai prestatu;  
jeneral Foch'ek ezpatarekiñ  
Kaiser omen du sustatu...  
jartzen dituzten gezurrarekiñ  
batek biar du nazkatu!

4/ Neronek ere aditu diyot  
esaten asko gizoni:  
lau urti ontan biziya kendu  
zaiola zenbat personi;  
jeneral Foch'ek Kaiser bantzutu,  
*bibaka* ari Wilson'i,  
egiya garbi ateratzeko  
erreparatu itz oni.

---

(1) aroakiya: arabakiya.

5/ *Ronpecabezas* jarko dizutet  
nai dezutenak pentsatu,  
zeñek soñua jo duen eta  
zein nola diran dantzatu;  
prusianuan ejerzitua  
ez dute armaz bentzutu, (2)  
Alemani'ko sozialistak  
diruz dituzte gaintzutu.

6/ Lendabiziko langillietan  
sortua zuten naspilla,  
Amerika'ko diruarekiñ  
egiñ ziyoten koskilla;  
muniziyorik egiñ nai ezik  
kargatutzeko fusilla,  
orrela gerra irabazitzen  
ez da izango fazilla.

7/ Balientien itxura egiten  
oraiñ zertako dabilta?  
ez al dakite non artu zuten  
lendabiziko paliza?  
ruso belga ta franko inglesak  
baizik izan ez balitza,  
oiengatikan bi urti ontan  
sartuak ziran Paris'a.

---

(2) Paperak *arman* cio; *armaz* jarri degu, onela  
bear dualakoan.

- 8/ Ogei naziyok gutxiyenian  
laun kontra artu partia,  
Wilson'ek gerran sartu baño len  
egiñ nai zuen pakia;  
bañan natural etzan ibilli,  
itxurak ala baitia,  
nonbait mudatzen erraza izan  
orren barrenge trajia.
- 9/ Frantzes oriek pentsatu zuten  
Berlin'araño joatia,  
Alemani'ko fronteran laster  
jarri ziyoten topia;  
nei gizon batek esan diranez  
larri ibilliyak-tia,  
Burdeos'era Paris'tik azkar  
eraman zuten kortia.
- 10/ Inposible da, frantzes a ezta  
burutik oso sanua,  
yankia bere alde artua  
etorko zaio damua;  
legorrian ta itxasuetan  
botia dauka amua,  
Burdeos'tikan Hendaya'ra arte  
laister amerikanua.

11/ Gauzak natural esan nai ditut,  
ez naiz ariko atzetik,  
diferentziya egonagatik  
irabazira galtzetik;  
amerikanua ateratzeko  
frantzesak beren etxetik  
malko ederrik bota biar du  
bostek begiyan ertzetik.

12/ Nondika nora sortu ote da  
gerra orren arrastua?  
orregatikan gaur arkitzen da  
mundu guztiya nastua;  
baldiñ luzatzen asitzen bada  
Jaungoikuaren eskua,  
kulpa duenak ikusiko du  
oraindik ordu estua.

13/ Bertsu onekiñ bukatzen ditut  
desiatua nago-ta,  
franko inglesak Alemaniya  
lur-pera nai dute bota;  
berak eziñ ta yankiak diruz  
egiñ diyote burruka,  
oiek amerikauen mendian  
jarri digute Europa. (3)

---

(3) Bertso-papera, "Tip. DIARIO VASCO", Jose Antonio Berrondo, Erdiko-etxe, Errenteria.

## GORA OIARTZUN!!

Taberna karlista zan, eta etzituan gordezeko bere irizbide ta sentimentuak. Garbi asko agertzen ditu onako bertso auetan, ta are garbiago oraindik urrengo orrietakoetan. Politika-bertsoak dira, beraz. Edo, obeto esateko, garai artako jendearentzat politika, ta guretzat kondaira-agergarri diran bertsoak.

Juanito Zabaleta bertsolaria zanaren eskuz idatzitako paperetatik eta *La Constancia* periodikutik jasoak ditugu.

Zabaleta'ren alargunak esan digunez, sekretariotza bere senarrak egiten zion Tabernari; onek asmatutakoak arek kopiatzen omen zituan. Orra nola gorde izan diran bataren bertsoak bestearen etxean.

Jarri-aldi auek guziak, *Aiton batek* izengoitiarekin firmatu zituan Tabernak Izengoiti onen atzean nor izkutatzen zan ere Zabaleta'ren eskuz-idatzietatik jakin degu. Oieta-ko batean, eskutitz-*borradore* dan idatzi batean, onela esaten da: "...ara emen bertso berriyak, aiton batek jarriyak (Jose Ramon Taberna'k) euskal orrirako."



1/ Oirtzun'en izan da  
karlista mordoska,  
zenbait asiagatik  
ill gerala oska;  
askok egiten dute  
azpitikan kozka,  
orrenbeste gezurrek  
ematen dit nazka...  
Oiartzunek oraindik  
karlistak badauzka.

2/ Eun da bat urtekua  
aurretik jarrita,  
gañera badirade  
zenbait *margarita*;  
mai-buruan bazkaltzen  
sillan exerita,  
musu gorriyarekin  
gazte bat diruri-ta,  
Doña Estanislada  
señora polita. (1)

Aiton batek  
(9/10/32) (2)

---

(1) Andre au, Estanislada Etxabe Baroja zeri-tzan. 1932/V/22'an omenaldia egin zitzaion, egun orretan eun urte kunplitu baitzitan. Juanito Zabaleta bertsolariak bertsoak jarri zizkion. (Auspoa, 63-64, 96'gn. orri-alde.) Amonatxo au, Pio Baroja'ren lengusu txikia zan. (Pío Baroja: Obras Completas, VII, 508'gn. orri-alde.) Andik bi urtera il omen zan.

(2) Bertsoak, firma ta eguna, Juanito Zabaleta zanaren eskuz idatzietako paperetatik.

## DIJUAKIYONARENTAT

1/ Errenteritik asita  
Oiartzun'go muan,  
bizi dan gizok batek  
zer itz egin duan;  
nik ez dakit jaun orrek  
zer daukan goguan,  
aitari esatera  
omen zaio juan:  
karlistak beltzarekin  
dijuaz orainguan.

2/ Len ere izan dira  
zeinbat botaziyo,  
oiek guri egiñak  
ainbat despreziyo;  
gauzak ekusi arte  
artu despaziyo,  
ez ibilli oinbeste  
gezur ta pasiyo,  
karlistak ez dijuaz  
beltzakiñ soziyo.

3/ Beti karlisten kontra  
ari da lanian,  
grña txarra badauka  
bere barrenian;  
amabost egun edo  
illabete-urrienian  
berriz konfesatzera  
joaten danian,  
zer esan bear diyo  
zortzigarrenian?

4/ Testimoniyo faltsua  
iñori jasua,  
anima salbatzeko  
da peligrasua;  
ori ezagutzeko  
ez izan lausua,  
orrela gezurretan  
ematen pausua,  
ez al dago begira  
Jaun amorosua?

Aiton batek  
(16/4/33) (1)

---

(1) Bertsoak, firma ta eguna, Juanito Zabaleta zanaren eskuz-idatzietatik.

*La Constancia*'n argitaratu ziran bertso auek, 1933/IV/23'an. Aldaketak: 2/4: asko despreziyo; 3/1: Beti karlisten aurka; 3/6: illa-urrienian; 4/1: Agerbide faltsua; 4/4: dago gaiztua; 4/10: Jaun maitarosua. Dudarik ez da, ontan eskuren bat ibilli dala bertsoak ustez garbitzen.

## “BIYOTZ ONEKO GIZON PRESTUAI...”

- 1/ Biyotz oneko gizon prestuai  
nai diyet adierazi,  
katolikuak alkarrengandik  
ez gaitzatela berexi;  
iñoiz ardirik juaten bada  
artaldetikan igesi,  
Jesusek ala agintzen du-ta,  
ostera bildu-erazi.
  
- 2/ Garai batian etzan izaten  
oraiñ dan ainbat alkarte,  
paketsuetan gerra jartzia  
oriyek berak dakarte;  
guztiyakgatik Jesus ill baizan  
ori ez al da bastante?  
katolikuak zergatik gabiltz  
alkarrengandik aparte?
  
- 3/ Antziñakuak kruzadako gerran  
Españiya'tik izanak,  
euskaldun eta erdaldun naste  
biyotz oneko gizonak;  
oraiñ aparte bizi izateko  
askok dauzkate afanak,  
dotriña ori etzuan jarri  
zeru ta lurraren Jaunak.

4/ Jaunaren lenengo aginduakiñ  
pentsatzen ari naizela,  
ortan utsa egin gabeko asko  
nago munduan eztela;  
lagun urkua maitatuzera  
geren burua bezela  
alegiñian saia gaitezen,  
galduak gera bestela.

5/ Katolikuak alkarren kontra  
basarriyan ta kalian,  
lenago anai giñanak oraiñ  
jartzen gaituzte pelian;  
or dabilltzanak oker ô zuzen  
agindutzeko zalian,  
zer kontu eman izango dute  
Jaunaren tribunalian.

Aiton batek  
(7/5/33) (1)

---

(1) Bertsoak, firma, eguna ta guzi, Juanito Zabaleta zanaren eskuz idatzitako paperetatik.

## EUSKALDUNAK, ERNE!

- 1/ Euskera daukatenak  
emengo Jaungoiko,  
lege zarraren alde  
ez dira ibilliko;  
konforme dira artzeko  
Estatuto laiko,  
gure aurreko zarrak  
au etzuten naiko.
  
- 2/ Lenguan gizon batek  
egin ziran galde,  
zein diran dabiltzanak  
lege zarren alde;  
eta erantzun niyon:  
"Gu're ala gaude,  
baño ez asko bezela  
Jaungoikorik gabe."
  
- 3/ Jaungoikorik gabeko  
euzkotar buruak  
neri ez deritzaizkit  
oso seguruak;  
Estatuto laikokin  
nai dituzte Fueruak...  
orlakuak ez dira  
euskaldun beruak!

4/ Euzkotar askok dauka  
kantatzeko moda:  
"Bera Alfonso Karlos!  
Republika gora!"  
Frailiak eta monjak  
bialdu kanpora...  
ala ere agurtzen  
Alcalá Zamora!

5/ Bada denbora franko  
esaten dutela  
Estatuto laikua  
eman nai dutela;  
ori zertarako dezu,  
euskaldun epela?  
zillarrezko bandejan  
patata ustela!

Errenderi — Aitona batek  
(1/9/33) (1)

---

(1) Bertsoak, firma ta eguna, Juanito Zabaleta  
zanaren eskuz idatzitako paperetatik.

## EUSKALDUN BERRIYAK

1/ Ondo oroitutzen naiz,  
gaztetxo nitzala  
zuriyak eta beltzak  
besterik etzala,  
gaur eziñ konta-ala  
naste dabiltzala,  
fameliyetan gerra,  
auzuan itzala...  
okerra oiek Jainkuak  
zuzendu ditzala.

2/ Zuritarrak ziraden  
gure gurasuak,  
erakutsiyak berak  
aita-ama gaxuak;  
relikitan bezela  
zeuzkaten jasuak,  
puskatu nai dituzte  
oain Fuero doatsuak,  
Gernikako arbola-  
ren frutu gozuak.

3/ Estatutoan billa  
daukaten larriya,  
aldatu nai luteke  
landare berriya,



emango omen digu  
fruta ugariya;  
baturik zuri ta beltz,  
more ta gorriya,  
zuzendu biarra da  
gure Euskalerriya.

4/ Gure Fuero ederrak  
ematen diye miñ,  
katalan ezkerakiñ  
nai luteke berdiñ;  
*Estatuto único*  
emen jarri dediñ,  
Kongresuan jaun batek  
ala du itzegiñ,  
ekarko badu ere  
Rusia'ko Leniñ.

5/ Madrid'en española,  
emen euzkotarra,  
bi oponiyorekiñ  
gizon bat bakarra;  
okerrak zuzentzeko  
itxura kaskarra,  
fabrikantia izan-  
gantikan azkarra,  
oiekiñ egingo du  
txokolate txarra. (1)

Aiton batek

---

(1) Juanito Zabaleta zanaren eskuz idatzitako bertso-paperetatik.

"La Constancia", 25/III/1934.

## BERTSO BERRIYAK

1/ Gerratian karlistak  
omen ziran falsuak,  
karlistak etziranak bai  
tartian batzuak;  
orduko bei esne-dunak  
gaur daude antzuak,  
ondata zituztelako  
liberal mantsuak,  
ardi-larruz jantziyan  
sortutako otsuak.

2/ Zenbat karlista il zan  
fediaren alde,  
bestiak beste, egiñ  
Oiartzun'en galde;  
ori dakitenak an  
izango dirade,  
lenago ziradenak  
interes an jabe,  
orduan geldituak  
etxe ta lur gabe.

- 3/ Ez naiz gezurretan ari  
baizik egiyetan,  
argiya jarri nai nuke  
itsuen begiyetan;  
zenbat karlista il zan  
mendi oriyetan?  
interesak galduta  
egonduak diyetan  
asko izandu dira  
euskal erriyetan.
- 4/ Españi'tik bialdu  
monjak ta frailiak,  
au eziñ eraman zuen  
karlisten fediak;  
argatik izandu ziran  
emengo peliak;  
liberalak kenduak  
gure zarren legiak,  
gaur aien seme asko  
lege zar zaliak.
- 5/ Famili on asko da  
gizon ta emakume,  
ori aitortutzeko  
nago ni konforme;  
bañan, nere lagunak,  
beti egon erne,  
errepñ zarrak entzun  
izan ditut len'e:  
subearen umia  
beti subekume.

6/ Liberalak karlistai  
diyoten tirriya,  
daukate gurasuen-  
gandik etorriya;  
agortzen txit zalla da  
oien iturriya,  
ez det seinalatu nai  
etxia ta erriya,  
berak osatu zuten  
Batzoki berriya. (1)

Aiton batek

---

(1) "La Constancia", 6/V/1934.

## BERTSO BERRIYAK

1/ Au dakienik arkitzen bada  
egiten diot galdera:  
zenbat modutâ serbitutzen dan  
Jesukristoren bandera?  
elizan sartzen geran guztiak  
katolikuak bagera,  
andik kanpora zergatik gabiltz  
bakoitza bere aldera?

2/ Mundu guztiko Elizan Buru  
Aita Santua Erroma'n,  
emen alkarri baterik (1)  
ezin diogu eraman;  
Jesusek gure anaia zala  
zuen aditzera eman,  
orduan emen katolikuak  
zertâko gabiltza teman?

---

(1) Nabarmen dago emen, inprentaren kulpaz noski, zerbait falta dala.

- 3/ Ama Birjiña gure Ama da-ta  
Jesus da gure Anaia,  
au adituta gure biotza  
egon liteke alaia;  
guztiak alkar maitatutzeko  
berak jarri zuan gaia,  
orduan emen zertarako da  
berex bizitzeko naia?
- 4/ Dudarik gabe zenbaitek dauka  
kapritxoren bat artua  
berena ez dala Valladolid'ko  
Jesusen Biotz Santua;  
berriz denbora datorrenian  
edukiko det kontua  
ia nai ezik lagatzen duten  
erdaldunaren botua.
- 5/ Sermolai bati aditu nion,  
ta bera etzan eskasa,  
arren esana kontatuko det  
nik orain denbora pasa;  
au zenbaiteri ezta izango  
buruan sartzen erreza:  
emen besterik ez dago, baizik  
Adan ta Ebaren arraza. (2)

Aiton batek

---

(2) "La Constancia", 27/V/1934.

## BERTSO BERRIYAK

1/ Liberalak jarriyak  
dira emengo kintak,  
nai badituzte atera  
zinerako zintak;  
Manolokin konforme (1)  
diraden lebitak  
Eliza indartzeko  
a zer erremintak!

2/ Manoliton-ta griña  
biar det azaldu:  
Elizako legiak  
nai dituzte galdu,  
frailiak eta monjak  
emendik bialdu...  
oiekin alkartzeko  
barrena biar du!

---

(1) Manuel Azaña, alegia.

3/ **Kondenatua dala  
liberalkeriya,  
Elizako gizonak  
dago erabakiya;  
lagun artuta Judas  
eta konpañiya,  
Eliza indartzeko  
ai zer alderdiya!**

4/ **Au aditu zaidazu,  
katoliko fiña,  
ez al dakizu zer dan  
Manolon-ta griña?  
baliatzen bazaie  
promesa egiña,  
Elizarentzat jarko  
dute gillotiña.**

**Anton batek  
(28/10/34) (2)**

---

(2) Bertsokak, firma ta eguna, Juanito Zabaleta bertsolaria zanaren eskuz idatzitako paperetatik, eta "La Constancia", 9/VI/1935. Onek aldaketa bat dauka: 4/7: Elizantzat jarriko.



**JOSE KRUZ URRUTIA**

**(1885-1962)**

Jose Kruz Urrutia Olazabal Ondarrabia'n jaio zan, 1885'gn. urteko Uztaren 16'an, goizeko lau t'erdietan.

Gurasoak, Juan Luis, oiartzuarra, ta Meltxora, ondarrabitarra, izan zituan. Aitaren aldeko aiton-amonak, Paskual eta Manuel Landa; amaren aldekoak, berriz, Martin eta Rosa Zabala. (1)

Bataio-agirian, Urrutia'ren aita okiña zala esaten da. Bañan bere famili guziarekin Ondarrabia'tik Erretereria'ra aldatu zan, eta emen, beintzat, xextogintzan jardun omen zan. Ala esan digute erreteriar zaarrak ao batez.

Urrutia'ren aitari Xanbuio esaten zioten izengoitiz. Xextogintzan ari zala, zerbait oker antzean egiten zuanean, onela esaten omen zuan:

—Au ere komeria da gero: Ari gerala, ari gerala, zer ari geran aztu!

Ta esaera au Erretereri guzira zabaldu zan. Gaur egunean ere erreteriar zaarrak onela esaten dute bein baño geiagotan:

---

(1) Ondarrabia'ko 13'garren bataio-agiri-liburua, 252'garren orria.

—Ez degu Xanbuiorena egin bear: Ari gerala, ari gerala, zer ari geran aztu!

Bere seme Jose Kruz, gure bertsolaria alegia, bi aldiz ezkondu zan: lenengoz, 24 urterekin, Lezo'n, 1909'gn. urteko Abuztuaren 21'an, Ondarrabia'ko alaba zan eta Lezo'n bizi zan Katalina Goenaga Iraola'rekin. Onek 21 urte zituan. (2)

Bañan Urrutia, denbora asko gabe, alargundu egin zan. Ta bigarrenegoz ezkondu zan 1912'gn. urteko Apirillaren 27'an, Nafarroa'ko Azagra'ko alaba zan eta Errenteria'n bizi zan Dolores Viciano Sánchez'ekin. Andregaiak 23 urte zituan. (3)

Urrutia'k *Alcoholera Española*'n egiten zuan lana.

Bertso-lanean, aotik aora kantatzen baño geiago, paperean jartzen saiatu zan bere denbora guzian. Bertso-sail batzuek *Bertsolariya* bertso-errebistan argitaratu zituan; beste zenbait, berriz, bertso-paperetan. Batetik edo bestetik eskuratu al izan ditugunak, urrengo orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak.

---

(2) Lezo'ko 3'gn. ezkontz-arigi-liburua, 165'gn. orria.

(3) Errenteria'ko 11'gn. ezkontz-agiri-liburua, 51'garren orria.

Gerra-denboran Errenteria'tik alde egin zuan, bañan laister etorri zan ostera.

1962'gn. urteko Otsaillaren 27'an il zan, 76 urterekin, erderaz *trombosis cerebral* esaten zaion gaitzarekin, goizeko ordu bi t'erdietan, Lezo-kalean, bostgarren zenbakian, bigarren bizitzan, eskubi-aldean. (4)

---

(4) Errenteria'ko 17'gn. eriotz-agiri-liburua, 479'garren orria.

## BERTSO BERRIAK

### URRUTIA'K JARRIAK

1/ Inõorentzat ofensik  
ez nuke nai jarri,  
nere gustua da  
animaliyari;  
ez det sartuko jaun bat  
ontan pekatari;  
libertadia badet  
asteko kantari;  
lizentziya ori  
eman naute neri;  
asiko naiz sarri  
saltzen erriz erri,  
... ..  
... .. (1)

---

(1) Daukagun paperak, emen puntutan daudenak eta 2 ta 3 ta 4'garren bertsoak falta ditu, puskatuta dago-ta.

5/ Penagarriya da  
astua orren planta,  
aspaldiyan ez du  
biar aña janta;  
bentajikan ez daukat  
gezurra esanta,  
nai duenak ikusi  
ondora juanta:  
lurrian etzanta,  
burua galanta,  
arrantza egiñ an ta  
eztarri marranta  
legundu bear zaio  
arrautzak emanta!

6/ Lengo arrats batean  
iya gauerdiyan,  
etzanta zegoan  
birian erdiyan;  
zutikan nekatua  
deskantsu-premiyan,  
indarrak juanta dago  
ori auleriyan;  
nai duen erriyan  
sal zala ferriyan,  
plazaren erdiyan,  
zerbait uskeriyan...  
larruak baliyo du  
zapateriyan.

7/ Orrekin ibilli da  
asko karretero,  
pioya, arotza, argiña  
eta errero;  
deskantsurikan gabe  
oinbeste enredo,  
pensuaren partez  
garrotia gero;  
astua kargero  
or dabil kalero,  
ikatz ta mortero,  
denan maletero...  
mantenduko lituzke  
lau barkillero.

8/ Askotan ikusten det  
kanpoan euritan,  
bizkarra prestatuta  
egunian bitan;  
isatsa gastatua  
beti euliketan,  
belarriyak zintzilik  
or dabill diyetan,  
paraje txarretan,  
bire-bazterretan,  
belar igarretan,  
gabez amarretan...  
sorgiña ematen du  
orrek illargitan.

9/ Bire-ertzeko belarrak,  
gañera lastua,  
ezta nolanaikua  
orren gastua;  
lana asko egiteko  
mantenu bastua,  
ala ere badago  
naiko pretestua;  
orren arrastua  
txit alrebestua,  
zutikan aztua,  
burutik nastua...  
premiyua merezi  
luken astua.

10/ Animaliya orrek  
badu edadia,  
zartu ta juan zaio  
abillidadia;  
ankik ezin mugitu  
enfermedadia,  
zeñek indartuko du  
orren auldadia?  
jaten du berdian,  
txarrak igual dia,  
dena debaldia,  
ez da kobardia...  
kontentu egon liteke  
orren jabia.



11/ Gortutzen asiya da,  
laburtua bixta,  
gutxinez bear ditu  
iru okulixta;  
denak ezin kontatu,  
zeñek artu lixta?  
gustu duenak pasa  
emen errebista;  
kolorez txuriz ta  
erdi anarkista,  
alper komunista,  
arraio tximixta...  
rusua ematen duen  
kapitalista.

12/ Astua ori non dagon  
galdetzen badute,  
erritikan ez dago  
guztiz aparte;  
Oiartzun'dik asi ta  
Ernani bitarte,  
bire-bazter batian  
ikusko dezute;  
sokaz lotzen dute  
estututa fuerte,  
mingaña atera arte,  
sufritzen daukate...  
purgatoriyu au era-  
kusten diyote.

13/ Indarra gutxi dauka  
aul xamar dago-ta,  
balantz egiten du  
erozein aldetâ;  
etzait asko gustatzen  
orren ibilketa,  
ikara sartu zaio  
atzeko anketâ;  
maiz xamar diyeta,  
lana egiñ jota,  
pentso gutxi bota,  
garesti dago ta...  
erakutsi biar zaio  
nun dan errota.

14/ Amalau bertso dira  
biña sos saltzeko,  
aukera badago nai  
duenentzako;  
naikuak badirade  
asto batentzako,  
ez det uste dirala  
iñoren kalteko;  
falta du jateko,  
ondo izateko;  
egiya esateko  
nik ez det aseko...  
nai duenak artu  
Olentzarotako. (2)

---

(2) Bertso-papera: "Gráficas Urezbea—Rentería",  
Inozenzio Urkia'k emana (Portuene, Alzibar, Oiar-  
tzun).

## BERTSO BERRIYAK

### URRUTIA 'K JARRIYAK

1/ Guraso asko penatzen daude  
seme-alabak azitzen,  
anparorik ez, ogia falta,  
aurrak tristeak sufritzen  
negar malkoa begi bitatik,  
alare ez dira kupitzen...  
Jesukristoren dotriñik ez du  
munduan iñork kunplitzen.

2/ Orgullua ta banidadeak,  
poderatuan grandeza,  
lur jotzeraño ekarri dute  
langillearen pobreza;  
posible ezta sufritutzia  
beti olako bajeza,  
probatzen degu nolakua dan  
dezakenaren nobleza.

3/ Igualdaderik mundu onetan  
ezin liteke logratu,  
oraindañoako buruzariak  
ez al ditugu probatu?  
itzak ederrak aurretik egin,  
denak igual obratu,  
au konprenditzen erraza degu,  
zertan iñor izentatu?

4/ Gaiztoa ta ona munduan zein dan  
ez naiz asiko juzgatzan,  
ikusten ditut bakar batzuak  
umil daudenak tentatzen,  
inuzentea engañatzeko  
argumentuak pensatzen;  
projimorikan iñork ez degu  
bear bezela maitatzen.

5/ Lengo denboran ere gaiztoak  
ikusten ziraden nun-nai,  
besteren ona ezin sufritu  
eta norberak ala nai,  
mendekua jo panparroikeriz  
libre zalakuan zernai;  
Kain ta Abel ziraden gisan  
badirade zenbait anai.

6/ Guraso zarrak gau eta egun  
ejenplo onak ematen,  
alaz guztiaz kontu atera  
umil dagona zenbat'en; (1)  
blasphemiz gabe arrazoi on bat  
zuzen ez degu esaten,  
lanikan asko izango degu  
aurrera obeak izaten.

7/ Umildadean dagon persona  
juzgatzen dute tontotzat,  
blasphemiz itzak galaz dauzkanak  
bere burua listotzat;  
aitortuko det danon aurrean:  
ez naiz egiten justutzat;  
pake ederrean bizi gaitezen  
au komeni da denontzat.

8/ Elkar ikusi nai ez degula  
ola zertako gabilta?  
modu onetan izango degu  
eternidadeko gaitza;  
bire askotan nastu gerade,  
non-nai badago arkaitza,  
ia gaur zeñek egingo duen  
denan gustoko artzaitza?

---

(1) zenbat'en = zenbat den.

9/ Opiniuan elkarren kontra  
emen gabilta gau ta egun,  
gerrik ez dela komeni, bañon  
ai zer pakea daukagun!  
Jaio berela illtzia berdin  
ez dakigula noiz degun,  
au pentsatuta bizi gaitezen  
denok elkarrekin lagun.

10/ Guraso baten seme guztiak  
ez dira igualak izaten,  
nork berak daki barrenan daukan  
sentimentua zenbat'en;  
biotzetikan emen ari naiz  
dauzkaten penak esaten,  
suspiriak alferrik dira,  
ez du balio izaten.

11/ Errespetua erakustera  
saiatzen naiz on-bearrez,  
graziyan partez despreziua,  
urtutzen nago negarrez;  
kostata aziyak ama tristeak  
bere petxuko bularrez,  
itz guztietan agur da amen,  
bizi gerade bildurrez.

12/ Guraso zarrak erakutsia  
etorritzen zait gogora,  
jaio giñaden birean dator  
gure illtzeko denbora;  
kontzientzia garbi eduki  
erregutuaz an gora,  
mundu ontatik jun nai badegu  
Aita Eternuan ondora. (2)

---

(2) Bertso-papera, "Imp. Macazaga — Rentería",  
Ioseba Gurutz Arrieta, Errenteria.

(1931)

**BERTSO BERRIYAK**  
**URRUTIA'K JARRIYAK**

1931 urtean, omenaldia egin zitzaion Xenpelar bertsolariari Erretereria'n. Baita ere oroitarri bat jarri, bera il zan etxean, Malen-kalean. Festa ori zala-ta, bertso auek jarri zituan Urrutia'k:

- 1/ Malen-kalian jarriya dago  
Xenpelar jaunana izena,  
oroipenak aztuko ziran  
ez bazan izan zuzena;  
leiala eta iztun garbiya,  
denak maitatzen zutena,  
euskaldun bakar bat ezta erriyan  
gogoratutzen ez dana,  
bertsolaritan Erretereriya'n  
izandu danik onena.



2/ Irurogei ta bi urte dira  
Xenpelar jauna il zala, (1)  
aren anima mundutik juan zan  
emen utzita itzala;  
sustrai ederrak bistan dauzkigu  
zeruko izarrak bezela,  
erriyan dauden buruzariyak  
artaz oroitzen dirala,  
euskera ederra maite dutenak  
aren denboran bezela.

3/ Gauza txarrikan etzuen egiñ  
munduan zegon garaian,  
bertso ederrak zabaldu ziran  
Gipuzkoa'n ta Bizkaia'n;  
pakian alde prestatzen zana  
danentzako ondo naian,  
errespetua erakutsiyaz,  
itza egiñ arrazoian,  
naiago nuke ikusiko banu  
Josapetako zelaian.

4/ Aita neriak esan diranez,  
ura gaztia zanian  
kale berian bizitu zala  
auzuan aldamenian,  
aren etxera juaten zala  
beti edo geienian,  
anaia ainbat maite zuala  
beregana zuzenian;  
negar malkua ixurtzen zaio  
gogoratutzen danian.

---

(1) Xenpelar 1869 urtean il baitzan, bertso auek  
1931 urtekoak dira.

5/ Publiko aurrera ez naiz etorri  
gezur aundiya esatera,  
opiniyua batian degu  
eta fedia bestera;  
mundu au nola egiña dagon  
eziñ kontuak atera,  
bi bire daude jarriyak emen,  
ori da gure aukera,  
azkeneko ordura etorri arte  
apuratutzen ez gera.

6/ Berriz pixtuta etorko balitz  
Madalenaren kalera,  
esango luke: "Etsai guziyak  
juntatu dira onera!";  
urte gutxitan nola nastu dan  
Errenteri'ko euskera,  
begiratu bat egingo balu  
bizi izan zan etxera,  
aren balkoian ikusiko luke  
errepublikano bandera.

7/ Xenpelar jauna, gizon leiala,  
iztun ederra izan zan,  
egi garbiyak franko esanda  
mundu ontatik juan zan;  
ondoren beti emen gabiltza  
iya urtero mudantzan,  
eskui-biretik apartatuta (2)  
ezker aldera balantzan,  
etsaiak pozez egon leitezke  
gure animan zalantzan.

---

(2) Paperak *apartatu* dio; nabarmen dago *apartatuta* bear duala.

- 8/ Iñorentzako ofensik gabe,  
arkitzen naizen kasuan,  
itza emana kunplitu biar det  
nik borondate osuan;  
gaizki dabillen enemigua  
eroritzen da lazuan,  
naiago det zuzen ibilli  
lengo zarraren pausuan,  
korrika astia etzait komeni,  
sartu nitezke putzuan.
- 9/ Garai batian festik onenak  
izaten ziran erriyan  
bertsolariyak juntatutzian  
plaza zabalan erdiyan;  
itz eder franko aritutzen zan,  
danak euskera garbiyan,  
aspaldi ontan bizi gerade  
erdaldunakin nasiyan;  
pake-pakian bizi gaitezen  
Jaungoikuaren graziyan.
- 10/ Xenpelar il zan, aren ordeko  
beste bat bada ordaña:  
Joxe Manuel Txirrita'kua  
bertsolariya bikaña;  
memoriz ondo jantziya dago,  
errespetuko mingaña,  
ejemplo onak erakutsita  
egin du zenbait azaña;  
sekulan ezta galduko emen  
euskera ederraren zaña.

11/ Lengo euskal festetan  
Txirritak aurren-aurrena  
errespetu erakutsiyaz  
arrazoi-bire zuzena:  
purgatoriyuan bazan  
Xenpelar il zana,  
zerura altxa dezala  
Jaungoikuak beregana;  
au zan erriko balkoitik  
ujuka esan zuena. (3)

12/ Oitura txarrak gauz onikanen  
eztu guretzat ekarri,  
umildadian errespetua  
izan dezagun alkarri;  
kontseju txarrik gaztientzako  
nere ustez ez det jarri,  
Errenteri'tik bertso berriyak  
atera ditut ongarri;  
gusto duenak sos bikuakiñ  
paperan billa etorri. (4)

---

(3) Nabarmen dago bertso au zenbait puntutan oso aldrebes dagoala, inprentak-edo utseginda. Urrutia'k etzuan, guk uste, olakorik paperean jarriko.

(4) Bertso-papera, "Imprenta Macazaga", Juan Zabaleta bertsolaria zanaren paperetan arkitua.

(1932)

**KALEZ-KALE  
URRUTIA'K JARRIYAK**

- 1/ Nun bizi naizen neregatikan  
iñoiz galdetzen badute:  
Ibargurenen etxean nago,  
ez da erritik aparte;  
egun bat metro inguro daude  
kaletik araño arte,  
estranjeritik etorrira ere  
aixa billatuko naute.
- 2/ Geienez amar egun dirade,  
bi zorrozkillen ataian,  
txistua joka ixildu gabe,  
labanak zorroztu naian;  
ubalak jarri bueltak emanaz  
amarretako garaian,  
martxa artan aixa eguardirako  
sartuko ziran Bizkaian.

3/ Aik jun da ondoren beste bat berriz  
guardasol-konpontzallea,  
koltxoi batentzat ainbeste bazan  
aren buruko illea;  
brusa aundi bat txuri-urdiña  
eta pipa artzallea,  
Ungri aldetik etorri bazan  
ai zer arpa-jotzallea!

4/ Eskalari bat izandu zaigu  
mutu-paperan kojua,  
"Jainkuak lagun" esan niyon da  
aren orduko ujua!  
maldeziyoka juduan gisa  
luzatu zuan lepua,  
nere partetik balijuake  
Luzifer dagon lekuâ.

5/ Lengo igandean biajante bat  
bizar-laban da ixpillu,  
nere denboran ez det ekusi  
aurten ainbeste ixtillu;  
errepublikan libertadean  
badago naiku naspillu,  
neronek ere sumatuko det  
sos batzuek nola bildu.

- 6/ Donostiya'tik etorri eta  
asten dira ate-joka,  
galdetzen dute ezer nai degun  
pagatutzeko pixkaka;  
errenta berriz obligatuak  
illabetean osoka,  
egun urtean emanda ere  
bukatutzen ez dan soka.
- 7/ Erriya onetan aukera dago,  
badegu komerziyua,  
gaztain da intxaur, tipul da piper,  
dana negoziyua;  
kalean berriz aritzen degu  
itzero maldeziyua,  
deabrun batek ekarri digu  
olako bendiziyua.
- 8/ Jaun bat bakarrik ez det markatzen,  
badira gizon prestuak,  
iztun ederrak eta formalak,  
ondo estudiatuak;  
goizetan azkar billatzen dira  
basarritarran xestuak,  
langillearen kontura tripa  
berdintzen dute lixtuak.

9/ Aberats da pobre jarri gerade  
lujuakin berdintxuak,  
tabernan berriz langille ederrak,  
geienak daude zintzuak,  
fama kontari asten dirade  
nere moduko batzuak,  
ia gaur zeñek jartzen dituan  
danon gustoko bertsuak.

10/ Urte gutxitan mudatu dira  
emakumean oiturak,  
lenago nona luzearekiñ  
tapatzen ziran junturak;  
ille ederra buruban eta  
bular gañean petxerak;  
gaur gona motxak, aztalak bixtan,  
gerrako pronto trintxerak.

11/ Ondo jantzita apañ-apañak  
astean eta jayian,  
disimuluan ibiltzen dira  
zerbait billatu nayian;  
edadeak ez du barkatzen  
segi dezuten gayian,  
gu're geienak igualak giñan  
gazte giñan garayian.



12/ Amabigarren bertsu onekin  
bukatu biar det nik au,  
ziento erdi bat jarriko ditut  
iñork enkargatzen banau;  
aspertu gabe emen ari naiz  
ixildu gabe egun da gau,  
txanpon batzuak artzen dira ta  
orretzek ni poztutzen nau. (1)

---

(1) "Bertsolariya" bertso-errebista, 33'gn, zenb.,  
Erreterria, 1932/V/1.

(1932)

**ARRANTZALE ONARI  
URRUTIA'K JARRIAK**

1/ Pazku bigarren siñalamente  
arkitu nitzan kasuan,  
itxaso bistan egondu nitzan  
iturri baten onduan;  
aitona zar bat buru-zuriya,  
aurtxo poli-pat besuan,  
kontu egiten ziyon ziñetan  
nola asko maite zuan;  
zapela eskuan, ziñatu eta  
ekin ziyon errezuan.

2/ Atrebituaz galdetu nion:  
“Arrantzalia al zera?  
itxurak badu siñale ederra,  
gizon ona izan zera;  
oraziyua egiten dezu  
apostoluan antzera,  
lengo oiturak maite dituzu,  
ez dituzu utzi galtzera,  
naiago nuke ni ere iguala  
izango banitz zartzera.”

- 3/ Arrazoi on bat eman ziraden,  
 ura bai zela zuzena:  
 "Nerea laister juango da ta  
 etorriko da zuena."  
 Illoba zuen besoko aurra,  
 asko maitatzen zuena,  
 sentimentuzko itz eder aikin  
 bueltatu ziran barrena,  
 esan ziran ta ez det goguan  
 nola dan aren izena.
- 4/ Itz oik egiñaz an geuden biyok  
 zigarro bana pixtuta,  
 altxa zan eta esan ziraden:  
 "Orain nago ni poztuta;  
 ara nun diran nere semeak  
 itxasotik bueltatuta."  
 Besuan zaukan illoba ura  
 nola zegon lo artuta,  
 "Ara aita, ara aita!" esaten ziyon  
 gaxuari esnatuta.
- 5/ Andikan laister inguratu zan  
 len bistatu zan ontziya,  
 aitona orduan bueltatu zan,  
 bere zapela jantziya;  
 illobatxua "Aita!" ujuka,  
 aik zâmaten alegriya!  
 amaika pobre mantentzen duen  
 itxaso zabal aundiya,  
 ola dabillen arrantzaleak  
 merezi dute ogiya.

- 6/ Pazku bigarren egun ura  
 beti daukat nik goguan,  
 desio diyot bizi dedilla  
 urte askoko munduan;  
 iñoiz edo bein pasatzen banaiz  
 iturri aren onduan,  
 zapela eskuan artuko det nik  
 aitonak zuen moduan,  
 Jaun Zerukuak artu dezala  
 betiko bere onduan.
- 7/ Negar-malkua sortu zitzaidan  
 orduan begiyetan,  
 aitona aren itz eder aiek  
 epintzeko egietan;  
 nik gaur bezela jakin dezaten  
 beste leku guztietan,  
*Bertsolariya*'n zabaltzen ditut  
 euskal erri garbietan,  
 ejemplo on bat izan dedilla  
 ondoreko gaztietan.
- 8/ Egun ero bider aurtxua ori (1)  
 izaten bada guraso,  
 aitona ta aita dan bezin ona  
 izan liteke akaso;  
 guraso oitatik ezin lezake  
 ejemplo txarrikan jaso,  
 gogoratuko da nola ibilli zan  
 maitatuaz besoz-beso,  
 dudatutzen naiz egingo ote dun  
 aitonak ainbat errezo.

---

(1) Egun ero bider = egun edo bigar.

9/ Geroztikanen gogoratuta  
makifia bat aldietan,  
sinist'azute sentimentua  
artu nuela egietan;  
aren itxura ispiritua  
beti daukat begietan,  
egiz bezela ikusten det nik  
nuan leku guzietan,  
jakin zatela zer arrantzale  
dagon euskal errietan. (2)

---

(2) "Bertsolariya" bertso-errebista, 40'gn. zenb.,  
1932/VI/19.

(1932)

**ATSUAN PENITENTZIAK  
URRUTIA'K JARRIAK**

*Doñua: "Frantzesaren idea..."*

1/ Enkargu bat artu det  
atso batena;  
auxen da lan-birea  
eman nautena!  
Esan ziran fiyatzeko,  
al nuana saiatzeko,  
kantak jarri al banitza  
aren suiantzako.

2/ Atsuak esan ziran:  
"Jotzen nau suiak;  
aritu bear dituzu  
nere arrazoiak;  
dili-dale bizkarrean,  
oso paraje txarrean;  
posible ezta bizitzea  
aren bazterrean."

3/ Esan nion atsuari:  
"Zer da motibo?  
Mereziko zenduan  
zerbait kastigo."  
"Nik ez nion ezer egin,  
jo niñuen ezkerakin;  
iru egun pasa ditut  
oñaze ederrakin.

4/ Lengo larunbatean  
asko erana,  
zutik ezin egon zan,  
bazuen lana;  
ala ere marmarrean,  
beti jenio txarrean,  
obe luke batek bizi  
mendi-tontorrean.

5/ Orra aspaldi ontan  
nola geraden;  
gure etxean beintzat  
sua da gaien;  
falta degu uniyua,  
au da gure pasiyua!  
fameliya ondatzeko  
gizon tximiyua.

6/ Goizean jaiki orduko  
desafiyoka,  
ikaratzen gaitu danak  
maldeziyoka;  
zato-artua zintzillik,  
ezta egoten ixillik,  
beste batek eztu jartzen  
olako naspillik.

7/ Eguardiyan jakiña da  
aurrena sopa;  
beretzat onenak beti,  
neri ez opa;  
eltzekoa jakiakin,  
ardoa ta ogiakin,  
kafia ere beti nai du  
patar gorriakin.

8/ Gauero etortzen da  
beti berandu,  
tabernan egoteko  
denbora artzen du;  
ez du pakerik egunez,  
gustorikanen iñun ez,  
ez det uste dabilela  
gurekin fiñ onez.



9/ Zortzi peztako jornala  
irabazten du,  
beti ondo jan nai du ta  
zeñek mantendu?  
gañera berriz jantziya,  
errenta ere garestiya;  
danak ezin, naita ere;  
au penitentziya!

10/ Auxen da bizi-modua:  
beti tristuran;  
laister ill bearko det nik  
naizen posturan;  
erritan ta eskanbillan  
etxe guziya naspillan;  
noiz-nai sartu giñazkegu  
ijito-kuadrillan.

11/ Ezkondu bañon lenago  
itzak goxuak,  
gaur danak samiñak ditu  
oker osuak; (1)  
beti dago paternako,  
dirua nai tabernako,  
gauz onik ez datorkit  
berdiñ azkeneko.

---

(1) Paperak okerresuak dio.

12/ Lenago're ez nitzan ni  
ez oso fiyo,  
bañon nere esanak  
eztu baliyo;  
orain beti sesiyuan,  
deabruen soziyuan,  
obe luke batek egon  
purgatoriyuan." (2)

---

(2) "Bertsolariya" bertso-errebista, 41'gn. zenb.,  
Errenteria, 1932/VI/26.

(1932)

**MORROI BATEN ERRENKURAK  
URRUTIA'K JARRIYAK**

*Doña:* "Maritxu, nora zuaz..."

1/ Gizon bat etorri zait  
aitz apartetik (1)  
bertsuak jarritzeko  
nik aren partetik,  
promesa egin zuala  
bi mendi tartetik,  
ontan etzait arkitzen  
borondate-faltik.

2/ Lengo igande batez,  
egun-sentiyan zen,  
atea jo zuen ta  
oitik jaiki nitzen;  
egun onak eman ez  
ondo mintzatu zen:  
*ia por si acaso*  
Urrutia nitzen.

---

(1) aitz apartetik = agitz apartetik, oso apartetik.

- 3/ Barrenara pasa ta  
sukaldera zuzen,  
silla eman niyon ta  
antxen exeri zen;  
galdera egin nion  
nundik etorri zen,  
serbituko nuala  
nere faltan bazen.
- 4/ "Iru urte daramazkit  
Frantziya'n morrontzan,  
bestek esan ziraten  
etxia ura nun zan;  
nik naiago det bizi  
emengo izkuntzan,  
noiz-nai etorriko naiz  
mantenu utsan trukan.
- 5/ Zakur ere bat bada  
kateaz lotua,  
ondo zaitzen du beti  
etxeko sotua;  
sukaldean zintzillik  
atetik zatua;  
izaten du eskua  
zeñek luzatua.

6/ Zerri koskor bat bada  
eskallera-pean,  
ixildutzen ez dana  
beti kurrunkean;  
astua arrantzaz berriz  
noiznai koapean...  
musikan faltik ez da  
gure tella-pean.

7/ Tabernara maiz jun da  
aziendak larrean,  
ijara berdintzeko  
alka belarrean;  
pensu onaren partez  
dale bizkarrean,  
eroziñ egoten da  
aien baztarrean.

8/ Aguantea badute  
gose-egarriyan,  
pensorikan ez dute  
sartzen eztarriyan;  
iru buelta eman da  
lotu uztarriyan,  
ala ere gurdi utsa  
eziñ ekarriyan.

9/ Agurea ujuka  
zelai burutikan:  
“Ezpadute etorri nai  
jo itzik gogotikan!”  
Laguntzikan ezpalitz  
jungo auzotikan,  
ez lirake aterako  
beko zulozik.

10/ Agurea trebea  
dago akulluan,  
bildurraz sartzen dira  
beiak ikulluan,  
atsua sukaldean  
beti murmulluan...  
aspertuta bizi naiz  
ango barulluan.

11/ Lengo Pazku-egunaz  
Lezo'n giñaden gu,  
joale bat erosita  
etxera eman degu;  
astoak lepotikan  
zintzillikan an du,  
arekin goserikan  
ez diyote kendu.

12/ Amar buru mantentzen  
ditu ontasunak,  
ala ere badirade  
danen erostunak;  
zakurrak jaten ditu  
ango arto lizunak,  
geiena baliyo du  
aren osasunak.

13/ Atzo irten nitzaden  
goizean etxetik,  
agurea ujuka  
sotuko atetik;  
gosariya artu nuan  
Larrun'go bentatik,  
oñez etorriya naiz  
San Anton biretik.

14/ Amalau bertso berri  
jarri ditut emen,  
Frantziya'ko morrontza  
ikasi nola den;  
pobrezan etorri naiz,  
ala jun nitzan len;  
duda gabe neretzat  
au komeniko zen. (1)

---

(1) "Bertsolariya", bertso-errebista, 42'gn. zenb.,  
Errenteria, 1932/VII/3.

(1932)

**BASARRITARREN LENGU OITURAK  
URRUTIA'K JARRIAK**

- 1/ Basarritarrak lengu oiturak  
ari dirade atzentzen,  
len ainbat arto-soruatatik  
gaur eztute inun biltzen;  
babarrun-alez kutxak beteak,  
saltzeko ere izaten zuten,  
gaur berriz geienak kaletikan  
erosita eramaten.
- 2/ Len zuen ditxa basarritarrak  
gauza etxe barrenian,  
txurikin ta ostu, lasto ta belar,  
negua zetorrenian,  
artua aletu, zakua bete,  
errotak beti lanian,  
pitarra eranaz, gaztañak janda,  
egualdi txarra zanian.



3/ Aiton-amonak kontu kontari,  
illobatxuak onduan,  
pozaz zoratzen musu emanta  
txikina artu besuan;  
oiek etxean ikusten ziran,  
igual berean auzuan,  
alkar serbitu zutenatikan  
txit borondate osuan.

4/ Iñoiz edo bein auzokorikan  
ikusten bazan pasaran,  
esaten zuten: "Etorri zaite;  
nai al dezu pitarra eran?"  
Gaur askok alkar ikusi nai ez,  
ez gaude oitura beran,  
ez al da ikus urte gutxitan  
nola mudatuak geran?

5/ Arto-jorrara juten ziraden  
ateak zabal utzita,  
lau bat orduan etzan egiten  
etxe aldera bixita;  
gaur danak itxi, zakurra atean,  
bat guardiyan jarrita,  
arrazoiaren faltik ez dute  
gaiztoa bada nun-nai-ta.

6/ Gaur bezelako estutasunik  
etzan denbora batean,  
urte gutxitan lotu dirade  
lau aldetatik katean;  
kontribuziyo edo patenta  
eskekua maiz atean,  
etxe-errenta pagatu bear  
len alako lau urtean.

7/ Uda-azkena inguratzeko  
kanpo guztia moztua,  
beti tiraka ari dirala  
etxe barrena ustua;  
urria ainbeste pagatu eta  
kaletik eman lastua,  
lenago etxean izaten zuten,  
pensua berriz artua.

8/ Etxeko lanak sukaldekuak  
amonak bere karguan,  
ezeren faltik izaten bazan  
guk kaleko enkarguan;  
arraultzak eman, sardiña bueltan,  
merke bazagon orduan,  
talua jan da esnez aseak  
egunero otorduan.

- 9/ Otorduetan orazioa  
egiten zuten aurrena,  
gurazorikan etzan orduan,  
señirietan zarrena,  
nola bear zan erakutsiak  
errespetua alkarrena...  
gaur ere ala egingo balitz  
ezta oiturik txarrena.
- 10/ Oitura oiek izandu dira  
danak nere oroitzean,  
lengo gazteak errespetuan  
geiago ibiltzen zian;  
maldeziorik ez gaur bezela  
beti itzetik ortzean,  
danok dakigu ortatikanen  
guretzat zer etortze'an.
- 11/ Aita eta amak errespetua  
erakutsi bear zanean,  
beti Jaunari ofrezituaz  
asten ziraden lanean;  
umildadean izan zaitezte,  
segi bire zuzenean,  
nere bertsuak ikasi ondo  
denbora dezutenean.

12/ Amabi bertso jarri ditut nik  
gizon on baten baimenez,  
al dan guztiyan saiatu naiz  
ejenplo onak emanez;  
nere partetik deseatzten det,  
danori ondo esanez,  
pake-pakean bizi gaitezen  
laztan batzuak emanez. (1)

---

(1) "Bertsolariya", bertso-errebista, 43'gn. zenb.,  
Errenteria, 1932/VII/10.

(1933)

**UGALDIAREN OROIPENAK  
URRUTIA'K JARRIYAK**

- 1/ Gipuzko ontan izandu degu  
egun gogoragarriya,  
Norte aldetik sartu zitzaigun  
denborale itxusiya;  
euskalet erritan nun-nai badago  
familitan deskraziya,  
limosnatxo bat amar zentimo,  
ez da kastigo aundiya,  
guraso pobrearen aurtxuak  
izan dezaten ogi ya.
- 2/ Millatik gora bederatzireun  
ogei ta amairu urteak,  
pasadizuak esango ditut  
laguntzen badit suerteak:  
etxietako puskak eraman  
purrukatuta ateak,  
arbolak eten, zubiyak bota,  
murallak eta posteak...  
trumoi gaiztoko tenpestadeak  
egin dituen kalteak.

3/ *Corpus Christi*'ren biyamonian (1)  
baziraden naiko lanak,  
izugarrizko ugaldiakin  
ikaratu giñan denak;  
Ospitaleko aitona zarrak  
tellatu ondora juanak,  
ausiliyua eskatzen zuten,  
buelbaka berriz kanpanak;  
geienak umill egondu giñan  
orduan bistan giñanak.

4/ Garagar-illan amaseyian  
egun erdiko garaian,  
gauza eder pranko bazagon urtan  
Errenteri'ko ibaian;  
aurtxo gaxuak negarrez eta  
ama ujuka balkoian,  
bean zaudenak estu ta larri, (2)  
salbatu dira doi-doian,  
ai zen trantzia pasatu zuten  
ala zabiltzan garaian.

---

(1) Paperak *Christi* dio; orrela neurrian motz gelditzen da; 10'gn. bertsoan, berriz, *Christi*'ren. Dударик gabe, emen ere onela bearko zuan. Moldiztegiaren utsegiña izango da. Orregatik, *Christi*'ren jarri degu.

(2) Paperak *estutu larri* dio; *estu ta larri* jarri degu, onela bear dualakoan.

- 5/ Ugaldia orrek eraman ditu  
 Uranga'neko tabloiak,  
 Papelerako piñu ederrak,  
 arbolak eta tantaiak,  
 almazenako olio-ontziak,  
 barrikak eta bidoiak;  
 miseri aundiak jarri dizkigu  
 uste gabeko jipoiak,  
 Errenteria'n fabrika askotan  
 galdu dirade milloiak.
- 6/ Urak gutxitu ziran orduan  
 familitako negarrak,  
 bizi-modua galdu diote  
 ugaldiaren indarrak;  
 etxe barrengo gauzak eraman,  
 gurdiyak eta belarrak,  
 itxaso aldera bajatu dira  
 ezeak eta igarrak,  
 ez dira gutxi sufritutzeko  
 jaiuak baserritarrak.
- 7/ Lengo egun batez ikusi ditut  
 Oiartzun'go basarriyak,  
 ango labrantzak ere baditu  
 dañu ikaragarriyak;  
 zubiyak bota, urak eraman  
 izugarrizko arriyak,  
 arto-zelaietan an daude pillan  
 goitik bera ekarriyak...  
 Ugalditxo'ko inguru aiek  
 daude lastimagarriyak.

8/ Baserritarrak gelditu dira  
negargarrizko moduan,  
dudarik gabe padezitzeko  
jaio ziraden munduan;  
olakorikan izandu danik  
iñork ez dauka goguan,  
ikullutikan beiak eraman  
beren kateak lepuan;  
gauza guziak tristiak dira  
desgraziya dan lekuan.

9/ Ugaldiaren zati-aldiyak  
etziran oso motelak,  
Oiartzun'dikan ekarri ditu  
ganadu eta kupelak;  
bigai gazte bat bazterrak joka  
artu zituan epelak,  
Errenteri'ko arbol tartean  
astindu ditu orbelak,  
Goiko-kalean sendatu zaizka  
kolpatutako okelak.

10/ Beti goguan izango degu  
Korpus Kristiren eguna,  
urte askuan bizita ere  
gogoratuko zaiguna;  
elkar maitatuz saia gaitezen,  
egin zagon al deguna,  
lur jotzerañon bajatu gabe  
Gipuzkoa'n euskalduna,  
dudarik gabe txar ondorean  
etorko zaigu fortuna.



11/ Ondatu ditu Euskal-erriko  
soruak eta baratzak,  
legun ta txukun zauden zelaiak  
gaur geienak daude latzak;  
lurrak eraman, arriz tapatu,  
egin dituen mudantzak,  
pobrearentzat deskalabrua,  
galdu dirade labrantzak,  
zenbait lekutan jaioko dira  
mutur gaiztoko arantzak.

12/ Jaungoikuaren kastigoz dala  
askok egin du jozkua,  
ori guretzat komeni bazan  
egin du bere gustua;  
gu mundu ontan nola gabiltzan  
ikusi ta zapuztua,  
guztiok berdin, berexi gabe  
gaiztoa eta justua,  
gutxin-gutxina zaukanak ere  
bazuen naiko sustua. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Imp. Macazaga — Rentería",  
Inazio Ugartemendia, Bentzalaga, Alkiza.

Bertso-papera, au ere "Imp. Macazaga — Rente-  
ría", Isabel Zuaznabar, Basoandia, Lasarte.

Aldaketa: 4/9: ai zer tranziak pasatu zituzten.

**JOXEPÀ ANTONI ARANBERRI**  
**(XENPELARREN ILLOBA)**  
**(1865-1943)**



Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, Errenteria'n jaio zan, 1865'gn. urteko Ilbeltzaren 7'an.

Aita, Jabier Inazio, Azkoitia'koa zuan; ama, berriz, Maria Luisa, Xenpelar bertso-lariaren arreba zan.

Ain zuzen, Joxepa Antoniren bataio-agirian onela irakurtzen da: "...*siendo testigo Franc.º Petriarena, natural de Oyarzun, casado, tejedor...*"

Xenpelar oiartzuarra zala esaten da emen. Ez da ori toki guzietan dagoana. Dana dala, auzi ori Xenpelarren libururako utzirik, irakurleak au ondo gogoan artu bear luke: Xenpelar aundia aur onen bataioan izan zala. Etzan bataio-ondoan bertso-paltarik izango!

Au jakinik, bertsoarako griña osabak illobari pegatuko ziola pensatuko du irakurleak. Egia noski; bañan osaba ez-ezik, bazan familian doai ori erantsi zezaiokean beste bat ere: ama.

Bein baño geiagotan jardun izan omen ziran bertsoan anai-arreba auek. Errenteria'-

ko fabrika aundian lan egiten zuten. Bein batez, nagusiak Andoain'a bialdu zituan egin-kizun batera. Ta an alkarri bertso botatzen aritu omen ziran, ta bertako jendea zoratzen aiei entzuten.

Xenpelarren arreba au izugarri buru argikoa omen zan; irakurtzeko zaletasun aundia zuan. Egunez denborik ez ta arratsean, oierakoan, jarduten zan, kinke bat piztuta. Batzutan, ordea, lo artzen zuan, ta bere ille kixkurrak erre egin omen zitzaizkan bein baño geiagotan. Bestetan, berriz, senarrak argia itzali bear izaten zion.

1869 urtean, baztanga-izurrite aundia sortu zan. Baztangarekin zeuden etxeak itxi egiten zituzten kanpotik. Etxe-barrendik xexto bat jeixten zuten leiostik beera, soka batetik zintzilik, barrenean paper batean zer bear zuten esanaz. Au ekarritakoan, xextoa atzera barrena jasotzen zuten, sokari tiraka.

Besteak beste, Xenpelar bertsolariaren familian iru eriotz izandu ziran: aurrena, Xenpelarren emaztearena, 1869'ngo. Urriaren 26'an; urrena, Xenpelarrena, 1869'ngo. Abenduaren 8'an; irugarrena, onen arrebarena.

Xenpelar gaizkitu zanean, bere arreba Maria Luisa au kontu egitera joan zitzaion. Senarrak onela esan zion joan-aurretik:

—Etzoazela, Maria Luisa, etzoazela! Bakarririk utzi bear al nazu aur txikiarekin? Kutsatuko zera...

Bañan emazteak onela erantzun zion:

—Ez naiz kutsatuko! Ondo aterako naiz!

Ta azken asnasa eman zuan arte lagundu zion anaiari. Bañan gaitzak etzion barkatu. Anaia Ama Birjiña Kontzezioko egunean il zan 34 urterekin; ta arreba, berriz, Abenduaren 18'an, amar eguneko tartearekin, 36 urterekin.

“Alkar maite izan zazute” eskatu zigun Jesukristok, ta agindu ori bai Maria Luisak ondo bete zuala. Jesusek berak dionez, bizia lagun urkoagatik ematea baño maitasun aundiagorik ez baita.

Joxepa Antoni, lau urteak bete baño leen gelditu zan, beraz, amarik gabe. Etxetik alde-aldean Mationia zeritzaion ostatua zan. Ango etxeakoandreak, aurraz kupituta, bere kontu artu zuan ta berak azi zuan.

Andik iru-lau bat urtera liberalen ta karlisten arteko bigarren gerratea piztu zan. Liberalak Errenteria'n ta karlistak Oiartzun'en baitziran, Mationia'n soldadu-buruzagi asko izaten zan. Bazkaria eguerdiero bialtzen zieten ostatu orretatik berak zeuden tokiraraño, *abantzadetaraño* orduan esaten zanez, Sorgin-txulo zeritzaion tokira, gaur Don Bos-

co dagoan ortara. Bazkari-eramale, Joxepa Antoni izaten zan.

Soldaduak bazekiten nexka koxkor aren familia beretakoa etzana, ta tentatzen asten zitzaizkan. Bai Joxepa Antonik aguro erantzun ere:

—Zuek danak inpernura joango zerazte, beltzak zerazte eta!

Bañan aiek etziran aserretzen. Parra egin ondoren, propina ere ematen zioten, ta Joxepa Antoni pozik bueltatzen zan etxera bere xoxakin.

Etxekoak onela esaten zioten gero:

—Au ume lotsagabea! Aiekin ola ariko zera ba?

Bañan Joxepa Antonik etzuan amor ematen:

—Bai, gaiztoak dira danak; inpernura joango dira, beltzak dira ta!

Aren sententziz, beraz, bizirik kondentuatuk zeuden danak.

Aita, berriz, bein baño geiagotan bialdu zuten *partiakin*, mandatari alegia. Jabier, garai artan, erreuma-aizeak joa zegoan; gogortua oso. Oietik mugitzeko gauza etzala, oiaren gañetik *polea* jarrita zeukan, sokari elduta gorputza mugi al izateko. *Partia* eramateko agindua eman ziotenean, onela esan zien:

—Ni ez naiz orretarako gauza. Begira nola nagoan. Nik ezin nezake.

Bañan liberalen buruzagiak, Furundarena zeritzaion batek, onela erantzun zion:

—Zuk baño lan geiago egin izan ez banu nere denboran, Matusalenek aña urte arrapatuko nuke munduan!

Ta jeiki ta joan egiten zan. Bearko! Jaungoikoak bakarrik daki bidea nola egiten zuan. Etxekoak beldurrak aidean gelditzen ziran. Besteak *partiakin* arrapatzen bazuten, gorriak ikusteko baitzegoan. Zakurrak salatzzen omen zuan bueltan noiz zetorren. Zakurra larriago ta ura alderago. Ta etxekoak pozik.

Joxepa Antonik, erriko eskolara joaten asi zanean, ikasteko gogo aundia agertu zuan. Bere amaren antza aundia ortan ere, beraz. Bañan aitak etzion eskola-libururik erosten.

—Maistrak erritan emango dit! —esaten zion alabak. Ta aitak onela erantzuten zion:

—Eztio inporta! Ez degu guk kastelabezko (*sic*) liburu bearrik! *Pregunta* bear degu guk, *pregunta!* Ori ondo ikasi!

*Pregunta* dotriña zan.

Alabak negarrari ematen zion. Eskola-bidean iturria zan. Antxen, eskolara baño len, begiak garbitzen zituan. Lagun batek onela esaten zion:



—Nik utziko dizut liburua!

Ta ala, lagunaren liburutik ikasten zuan.

*Pregunta* ezik bere gustoko beste liburu bat ere bazuan aitak: “Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira”. Askotan, bazkal-ondoan eta, onela esaten zion alabari:

—Au letu, au!... Oso polita da ta!

Ta alabak:

—Len ere letu det nik ori, aita! Memoriz ere badakit!

—Bai, bañan oso polita da, ta letu zazu berriz!

Joxepa Antoni amabi urterekin asi zan lanean, fabrika aundian, bere ama ta osaba ziranak lanean aritu ziran lantegi berean alegia.

Artean txikia zan, noski, ta eskola-liburua uzten zion lagun arek berak, zapata koxkordunak utzi zizkion, onela esanaz:

—Aundiagoa emango duzu auekin: bestela nagusiak igual bialduko zaitu, txikia zerala-ta.

Buruko *pañuelo*a ere jantzi zuan, atso xarrak bezela, errespeto geiago zalakoan. *Pañuelo* orri ttattarra deitzen zitzaion.

Joxepa Antoniren aita, Azkoitia'ko Urrategi ballarakoa zan, Oiaun baserrikoa. Ango parienteak bisitatzera zijoanean, Elgoibar'-

eraño trenez joaten ziran, ta andik baserri-  
raño oñez.

Joan bear zuten bidearen bi aieketatik da-  
na intxaur-arbola omen zan. Joxepa Antonik  
intxaur biltzeari ekiten zion. Aitak onela  
esaten zion:

—Utziozu intxaur biltzeari; guziak biltze-  
kotan, zakuka bildu bearko dezu ta!

Ta alabak:

—Bañan, aita, beitu zenbat intxaur! Bei-  
tu zenbat intxaur!

Ala, batek aurrera nai ta besteak ez, xe-  
brexko bidea izaten zuten.

Urte askoren ondoan, Errenteri'tik Oiaun  
baserrira bi neskaxa zijoazen Eguberri-fes-  
tak pasatzera: bata bertako alaba bat, eta  
bestea beraren laguna. Aurretik, bidera ate-  
ratzeko eskatuaz, bertso au bialdu zuan Jo-  
xepa Antonik:

Elgoibar'tikan pensatzen dute  
egitia biajia,  
batetik dala egokiyago,  
bestetik berriz merkia;  
eta gañera nai lutekela  
bertsuetan esatia  
astuarekin ateratzeko  
artzera ekipajia.

Urteen buruan onela esaten zuan Joxepa Antonik Azkoitia'ko erriagatik:

—Alabie iñudie ta semie jesuitie, an ez dago besterik!

Aitak bi ofizio zituan: Bata, alpargatagille. Etzitekean bestela azkoitiar jatorra izan. Ta bigarrena, *kamiñero*.

Egun batez, Alaberga ondoan kamioan lanean ari zala, auntza ere ekarri ta bazterreko sasi-puntak jaten jarrita zeukan. Alako batean, Alfonso XIII erregea, artean mutil koxkorra zala, alderdi artatik egokitu zan. Erregea auntzarekin jostatzen asi zan. Jabierrek, okerrik gerta etzedin, auntzari adarretatik eldu zion. Orduan erregea bizarretatik tiraka asi zitzaion. Ori ikusita, erregeari lagun egiten zionak, Jabierri oju egin zion:

—*iMucho cuidado, caminero!*

Onek ordea, onela esaten zion erregeari:

—*iNo haces nada, no haces nada!*

Jabier oso elizkoia zan. Urrategi'ko elizan, Jabier onek eta bere aitak, batek ezin bazuan besteak, berrogei ta amar urtean lagundu zuten igandeko meza, bein ere uts egin gabe. Iñor gaizkitzen bazan, Jabierren aitari deitzen omen zioten gaixoari lagun egin ta prestatzen asteko, apaiza kaletik etorri bitartean.

Errenteria'n ere askotan laguntzen zuan

meza Jabierrek. Egun batez, apaiza bakarrik, laguntzallerik gabe alegia, atera zan aldare-ra. Bañan Jabier jende tartean ikusi zuan, ta, beste aldi askotan bezela, ots egin zion. Jabierrek meza lagundu zuan, bañan gero, etxera etorritakoan, onela esan zuan:

—Au lotsa pasatu det!

—Zer bada?

—Zer bada? Zapata-zolak autsita nituan ta ni meza laguntzen! Nik pasatu ditudan lotsak! Ez da nik nai ordurako meza bukatu!

Urteen buruan pixatik gaixotu zan. Oñazetik asko zuan, ta, oiean ezin egonik, jeiki egiten zan askotan, argia baño len. Orregatik, bein baño geiagotan gertatu zan aita-alabak onela alkarri itzegitea: Alabak:

—Aita, errosaioa esango al dugu?

Ta aitak:

—Bai, nai baduzu; nik iru esan ditut goizeko bostetarako, Galtzara-borda'ko metaren ondoan.

Ta il ere, gaitz orretatik il zan. Aita mundu ontatik joanda bakarrik gelditu zanean, Joxepa Antoni auzoko familiarekin jarri zan bizi izaten. Len ere etxeakoak balira bezela ziran, bañan arrezkeroztik aiekin erabat jarri zan.

Famili ontan, amona Dolores, alaba Mike-

la, ta bi illoba Matilde ta Florentina —edo, esaten ziotenez, Pontiña— bizi ziran. Florentina au da itzaurre ontarako argibiderik geien-geienak eman dizkiguna. Milla esker, beraz.

Etxe onetan, Mikela ori maistra zalarik, jostundegia zan. Neskaxa gazte asko izaten zan josten ikasten.

Mikela ori oso emakume alaia zan. Onela esaten zuan:

—Zerura joaten banaiz, espero detan bezela, kantari ibilliko naiz beti Santa Zezi-liaren atzetik.

Jostundegiko neskatxai onela esaten zien:

—Kantu ona orazioa da, ta kantatu!

Ta ala, josteari utzi gabe, kantari aritzen ziran. Makiña bat euskal kanta ta bertso pasatzen zan aien eztarrietatik. Jenero orretan baratza ugaria izandu da beti Erreterria. Mikelak, azkenerako, gorreri aundia izan zuan. Ala ere laister igertzen zion taldean iñork gaizki kantatzen bazuan. Baita aguro ixil-arazi ere.

Erriko aguazillak kale-kantoiean egoten ziran, ango umorea entzutearren.

Goiko bizitzara erdaldun famili bat etorri zan bizi izatera. Etxekoandrea, eskalleretan kuxkur-kuxkur eginda exeri ta aien kantuak

entzuten egoten zan. Ikusi zutenean, onela galdetu zioten:

—*¿Qué hace Vd. ahí?*

Ta arek:

—*Ni el demonio os entiende lo que decís, pero lo hacéis tan bien...*

—*Pase, pues, pase adentro.*

Mikela ori 1934 urtean il zan. Mintsu denbora luzea egin zuan, bañan oiean egun bat bakarra.

Joxepa Antonik noiz ekin zion bertso-jarzteari, ez dakigu batere. Aren jarri-aldirik zaarrena, guk ezagutzen degunetan, 1902 urtekoa da. Errenteria'ko euskal idazle zan Enrike Elizetxea'k, bertsoak jarri zituan *Ibaizabal* errebistan neskarren kontra. Ta Joxepa Antonik, bera ere kopradikoa baitzan, bear bezelako erantzuera eman zion. Elizetxea'k onela aitortu zion: "Progratu dezu bertso aubekin aurrekoan ondorengoa zerala." Gañerako jarri-aldiak geroztikakoak dira.

Joxepa Antonik bazekien jostundegiko neskatzen umorean parte artzen. Erretratatu nai zuan batean, oso maitea zuan beste neskatxa bati, gero Juanito Zabaleta bertsolariaren emaztea izango zan Monika Galarraga'ri, laguntzeko eskatu zion. Alkarrekin erretra-

tatu ziran, ta gero, erretratatua eskuratu zutenean, onela esan zion lagun oni berari:

—Begira: gure etxeko jostundegian ez dake erretratatu naizenik. Au etxera biali bear det, eta, zuk jarri bazenida bezela, erretratu onekin batera bertso au bialiko det jostundegira.

**Bertsoak onela zion:**

Jeneralian erretratuan  
ikusten da familiya,  
jostundegi edo lantegietan  
berriz jende gazteriya;  
alde ortatik ez naiz ibilli,  
esango diet egiya:  
pensatu nuen neskazar bati  
egitia konpañiya.

Erretratu ori zala-ta, beste bertso au ere jarri ta bialdu zuan jostundegira:

Astiartian goiz bazkaldu eta  
etxetikan irten nitzan,  
nere goguan zer nebilkiyen  
ez nizuten bada esan;  
orra bada gaur bi kopetillun  
Constituciyoko plazan,  
Mikelak bere diszipulakin  
naiko farra egin dezan.

Zer esanik ez dago, bertso auek jostundegian jaso ziranean, algara-paltik etzala izan du.

Jostundegi orretara kanpotik etortzen ziran neskatxak, bertan bazkaltzen zuten. Baita oiekin batera denda batean *dependienta* zebillen Alza'ko neskatxa bat ere. Jostundegia-  
ren aurre-aurrean beste denda bat zan. Emengo mutilla, kafe erretzen askotan aritzen zana, Alza'ko neskatxa orretzaz gustatu zan. Ta ala, biak ezkondu ziran. Joxepa Antonik, zoriona ematearren, bertso au bialdu zien:

Gure aldetik zorion asko,  
Mendarte'tar familiya,  
pozkidaz gaude ikusitzeko  
matrimonio berriya;  
dantzatu dezu kafe-zartana  
erabilliyaz begiya,  
zure onduan pasatzen baitzan  
damatxo umill argiya,  
eta polliki-polliki biyok  
egin dezute kabiya.

Olako bertsoak, banaka jarriak alegia, erruz zituan. Ara emen erakusbidetzat, oieta-ko zenbait:

Musarro bertsolariaren errañari bertso au bialdu zion, bein batez, jaioteguna zoriontzeko:



Osasun onarekin  
zure zoriona,  
biyotzetik deseo  
dizut, Luxiana;  
munduan igarorik  
zeruko fortuna,  
an ere izan nai det  
zurekin laguna.

Alza'ko Mirazun baserriko etxeoandreak  
botilla sagardoa erregalatu zion bein ba-  
tez. Ta Joxepa Antonik, eskerrak ematea-  
rren, bertso au bialdu zion:

Alabak zintzo egin  
ziran enkargua,  
bertso batez eskerrak  
ematera nua;  
asko gustatzen baitzait  
neri sagardua,  
eskerrik asko, nere  
andre ondradua.

Pildain obispo jauna kanonigo egin zute-  
nean, bere errira, Lezo'ra, etorrita, bere jan-  
tzi moreak gorde ta sotana beltza utsarekin  
ibiltzen zan. Orduan Joxe Antonik bertso au  
asmatu zuan:

Iturri baten aldamenian  
agertu dan landaria,  
bioleta da, ezagutzen da,  
maite du umildadia;  
ostotxo berde tartian dabil  
gorde naian koloria,  
bañan dakigu bioletatxo  
loria dala moria;  
agertu bedi bere erriyan,  
pozez dago-ta jendia.

Onako au, berriz, Eguberri-festa batzue-  
tan egiña izango da:

“Pakia lurrian ta  
goietan zerua,  
borondate oneko  
personen pagua”.  
Au kantatzen jeisten da  
zeruko aingerua;  
Jesusek giyatzen du  
persona onradua  
ondo gobernatzera  
gauza ta dirua;  
ez diyo faltatuko  
bere agindua:  
pakia lurrian ta  
goietan zerua.

Bañan bertso auek etzituan berak idazten,

etxeakoak baizik. Zergatik ote? Bere azkene-ko urteak, ogei bat urte, itxurik egin zitua-lako.

Bat-batean gelditu zan bistarik gabe. Erde-raz *Hora de guardia del Rosario perpetuo* de-ritzaiona errezatzeraz zijoan. Orretarako, mis-terio bakoitzaren aurretik egin bear dan erre-zua irakurtzeko, liburua idiki zuan, ta ez ikusten! Begiak igortzi ta begiak igortzi ari-tu zan, bañan dana alperrik; ezin ikusi! Bia-ramonean okulistagana joan zan, ta onek be-randuegi joana zala esan zion. Eztakigu noiz joan bearko zuan; sentitu baño leen nun-bait...

Arrezkeroztik personen eta gauzen errañua bai, bañan besterik etzuan ikusten. Ala ere, fabrikara joaten segitu zuan urte-mordo ba-tean. Nagusiak ere ala nai zuan. Kontramais-tra zan. Bañan gero berak bere burua gel-ditu zuan.

Orregatik, bertsoren bat edo beste jarri nai zuanean, etxeakoai otsegiten zien:

—Mikela, eskribituko al dizkidazu bertso batzuk?

Ta Mikela sekretariotza egiteko pozik iza-ten zan beti, bertsoakin par egiteko. Bertso oiek edozein paper-puntatan eskribitzen zi-tuzten ta orain etxeako bazterretan azaldu dira.

Idazteko ezik, beste zenbait gauzatarako ere besteren laguntza-premian izaten zan noski. Orregatik, anaiaren meza herrira gonbitatu zion lagun bati, onela erantzun zion:

Beñere ez da berandurikan,  
ordua da allegatu,  
zure eskutitz kariñosua  
lenguan genuen artu;  
zure anaiak bere erriyan  
nai zuela zelebratu,  
egun eder au or pasatzera  
gaituzula inbitatu,  
zure parentel onragarriya  
ez nuke nai desonratu,  
zarra bainago, erdi itxua...  
zuk orrekin entenditu.

Azkeneko urtetan onela esaten zien etxe-koai:

—Ai, gure Jaungoikoak emango balirake ordu laurden bateko bista!

—Zertarako?

—Zuen arpegiak ikusteko, zenbat kanbiatu zeraten!

Azkenerrako min bizia sortu zitzaion. Urtebete egin zuan oiean. Ala ere etzion bertso jartzeari utzi. Bere azken gaixo-aldian jarria izango da, itxura danez beintzat, moja zijoa bati bialdu zion bertsoa:

Adios, Juliana,  
adios betiko,  
Xenpelarrek etzaitu  
geiago ikusiko;  
bañan zu aztutzia  
ori ez du naiko,  
amak eskutitxo bat  
dizu bialiko:  
Xenpelar il dela ta  
enkomendatzeko.

1943'gn. urtea zan.

Madalenetan, Uztaren 27'an alegia, bertso  
au eskeñi zion sagardoa erregalatu zion bati:

Ez dizut nik esango  
senti ez dedana,  
baña bai sagardua  
espero nuana;  
Florentinari zerbait  
zerorrek esana,  
ondo kunplitu dezu  
esandako dana;  
eskerrik asko zure  
borondate ona,  
eta urte askuan  
erriko patrona.

Oiean zala, Jauna bein baño geiagotan  
ekarri zioten. Oietako batean, Ama Birjiña

Abuztukoaren egunean, Tanger'en bizi zan  
etxeko bat eta onen anaiak lagundu zioten  
Jaunari. Gero, Afrika'ko onentzat, bertso au  
jarri-azi zuan paperean:

Afrika'ra juatian  
zeorrek kontatu  
nola Errenteriya'n  
zeraden portatu:  
zure anaitxuakin  
Jauna akonpañatu;  
Amaren eguna da,  
pagatuko zaitu.

Andik lau illabete t'erdira il zan, 1943 ur-  
teko Abenduaren 29'an, Errenteria'n, San-  
txoenea kalean, 25'garren etxean.

## NESKAZARRAK

Bilbao'ko *Ibaizabal* errebistak sariketa bat antolatu zuan, 1902'gn. urtean, bertso-gille ez-ezagunentzat.

Berak jarritako gaiari buruzko bertso-sor-tarik onenari ta bigarrenari, liburu-mordox-ka bat eskeintzen zien, bana aukera zezaten.

Laugarren gaia, *Neskazarrak* izan zan. Lenengo saria, Erretereria'ko euskal idazle tre-be zan Enrike Elizetxea'k irabazi zuan.

Beti bezela, bertsoak *Ibaizabal*'en ar-gitaratu ziran, 1902'ngo. Apirillaren 13'an.

Izan zuan, ordea, nork erantzun. Joxepa Antoni Xenpelarrek eraso zion, ta gogotik eraso ere.

Festa ederra sortu zuten. Sesio artako bertsoak, orri-alde onetatik asi ta urrengoetan jarraituta, arkituko ditu irakurleak.

# I

*Enpleatzen ez bada  
gazte dala neska,  
pasa bearako ditu  
makiña bat kezka,  
burutik zoraturik  
senargairik ez ta...  
orra azkenerako  
neskazarren festa!*

1/ Arpegi zimur, begi zorrotzak,  
besterenak ortz ta agiñak,  
ezurak gogor eta gañera  
ankak ez daude ariñak;  
ille txuria, naiz beltzatutzen  
egin naiko alegiñak,  
askok dituzten muño ederrak  
dirade bestek egiñak.

2/ Gaztetasuna pasatzen dute  
zartzaroko esperantzan,  
gero oiekin zer gertatzen dan  
orra emen garbi esan:  
senargairikan ez dala etsita  
beti dabilta elizan,  
gure Jainkoak triste oientzat  
zerbait kupida izan dezan.



3/ Penarik aski izaten dute  
denbora joan ondorean,  
baiña alegiña egiten dute  
desenkusatu (1) naiean;  
galdetu ezkeru zergatik dauden  
orren bizia tristean,  
diote: "Ezkondu nai bagenuke  
ez gaude baten faltean".

4/ Bat bakarrikan ez det bereizten,  
berdiñak dirade denak,  
nai duten ura ez egitean  
biurtzen dira zitalak;  
ondo bizitzen ez diote uzten  
beren ernegazio txarrak,  
orlakuakin ezkondu ezkeru  
zer inpernua senarrak!

5/ Ez dira erraz ezagututzen  
izketan ai diranean,  
lengo kontuak aundiak dira  
beti oien mingañean;  
jostaketa bat ezin sufritu,  
ain daude umore txarrean,  
norbaitek ezer esaten badu  
or dijoaz marmarrean.

---

(1) Desenkusatu = *disimular*. (Ibaizabal'en oarra.)

6/ Orien jabe egiten dana  
dago txit errukigarri,  
bear dan pake ordez etxean  
gerra izango da sarri;  
bere erara beti utzi bear  
pakea nai badu jarri,  
bestela arrazoi txarrak oso maiz  
entzungo ditu ugari.

7/ Itz legunakin ta par-irrian  
kanpoan dira ibiltzen,  
oien barrenak nolatan dauden  
ez da erraz ezagutzen;  
aspertu eta diradenean  
etxera allegatutzen,  
arrazoi gabe okasiua  
nolanai dute sortutzen.

8/ Beti elizan eta errietan  
da beren ofiziua,  
orientzako egiñak dira  
meza ta prozesiua,  
bederatziurren, errosario,  
sermoi ta konfesiua;  
ta elizatik atera orduko  
ere murmuraziua.

- 9/ Neskatz-mutillak kale-iskiñan  
 izketan ari badira,  
 murmuratuaz denbora dute  
 pasatzen ara begira,  
 esanik onla: "Ajolgabeak  
 lotsatzen ere ez dira,  
 orrelakuak joango dira  
 inpernuaren erdira."
- 10/ "Mutillen batek kalean neri  
 itza egingo balira,  
 kopeta illundu ta alde egingo  
 nuke beste alderdira".  
 Bañan alperrik orlako ametsak  
 egiten aritzen dira,  
 oiek kalean ikusi eta  
 nork begiratu arpegira?
- 11/ Senargai asko zituzten denak  
 gazte denboran aukeran,  
 bañan etzuten sartu nai izan  
 Markos santuan balleran; (2)  
 naiago zuten bizi ezkongai  
 gurasoen bazterrean...  
 Ez det sinisten; iñork ote du  
 izan bat bizi guztian?

---

(2) Ballera = cofradía o gremio. (Ibaizabal'en oarra.)

12/ Monja joateko gogorikan ez,  
ta iñor ez ezkontzeko,  
bein izan zuen gazte bat bañan  
etzan diña beretzako;  
ondo bizi nai, ez dago ori  
emen penak sufritzeko  
ta sufrimentu oien bitartez  
zerua irabazteko.

13/ Ezkontzen bada pobre batekin  
asko bear du ikusi,  
baña ez du nai mundu onetan  
ibilli, al badu, itsusi;  
bere denboran ikusi eta  
asko du orrek ikasi,  
neskazar oiek izaten dute  
gordia franko malizi.

14/ Astean iru edo lau aldiz  
geinak dira konfesatzen,  
nere artean amaika bider  
egoten naiz ni pensatzen  
zer esatera apaizagana  
orren maiz diraden joaten;  
ta bereala zait gogoratzen:  
mingaiña dute dantzatzen!

- 15/ Elizatikan atera eta  
batutzen dira elkarrekin,  
oriengana joan liteke  
zerbait nai duena jakin!  
Zeru ta lurra nasten dituzte  
beren mingaiñ luzeakin,  
biamonean konfesatzeko  
lana franko dute egin.
- 16/ Gaizki ematen dute munduan  
oik bezelako loreak,  
uste dezute gazte ta edertu-  
ko zaituztela aireak?  
Monja ezin bialdurikan  
dabiltz neskatxa gazteak,  
askoz ohea litzake berak  
baleude antxen gordeak.
- 17/ Neskazarretan badirade, bai,  
ondo bizi diradenak,  
baña oso gaizki oraiñ artean  
bizitzen dira geienak;  
jende guztia ikaratzen du  
neskazarraren izenak,  
erne, mutillak, ez bada ezkondu  
naiz izan zerbait dutenak.

18/ Neskazarraren azken bizia  
da oso penagarria,  
atetik ate askok eskean  
pasatzen dute erria,  
iñork ez ditu ikusi naita  
gaixo oien mixeria!...  
Neskatx gazteak, San Antoniori  
jaso lenbailen begia!

#### AZALDEA

Josepa Antonik Dominikari:  
"Aitu dezu orlakorikan?  
Bertso batzuek jarri omen ditu  
Enrikek guregatikan,  
gauza aundiak esanaz noski  
neskazarrarengatikan.  
Ia joanian egon danean  
miñez mundu ontatikan,  
kupiturikan gizarajoaz  
ta biotzak jasorikan,  
eska diogu gure Jaunari  
biotzaren erditikan,  
komeni bazan, atera zezala  
aiñ trantze estutikan;  
ta Jaungoikoak, beti bezela,  
otoitxoak entzunikan,  
libratu du ta gaur arkitzen da  
osasunez beterikan;

entzun ta gero gelditua naiz  
ni oso arriturikan,  
ez nuen uste aditutzia  
nik orrelako gauzikan.  
Ari zaitia erregutuzen  
orrelakuagatikan!...  
Sendatu eta orren pagua  
gure otoitzangatikan!”  
Konbersazio au nik entzutian  
kale-kantoi batetikan,  
esango diot: “Joxepa Antoni,  
ni jaio ezkerotzikan  
ez det sekula iñoiz ere esan  
gezurtxo bat bakarrikan;  
konfesatuzen dizut txit gogoz,  
bada biotz-biotzetikan  
ez detala izan iñorengatik  
far egiteko asmorikan.  
Ez alajaña! Nik deus esan  
neskazarrarengatikan?...  
Maitetxu ditut zar eta gazte  
txit gazte-gaztetandikan,  
ta maite naute ni ere denak  
esan gabe gezurrikan.”  
“Ala da, baña ez gure kontra  
jarri bada besterikan.”  
“Nai dezu jakin zergatik dauden  
bertso aiek jarririkan?  
Ez pentsatu, ez, neskazarrak  
lotsatutzeagatikan,

baizik *Ibaizabal*'en sari txiki bat irabazteagatikan.”

## II

Leen ere esan degunez, Elizetxea'ri Josepa Antonik erantzun zion. Bañan arek, argitaratu aurrean aren bertsoen jabe egiñik, itzaurre luze bat erantsi zien, baita atzetik beste geigarri bat jarri ere. Guk dan-dana, dagoan bezelaxe, argitaratzen degu:

### NESKAZARRARI

“Eztakit nola asi; aĩn dago nastua nere burua. Zefiek pensatu bear zuen nik *Ibaizabal*'i bialdu nizkan bertsoakin, dauden bezela aserretuak geldituko zirala? Zori gaiztoan egin nuen lan ori! Jakiñ izan banuen, gaur bezela, zer gertatuko zan... berealaxe aziko nintzan izkribatzen! Baña nork pensa zezakean? Nik beintzat ez nuen usteko sekulan orrelakorik. *Ibaizabal*'ek ditu erru guziak. Oni gogoratu zitzaion eskatzea bertsoak neskazarraren gañean, eta nik, beste askok bezela, antolatu nituen batzuek liburu polit bat irabazteagatik. Orra garbi-garbi aitortu. Eta zer zori gaiztoa! Nere bertsoak merezitu zuten lenengo saria eta irabazi det liburu-



txoa. Baña zer balio du onek, baldin, bera iritxitzeagatik, galdu badet sekulako neskar denen, edo beñepiñ geienen, adiskidetasuna eta berak zidaten naitasun eta estimazioa? (1) Bazenakiteke nola bizi naizen aditu nuen ezkerero nere kontra izketan ari ziñaztela alde guzietan, kupituko ziñazteke, eztago dudarik, eta bertatik barkatuko zenizkidateke nere gaizki esan guziak —zuek diotuzenez—.

Eztet jaten, eztet edaten, soseguzko lo bat eztet egiten. Beti neskazarrak dakazkit go-goan. Edaten edo jaten asitzean, iduritzen zait edontzian eta erretilluan daudela, eta ori bera gertatzen zait oeratzekoan, gelan sartzen naizenean. Eta nola ez, baldin, ni bizi naizen etxean bertan, bizi badira bi edo iru gutxienaz?

Ez naiz kalera irtetzen illundu ezkerero, zergatik pentsatzen det uste gabe edozeiñ txokotatik norbaiten atzapar luze eta otzak zintzurretik eldu eta itotzeko zorian jarriko nautela. Ai, au bizimodua sortu da nereztat! Agian —ojala— ezpazan iñoiz *Ibaizabal* ori nere begien aurrera azaldu! Gaur ez nuen damurik izango!

Badira neskazarrak, len nerekin adiskide

---

(1) Eztezu, jauna, gauz aundirik galdu. (Kajista batek.) (Ibaizabal'en oarra.)

beti ziranak, oraiñ bekoki illuna jartzen diratenak; badira diosalik egiten eztidatenak, eta bai omen dira beste batzuek, esaten dutenak merezi nukela urkamendi batera arrastaka eraman eta... Jesus, Maria ta Jose, ori oien aserrea ta au nere bildurra! Baña zerk orren giar-giarrean ikutu ditu? Zergatik orrenbeste errenkura? Zergatik orrenbeste meatxa edo amenaza, eta zergatik orrenbeste gorrotatu eta gaitzetsi ta iguitu nazute? Joxepa Antoni eta Dominika izena duten guziak aserretu dira, bi izen oiek izendatu nituelako, eta iduritzen zaiotelako berengatik jarriak dirala bertsoak, beste batzuek beren aideak monja joan diralako, besteak senar-gaia izan eta ezkondu etziralako, au ortz-falta dalako, ori maiz konfesatzen dalako, ura mingaño luze xamarra duelako... Nik al dakit! Denak, bakoitzak beretzat, nere bertsoetan adiera edo enbidoren bat arkitzen dute.

Ederra egiñ det! Utsa neskatxa gazteak aserretu baziran; abengatik etziran ainbeste ajola; baña neskazarrak, orrenbeste maite nindutenak, aserretzeak eman dit atsekabe bat!... Au izugarria da! Kiskaltzen nago eta eztakit zer egiñ!

Lengoan, esan zidanean nere lagun batek nere bertsoan ordañak jartzea gogoratu zi-

tzaiola, sartu zitzaidan bildur bat!... Eta esan nuen nere artean: Izan bedi Jaungoikoak nai duena!

Egunero egon naiz zalantzan noiz edo noiz artuko nuen karta ikaragarri okerreriz betetakoren bat, eta azteazken-eguerdian, lantegitik etxeratu nintzanean eta eman zidateanean karta bat, Errenteria'n egiña, kartestalki edo sobreak dionez,... "Emen dek, emen dek!" esan nuen nere artean; baña denbora berean otz-ikara bat igaro zan nere gorpuztean, eta agitz arrituta gelditu nintzan. Ne regandu ondorean, zirt edo zart egiñ bear, bada, eta ez ikara gutxirekin, baña nolazpait idiki nuen, eta zer uste dezute topatu nuela? Letra polit batekin izkribatuak, itzik kendu eta iratxiki gabe, dauden bezela, oraiñ irakurriko dituzuten bertso abek:

1/ Ez nuben bada pensamenturik  
zuri bertsuak jartzeko,  
bañan lagunak esan dirate  
isillik ez egoteko;  
motiborikan ez degu eman  
zu orrela mintzatzeko,  
ez diran gauzak esan dituzu,  
difa da minberatzeko.

2/ *Ibaizabal*'en sari txiki bat  
irabazteagatikan,  
gogora etorri zaizun guztiya  
esan dezu gugatikan;  
nik esan bear banu, munduban  
zaude gaur guregatikan,  
zu sendatzeko sendagarririk  
etzan iñungo botikan.

3/ Zenbait alditan zu sendatzeko  
egin ditugu errezuak,  
pena aundiya ematen zigun  
emazte eta gurasuak;  
zeñek pensatu zuk gure kontra  
orrela jartzia bertsuak?  
ez gera bada zuk uste dezun  
beziñ enbidiosuak.

4/ Gu ernegatzen bizi gerala  
senargairikanen ez ta,  
nere lagunen artean beintzat  
orrelakorikan ezta;  
neri sinisten ez badirazu  
etxian asi galdezka,  
nik baño obeto emango dizu  
Bizentak errespuesta.

5/ Zure amigo batek esan du  
neskazar onik eztela,  
orren ederki gure gañean  
egin dezute pastela;  
pruebarik asko berak baditu  
ori egiña eztela,  
gure moduko persona ez da,  
esango nuke bestela. (1)

6/ Gazteak monja juan dirala ta  
gaur kulpa neskazarrari,  
zure partetik nai gaituzula  
danok erritik biali;  
bokaziyo ori ez bazeukaten  
zertako ala ibilli?  
lagundutzia zuten etxean  
aitari eta amari.

7/ Neskazarraren izenak denak  
ditubela ikaratzen,  
oriyen jabe egiñ ezkerro  
egongo dela erretzen,  
zerbait dutenak izanagatik  
ez asteko oiek artzen...  
guretzat beste disparaterik  
ez al zaizu gogoratzen?

---

(1) Nik esango det bada. Marka oiekin ez liteke izan apaizen bat besterik. Zuek nai dezutena esango dezuten zeren buruan edertzeagatik... baña ni apaizan alde ontan; eta ez aserretu orrengatik. (*Ibaizabal'en oarra.*)

- 8/ Eskian dela esan diguzu  
geienan errematia,  
ezta seguru ezkonduak e  
bide ortara ez juatia;  
ia ikusi degun ezkeru  
gaur zure borondatia,  
eskusatuko degu jotzia  
zure etxeko atia.
- 9/ Etzait gustatzen relijiyoko  
gauzak autan ibiltzia,  
errespetoko gauza guztiyak  
serio tratatutzia;  
arriturikan gelditu gera  
zu orrela mintzatzia,  
esperatzen det oinbesterekin,  
Enrike, konprenditzia.
- 10/ Edadetxoko nere lagunak  
nai nituben anparatu,  
oriyei gusto emateagatik  
ditut ordafiaak bueltatu;  
nai badituzu *Ibaizabal*'en  
oiek ere kopiatsu,  
eta saririk ematen badu  
gutaz ere akordatu.

Josepa Antoni eta Dominika

Ederki daude, Joxepa Antoni, eta milla esker *Ibaizabal*'en izenean. Progatu dezu bertso abekin aurrekoan ondorengoa (2) zerala. Ta oraiñ bukatzeko itz bi: Aztiatu edo asmaturik zer gertatuko zan, esan nuen Azaldea'n ez nuela iñorengatik farra egiteko asmorikan, txit maite nituela neskazarrak txikitandikan —maite ditudan bezela, eta bidez eskarrik asko denari zuen otoitzangatik—, ez nituala lotsatu-erazi nai, baizik *Ibaizabal*'ek agindutako saria nai nuela irabazi. Bañan zuek, dudarik gabe eztezute ondo ira kurri bertsorik, edo bestela ofensik eztagon tokian badagola iduritu zaizute, eta... zapla! jarri dituzute bertsoak. Ale, ale, bizirik laja dirazutenean, gaitz erdi! Zer egingo det oraiñ? Ni guzira jartzen naiz, eta nola egiña egiña dagon, eta eztagon beste erremediorik, egiñ det asmoa barkazioa ezkatzekoa, eta siniste osoan nago eskuratuko dedala, zergatik, esanak esan, neskazarraren biotzak biguñduko dirala iduritzen zait. Egia baita?

Eztakizute kristau dotriñak esaten duela, norbaitek iraindu edo mindutzen gaituenean, mendekatu bearrean, barkatu egiñ bear diogula?

Umiltasun geiorekin eskatzen dizutet, bada, baldin egiazko kristauak bazerate, bar-

---

(2) Xenpelar bertsolariaren illoba zala, alegia.

katu zazkidazutela nere gaizki esan edo ofensa guziak, eta orrekin lan errukitsu edo miserikordiazko bat besterik eztezute egingo.

Nik nere aldetik agintzen dizutet, ordañetan, eskatuko diodala Jaungoikoari eman dezaiola neskazar guziari senargai on bana, edo aberastasunak (3), edo berak nai dituzten zori on denak, arkitzen diran bizitza... —esango ote det?— triste orretan, doatsuak izan ditezen beti-betiko.

Utzi, bada, nigan daukazuten etsaitasuna, eta, oraiñ artean bezela, jarraiki dezagun pake onean ballera negarrezko onetan, bizi geran bitartean.

Agur, bada... eta urren-arte.

Enrike Elizetxea. (4)

### III

Josepa Antoni etzegoan amor emateko. Ta Elizetxea'rekin, barkazioa eskatu zuan ezkerro, adiskidetu bazan ere, ez ala *Ibaizabal*'ko kajistarekin, eta oni eraso zion oraingo ontan, onako lau bertso auekin:

---

(3) Edo urteak bizkarretik kentzeko *balsamo* bat. (Lengo kajistak.) (*Ibaizabal*'en oarra.)

(4) *Ibaizabal*, 19'gn. zenb., 1902/V/11.



- 1/ Neskazarraren adiskiden bat  
Bilbo aldean badegu,  
kajista dela *Ibaizabal*'en  
berak garbiro esan du;  
nai dizut bada errespuesta  
gaur zuri ere bialdu,  
zuk Enrikeri esan diozu:  
Ez du, jauna, ezer galdu.
- 2/ Eliza santak sakramentuak  
jarriak daukazki zazpi,  
bost prezisuak dirade baña  
bi libre utziak dauzki;  
dudarik gabe kajista onek  
oiek aztuak daukazki,  
eta uste du neskazar denak  
bizi geradela gaizki.
- 3/ Sentitzen det gaur ez daukatela  
ezagutzeko onorea,  
kajista ori degun ezker  
orrelako adiskidea;  
eztaduzkagu ukatutzeko  
urteak eta umorea,  
bañan bai zenbait andre  
gizona eta gizonak andrea.

4/ Emen ez degu balsamorikan  
neskazarrak gaztetzeko,  
bañan bai enplastera ederrak  
osasuna ekartzeko;  
Bilbo aldean baldin badago  
kajatxoren bat saltzeko,  
erosi zazu ta ondo gorde  
zeori balsamatzeko.

Joxepa Antonik, Errenteriya'n. (1)

\* \* \*

Oraindik ere beste *enbido* bana bota zio-  
ten alkarri Bilbo'ko kajista ta Joxepa An-  
tonik. Bañan geiegi ez luzatzeagatik, ez di-  
tugu emen jarriko.

Elizetxea ta Joxepa Antoni, oso lagun mai-  
teak izan ziran arrezkeroztik. Enrikek, bere  
etxea ostatua baitzan, *Fonda Elicechea* ale-  
gia, urtero-urtero, bere egunean, kaxuelkada  
goxo bat bialtzen zion erregaliaz Joxepa An-  
toniri.

Ta onek, kaxuela bueltatzean, barrenean  
paper-punta bat bertso batekin bialtzen zion,  
eskerrak ematearren. Zoritxarrez, oietako  
bertso bakar bat ere ez da guganaño eldu. (2)

---

(1) *Ibaizabal*, 21'gn. zenb., 1902'ngo. Maiatzaren  
25'an.

(2) Monika Galarraga, Juanito Zabaleta bertsolari-  
riaren alarguna.

(1917)

## GUERRA EUROPEA'RI JARRIYAK

Ager zai-te za-ru-ko uz-tar-gi e-de-rra  
pa-ki-a e-ma-te-ra a-ka-ba-tu ge-rra pa-ki-a e-ma-  
*molto rall.*  
-te-ra a-ka-ba-tu ge-rra O-rra ma-soi-te-ri ta  
pe-ka-tu-ak o-rra, o-rra gu-re ga-ni-an Jau-  
-na-ren zi-go-rra pa-ki-a es-ka-tzen de-gu A-  
-ma ta Se-ño-ra gu-re Rre-li-ji-yu-a i-go de-din  
go-ra

# I

*Ager zaitetz zeruko  
uztargi ederra  
pakia ematera,  
akabatu gerra.*

- 1/ Orra masoikeri ta  
pekatuak orra,  
orra gure gañian  
Jaunaren zigorra;  
pakia eskatzen degu,  
Ama ta Señora,  
gure relijiyua  
igo dedin gora.
  
- 2/ Zaragoza'ra ziñan  
etorri, Maria,  
armatzat artzen degu  
zure Pillaria;  
zu gañetik zerala  
daukagu fedia,  
ez dezaigutela autsi  
neutralidadia.

- 3/ Aditu zazu, Ama,  
gure erregua,  
eta baja zaiozu  
Jaunari besua;  
erakutsi zaiozu  
Europa gaxua,  
deika dagokizula  
txit lastimosua.
- 4/ Esperantza daukagu  
zuri aditzeko,  
izar eder bat zera  
danok giyatzeko;  
ez da gure asmua  
oiek itzaltzeko, (1)  
bai Aita Santuari  
obeditutzeko.
- 5/ Ezta besterik falta,  
Jesus, zure naia,  
geldituko dirade  
kañoi ta metralla;  
emaiozu Amari  
Dabiden aballa,  
akabatu dezala  
munduko batalla.

---

(1) Frantzes batek erronka egiña omen zuen.  
Frantziak zeruko izarrak ere itzaliko zituala esanaz.

6/ Gerr'au asi zanian,  
 ez genduen uste  
 luzatuko zuela  
 gauzak onenbeste;  
 ez ogei ta bi egun,  
 juan dira iru urte;  
 Jesus eta Maria,  
 urrikal zaitezte.

## II

### INGLATERRA'RI

Gerrate onen denboran, Frantziaren kontra ziranak, onela kantatzen zuten: "*Paris se quema, se quema Paris...*" Ta Alemaniaren kontra ziranak, berriz, beste onela: "*Berlin se quema, se quema Berlin...*" Ez omen zan beste kanta-otsik entzuten.

Orduan Joxepa Antonik, doñu ortan bertsoak paratu zituan, Inglaterraren kontra lenengo, ta Alemaniaren alde urrengo. Ona emen bertso oiek:



-a ez i-tsa-su-a; a-rrí-ya tí-ra gor-de be-su-

-a o-raiñ-ar-ti-an i-bi-lli ze-ran or-gu-lló-su-a

- 1/ Etzera uste bezin altsua;  
ez da zuria, ez, itxasua;  
arriya tira, gorde besua,  
oraiñ artian ibilli zera  
orgullosua.
  
- 2/ Inglesa zegon gañez egiña,  
itxasuetan zala erregiña,  
etzela iñor orrentzat diña;  
urpeku orrek egiten dizu  
zaunga samiña.
  
- 3/ Balientiak berak lenbizi  
irten biar du ill edo bizi;  
ori zuregan ez da ikusi;  
bestiak lana eginta nai du  
berak nagusi.
  
- 4/ Etorri zaizu txanda zedorri;  
zer dela uste dezu kasta ori?  
ez badezu nai ibilli larri,  
bozala jarri biar diyozu  
urpeku orri.

5/ Lenbizi artu zaizu neurriya,  
irten ez dedin txikiyegiya,  
ankik ez duen animaliya  
zure etxian arrapatzia  
zer mirariya!

6/ Itxaso aundi eta zabala  
uste al dezu zuria dala?  
Ez badiyozu jartzen bozala,  
esan biau zu: "Zori gaiztozko  
intxaur-azala!"

### I I I

#### ALEMANIA'RI

1/ Alemani'ko gizonak abill,  
oraindik danak ez baitira ill;  
bonbero onak baditu berdin;  
su artzen badu itzaliko du  
oraindik Berlin.

2/ Adelantuak oñbesteraño,  
aleman oiek ara noraño:  
zepelin eta aereoplano  
txoriyen gisan ortxen dabilta  
juanik gorraño.



- 3/ Aleman oiek orra zer dian:  
 prestatzen dira danon aurrian,  
 iñor ez dabil oien lurrian;  
 dudarik gabe, ez dago lanik  
 Berlin aldian.
- 4/ Enemigua eskui ta ezker,  
 danon erdiyan or dabill Kaiser;  
 ikusiko da gauza ori laister:  
 zein gelditzen den bat nagusi ta  
 bestia maizter.
- 5/ Maizter gelditzen bada alemana,  
 esan lezake: "Auxen da lana!"  
 Zazpi edo zortzi nagusigana  
 eskeñitzera juan liteke  
 bapore bana.
- 6/ Eta gertatzen bada bestia  
 nagusi edo irabaztia,  
 eskatuko du bere kostia;  
 zer milagrua zazpien arte  
 bat pagatzia!
- 7/ Gerra batian oinbeste kalte,  
 aurreko zarrak ezetz diyote;  
 sentimentuan artzen det parte,  
 pakia nere partetikan  
 deseo nuke.

8/ Zazpi naziyo alemanari  
gutxienian kontra dira ari;  
zer da izutzen ez dan kasta ori?  
Sumarinuak erakutsiak  
dauzka igari. (2)

---

(2) Josepa Antoniren etxean gorde izan dan eskuz idatzitako kuaderno batetik.

**ERRETERIYA'N UZTAREN LAUBEAN  
MILLA TA BEDERATZIREUN TA  
OGEI TA SEIGARREN URTEAN  
EGIN ZAN PROZESIYUARI**

**ERRENTERIYA'N UZTAREN LABEKO  
PROZESIYUARI**

1926'garren urtean, sermolari bat Erren-  
teri'ra etorri ta mixioen alde oso bero min-  
tzatu zan. Mixioai laguntzeko alkarte berria  
sorrarazi zuan: otoitza egin ezik, astean sos  
bana ere eman bear zuten; baita urtearen bu-  
ruan pezeta bana geiago. Ta prozesioa ere  
egin zan, erriko aurrak mixiolariz edo mojaz  
jantzita. Ori dana aitatzen digute Joxepa An-  
toniren bertso auek:

- 1/ Txina'n, Japon'en eta Afrika'n e  
dauzkagula senidiak,  
bañan gaxuak errukarriyak  
relijiyorik gabiak;  
oraziyua eta limosna  
diyo predikadoriak  
anima oiek zeruratzeko  
oiek dirala bidiak.

2/ Esan digute nola milloiak  
dauden bataiorik gabe,  
estadu ortan iltzen badira  
infernurako dirade;  
bost zentimoko limosnatxu au  
ez gelditu egin gabe,  
emen jaio eta bizi geranak  
ondo pagatuak gaude.

3/ Paganu oiek beren umiak  
ez omen dituzte maite,  
erostunikan juaten bazaie  
saltzen dituztela merke,  
edo bestela kaliaz utzi  
animaliak jan arte;  
orreatikan Aita Santuak  
bataiatzia nai luke.

4/ Gezurra dala diruri bañan  
izan biar du egiya,  
txakurrak jaten omen dutela  
aur gaxuen aragiya;  
oiek erosten dabilozan oiek  
dute merito aundiya,  
bañan gutxitxo izaten dute  
guk emendik bialiya.

- 5/ Prozesiyo bat Aita Santuak  
nola baitigun agindu,  
Errenteri'ko jende leialak  
ejenplo ona eman du;  
biyotz oneko persona asko  
dira alkarrena bildu,  
beren umiak ta besterenak  
ondo dituzte apaindu.
- 6/ Santu ta santa, japonés, txino,  
karmentar misionera,  
gure begiyak malkoz bustirik  
begira egondu gera;  
ama askoren biyotzak zeuden  
irten nayian kalera,  
beren alabak baidira juanak  
itxasoz beste aldera.
- 7/ Relijioso eta pagano  
aien danen iruriyak,  
denbora gutxi bazuten ere  
aiñ zauden ondo jarriyak;  
langillia ta leiala dala  
fama du Errenteriyak,  
laguntzallia aiekin dala  
danoi esker ugariyak.

- 8/ Esan dirate kontentu zala  
Aita misionerua,  
asko gustatu omen zaiola  
emengo atentziyua,  
bai eta ere kalerik kale  
egin dan prozesiyua;  
eztakit zenbat bañan ederki  
bildu omen da dirua.
- 9/ Limosna oiek amaikagarren  
Piogana dira juango,  
iya milloien izen tristi au  
jexten al degun berago;  
beti bezela asteko sosa  
gustora degu emango,  
eta gañera urteen buruan  
pezetatxo bat geiago.
- 10/ Delegadua deitzen diyogun  
gizon Jaungoikozko ori,  
Aita Santuak Erroma'tikan  
mandatari du biali;  
bere esanak zintxo egiñaz  
emen dabill erriz erri,  
nai dituztela paganu oiek  
gure legera ekarri.

11/ Gauza tristia iduritzen zait  
izatia paganua,  
eskerrik asko Jaungoikuari  
naizela emen jayua;  
lendabiziko sakramentua  
artzen degu batayua,  
gero beste sei emen dauzkagu  
irabazteko zerua.

12/ Uztaren lauan izandu degu  
prozesiyo eder ori,  
zorion asko nere aldetik  
lan egin duten danori;  
iya zer poza emango zaion  
amaikagarren Piori,  
arretaz entzun diyogulako  
bere mandatariyari. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Angel Sarasola Olalde, Alzibar, Oiartzun.

## AMA JENEROSARI

Joxepa Antoni bizi zan etxeko alaba bat, Matilde, moja joan zan Iruñe'ra. Ta egun batez onako bertso aukeratu zituzkion arek oni. Esan genezake, beraz, esku-titza dirala.

1/ Jenerosaren izenarekin  
egin zinduztela Ama,  
juan dan Martxuan notiziy'ori  
allegatu zan nigana;  
nere biotza erdiratzen da  
gogoratzian Pamplona,  
orain bertsorik ez det ipintzen  
triste baitaukat barrena.

2/ Izeba dabill aspalditxuan  
katarro eta kiyua,  
jaikitzen bada isten dizkigu  
atiak eta leyua;  
iya ituan ementxen gaude,  
orra zer alibiyua,  
nola nai dezu idukitzia  
bertsuetako gogua?



3/ Pentsamentua egiñak giñan  
udan zu bisitatzeko,  
bañan ez gaude bi neskazarrak  
etxetik ateratzeko;  
izeba-illobak esan dirate  
zuri bertsuak jartzeko;  
umore ona dauka oraindik,  
ez du asmorik iltzeko.

4/ Florentinaren gizentziakin  
asko arrituak gaude,  
badira emen esan dutenak:  
“Ez al da ori Matilde?”  
Jostundegiyan maestra dago,  
sukaldian etxekoandre,  
eta gañera goiz jeikitziak  
egiten diyo mesede.

5/ Gu emen gaude iru neskazar,  
iruak ajiatuak,  
nunbait onela komeniko zen  
ala nairik Jaungoikuak;  
orain kantari ari naiz bañan  
aldian dauzkat malkuak,  
suerte txarra etzuen egiñ  
gugandik eskapatuak.

6/ Relijiyoko bizi-moduak  
ematen dizula poza,  
munduan ditxa obeagorik  
ez ditekeala goza;  
santidadeko pruebak emanaz  
egin ezazu profesia,  
eta guretzat oraziyuan  
akordatu, Jenerosa. (1)

---

(1) Josepa Antoniren etxean gorde izan dan eskuz idatzitako kuaderno batetik.

## FABRIKAN BERTSO-KANTARI

Leen ere esan degunez, Joxepa Antonik fabrika aundian lan egiten zuan. Kontramais-tra zan.

Fabrika aundian, oialak egiteko, batzuek irazkitzen, besteak maxorkiten, edo txirrikiten, edo errepassen, bakoitza bere lantegian alegia, aritzen ziran. Joxepa Antoni irazkitzen jarduten zan.

Joxepa Antoni, oi zuan bezela, aldi artan txirrikan billa *terraza* batera igo zan. Txirrikak, ariz betetzen diran *karrete* aundiak dira. Ariz bete zitzaten, beste langilleai eramaten zizkien.

*Terraza* artara igo zanean, irazkitzen ari zan batek onela esan zion:

—Bota bertso bat ortik, Xenpelar! Bota bertso bat ortik!

Ta arek orduan andik:



-yo ber-tsu-a bo-ta-tze-ko Ma-nu-e-lak di-  
 -yo. Fan-de-ri-ta-rra-ren-taat nik ez det ba-li-  
 -yo ne-re to-ki-ra nu-a se-ri-yo se-ri-yo

*Terraza* onetara  
 naizenian iyo,  
 bertsua botatzeko  
 Manuelak diyo;  
 Fanderitarrarentzat  
 nik ez det baliyo,  
 nere tokira nua  
 seriyo-seriyo.

Manuela ori ere Fanderitarren tartekoa  
 zan. Ta urrena berriz, Manuela orrek bota-  
 ko balu bezela, onen ordeztu, Joxepa Antonik  
 onela kantatu zuan:

Fanderitarra naiz ni  
 ez dizut ukatzen,  
 bañan korta xamarra  
 bertsuak kantatzen;

damutu zait asiya  
Xenpelar tentatzen,  
ara emen Añabitarte  
ta oni bat botatzen.

Aren ondoan zegoanari bat botatzeko alegia. Añabitarte ori, Errenteria'ko Añabitarte baserriko alaba zan. Ta urrena oni kantatu zion. Baña bukaera besterik ez digute eman:

naio nuke nik orren  
boltxa baneukake.


Ta laugarren aldiz ere Joxepa Antonik berak kantatu zuan, Añabitarte orrek botako balu bezela. Bañan ez digute eman azkeneko puntuak baizik:

Añabitarrek diyo  
ez duela boltxik,  
eta ez emateko  
orrelako lotsik. (1)


---

(1) Monika Galarraga, Juanito Zabaleta bertsolariaren alarguna.


MARIAREN ALABA BATEK  
JAUNGOIKUAREN ETA BERE AMARI




Es-ka-ri-txo-bat A-ma, es-ka-ri-txo-bat




A-ma nai di-zute e-gin, nai di-zute - gin;



e-ri-yo-tza-ko-or-du-an gal-du ez-na-din,



gal-du ez-na-din. Da-go-ki-zu zu-ri



e-ran-tzu-ti-a ne-re dei u-mi-lla-ri, dei u-mi-lla-ri.

- 1/ Eskaritxo bat, Ama,  
nai dizut egiñ,  
eriyotzako orduan  
galdu ez nadiñ;  
dagokizu zuri  
erantzutia nere  
dei umillari.

- 2/ Eriotza da berez  
gauza tristia,  
tristiagua berriz  
da zuk uztia;  
oroi zaitez, Ama,  
betiko galtzen dala  
bein galtzen dana.
- 3/ Askotan deitu dizut  
mundu onetan,  
laguntza prestatzeko  
trantze arretan;  
Zeruko Erregiña,  
zabal zazu zure  
manto urdiña.
- 4/ Deabruak nerekin  
parterik eztu,  
alaz guztiyaz ere  
ekatzu esku;  
zurekin zerura,  
esperatzen det, Ama,  
zorion ura.

5/ Zure alabetan ni  
esker gabia,  
bañan nik ere ama  
zaitut, Maria;  
birjiñen onduan  
baztertxo bat neretzat  
gorde zeruan.

6/ Esperantza osuak  
zukan narama,  
argaitik deitzen dizut  
askotan, Ama;  
ez entzungor egiñ,  
eternidaderako  
galdu ez nadiñ. (1)

---

(1) Joxepa Antoniren etxean gorde izan dan eskuz idatzitako kuaderno batetik.



## RIKARDO ARAKIÑA

Alza'ko neskatxa bat, Martillun ostatuko alaba, Joxepa Antoni bizi zan etxeke jostundegira egunero etortzen zan. Ta etorri ba-koitzean, edo geienetan beintzat, aragia erosi ta eramaten zuan bueltan etxeke ostatura Rikardo'ren arategitik. Rikardo arakiñari izugarri gustatzen zitzaion jendeari toriatzea. Egun batez onela esan zion Alza'ko neskatxa orri:

—Zer moduz Martxiel?

Ta arek:

—Zein Martxiel?

—Ez al dakizu Alza'ko Martxiel, oso gaizki dagoana, elizakoak eta danak emanda? Orixe jakin zaidazu beintzat, bisitatzera joateko.

Neskatxak, etxera eldu zanean, onela galdetu zion koñatari:

—Eujeni, zein da emen gaizki dagoan Martxiel?

—Eztakit ba nik.

—Rikardo arakiñak ola ta ola galdetzeko esan dit...

Orduan koñatak, zer zan igerrita, esan zion:

—Etzaiozu kasorik egin, San Martzialgatik ari zaizu ta.

San Martzial Alza'ko patroia baita. Bere festa-eguna San Pedro biaramonean da.

Urrengo egunean, jostundegira etorrira, bildurrez zegoan neskatxa ori Rikardogana joateko. Onekin zer gertatu zitzaion kontatu zuan, eta Josepa Antonik onela esan zion:

—Ez apuratu! Onela esan bear diozu: Rikardo, esan nion Martxieli, ta... (Emen pixka batean ixildu bear dezu.) Ta... esan zidan asko estimatzen duala zure atentziyua, ta etortzeko San Pedro biaramonean bazkaltzera.

Rikardok erantzun zion:

—Ori ez da zure buruan jaio!

Ta egun artan bertan, illunabarrean, Alza'ko ori ta beste bi neskatxa, Rikardoren arategira joan, zerbait eroatera bezela sartu, ta Joxepa Antonik asmatu ta erakutsitako bertso auek kantatu zizkioten, *Markesaren alaba*'ren doñuan:

1/ Apenas zure tablan  
oña nuen jartzen,  
“Martxielek zer dio?”  
zenian galdetzen;  
orain bazkaritera  
zaitu konbidatzen,  
asarretuko zaizu  
ez bazera juaten.

2/ Martxielen etxera  
atoz bazkaltzera,  
auzuan antxen bertan  
gu ere bizi gera;  
maietik pollikitxo  
altxatzen bazera,  
lagunduko dizugu  
jeixten malda bera.

3/ Sentitzen bazerade  
zu bazkal-onduan  
etzaudela bakarrik  
jeixteko moduan,  
aire sanua artzen  
jar zaitez leiuana;  
aixa jetxiko zera  
gure anparuan.

4/ Leiuán ikustian  
pensatuko degu:  
Rikardok malda jeixten  
laguntzia nai du;  
bost aizpa ta bi anai  
auzuan gaude gu;  
ez bildurtu, Rikardo,  
naiz Alza'n illundu.

5/ Bazkariya ori ez da  
aixa uztekua,  
estimatu zaiozu  
bera dalakua;  
uste den an izango  
dala parrokoa,  
Martxiel ain da gizon  
biotz onekua.

6/ Rikardo, zer poliki  
nazu toriatu;  
bañan ni ere noizbait  
nitzan konturatu;  
ez dezu ezer galdu,  
zerbait aurreratu:  
bazkariya biñipin  
dezu seguratu.

Rikardok ixil-ixilik entzun zituan. Ta neskatxak kantua bukatzean, onela esan zien:

—Koño! Moldatu dituzute nunbaitetik!

Ta urrena Alza'ko neskatxari:

—Esaten nuan nik zure buruan jaioa etzala!

Gero Telleri-Txiki bertsolariarengana joan zan, ta kontu guzia adierazi ondoren, bertso batzuk jartzeko eskatu zion. Bañan oso bertso itxusiak egin zizkion, neskazarrengatik zernai zatarkeri esanaz. Irakurritakoan, onela esan zuan Rikardok:

—Ez nuan nik olakorik nai! Umorea nai nuan nik, umorea!

Ta Rikardok ezin moldatu izan zitualako, Joxepa Antonik berak egin zuan aren erantzuna, bertso auetan:

1/ Asko tentatu zaitut,  
egiya da ori,  
gaztiakin alegre  
gustatzen zait neri;  
esan biar diyozu  
Martxiel jaunari  
ez asarretutzeko,  
juango naizela ni.

2/ Ez nuen asko uste  
aurten Madalena  
Alza'ko tontorrian  
pasako nuena;  
zu etorri baziñan  
onera aurrena,  
ez nuben idukiko  
gaur daukaten pena.

3/ Nola Errenteriya  
baitagoen bian,  
abanikua erosi  
nuen Donostia'n;  
nere pensamentuak  
orlakuak zian,  
gaur sartu det baulian  
erdi negarrian.

Ta Rikardok Alza'ko neskatxari kantatu zizkion, urrena arategira etorri zitzaionean. Neskatxak onela esan zuan gero jostundegian:

—Arrituta nago! Rikardok bertsoak kantatu dizkit, oso politak gañera. Nundik atera ote ditu?

Ta guziak' parrari eman zioten, ondo baitzekiten bertso aiek iturria nun zuten... (1)

---

(1) Bertsoak eta kontaera, Joxepa Antoniren bizi-lagun izana dan Florentinak.

## MARKOLA 'KO PATATAK

1941 edo 1942 urteko eskasiya zan. Fabrika aundiko nausiak, Markola deritzaion mendi edo basoan lur-puska polita baitzuten, patata erein-arazi zuten, gero langilleai partitzeko. Bañan lenengo urtean etziran Joxepa Antoniz oroitu. Ta onek, bigarren urteko kosetxa baño leen, lau bertso auek bialdu zizkion Bagues jaunari, fabrika orretako buruzagi bati alegia:

- 1/ Esan dirate: "Markola aldian  
lur-zati aundiyak daude,  
gutxiyenian izango dira  
zazpi edo zortzi golde,  
lur-zati oien parte geiena  
patata ereñiyak daude."  
Juan den urtia igaro zaie  
gutaz akordatu gabe,  
Bagues jauna, oraiñ oroitu,  
ez utzi gu aurten gabe.
- 2/ Irurogei bat urte aldian,  
oso ez badira ere,  
gure lantegi aundi orretan  
lana egiñak gerade,

uste dedanez bi gizonekin  
bost bat emakume gaude,  
Bagues jauna, ez asarretu  
bertsuak gaizki badaude.

3/ Gure lantegi aundi orretan  
pasia urte geiena,  
Migel Mari da, orixen degu  
danetan zarren-zarrena;  
bigarren berriz izenik gabe  
denak ondo dakitena,  
urtiak utzi alde batera,  
auxen degu biarrena:  
naiko patata ollaskuakin  
pasatzeko Madalena.

4/ Nere denboran izandu diyot  
afiziyua kantari,  
iñon bertsorik azaltzen bazen  
eosi ta irakurri;  
umore ona lagun artean,  
ori gustatu zait neri;  
oraintxen iya eskapatu zait,  
alare bertsua jarri;  
eztakit nola erori zaizkan  
gure Bagues jaunari,  
barkaziyua eskatzen diyot  
itz egin badet geiegi. (1)

---

(1) Joxepa Antoni bizi zan etxean gorde izan di-  
ran eskuz idatzitako orri batzuetatik.



## MADALENA'KO ERMITA

Guziak dakitena, Errenteria'ko Patrona Santa Maria Madalena da. Erriaren saiets batean, santa onen ermita dago. Uztaren 22'an, santaren egunean, ermitatik parroki-  
ra eramaten da iduria, prozesioa egiñez, ta an iru-urren batean edukitzen dute, Santiago eguna arte alegia.

Joxepa Antonirekin lan egiten zuan emakume batek, onela esaten zion santari, parroki aldera zeramatela ikustean:

—Ai, gaxua! Bazuaz! Ederrak aditu biau-tuzu! Zure pekatu guziak ederki pregonatuko dituzte!

Ta gero, bueltakoan, onela esaten zion:

—Ederrak adituta etorriko zera gaixo ori! Ederki lotsatuta bueltatuko zaitute!

Ermita onek parroki bezela serbitu zuan bi alditan: aurrena, karlista ta liberalen arteko bigarren gerratean, Joxepa Antonik berak bertsoan esango duan bezela; bigarrena, 1936 urtean, gerra-asieran, parrokia munizio-almazena egin zutelako. Auek dira Jo-

xepa Antonik bigarren bertsoan aitatzun bi gerrateak.

Gero, 1940 urte inguruan, oso utzia egon zan ermita. Orduan, Joxepa Antonik, errenteriarrak ermitaren alde zerbait egin zezaten, bertso auek jarri zituan. Bere etxean agertu dira, iru edo lau paper-puntatan idatzita:

1/ Bertso berri batzuek  
nai nituke jarri,  
Errenteri'ko seme-  
-alaba denari:  
ermita bat daukagu  
danon lotsagarri,  
ia ipintzen degun  
txukun edo garbi.

2/ Geienak zor diogun  
ermita da ori,  
guri mesede asko  
egina da ori;  
gerrateko denborak  
pasatu ditut bi,  
gure refujiyua  
izandu zan ori.

3/ Kontzejutik asita  
parrokira arte,  
tunel bat egin zuten  
liberalak fuerte;  
orduak oiek ziran  
juez ta alkate,  
etziran deskansatu  
eliza itxi arte.

4/ Itxi zituztenian  
kontzeju ta eliza,  
plazan utzi giñuzten  
erejien gisa;  
gu onla ikusita  
jauntxu oien poza,  
bañan ermitatxuan  
asi zuten meza.

5/ Urtero egiten du  
parrokira buelta,  
bere alaja ederrak  
barrakan utzita;  
nola dibertitua  
izandu zan santa,  
bidera juaten zaio  
orain makil-dantza.

6/ Iru egun pasata  
buelta barrakara,  
gogoratzia berak  
ematen du ikara;  
santa bat an jartzia  
pekatu ezpada,  
neretzako beñepin  
falta aundia da.

7/ Gero bueltatzen gera  
santa an utzita,  
gaizkille baten gisa  
atiak itxita;  
urte guztian ez du  
beste bisitika:  
mutil koxkor batzuek  
tellatura arrika.

8/ Askotan pasatzen naiz  
bere aurretika,  
eta iruritzen zait  
dagoela deika:  
"Noiz aterako naute  
barraka ontatika?"  
Asarretua dago,  
badu zergatika.

9/ Onenbeste mesede  
egindako ermita,  
orain ikusten degu  
erdi erorita;  
etzaude tratatua  
orla merezita,  
zabar bizitu gera  
erabat utzita.

10/ Ermita ori dago  
abandonatua,  
ittozura aundiakin  
olak usteldua;  
purrukatua berriz  
oso tellatua,  
kanpuan ta barrena  
igual erasua.

11/ Begira egondu naiz  
ateraño juanta,  
negarrez zeguela  
uste nuen santa;  
neronek ere asko  
ezpanuen falta,  
ikusirik ermita  
tristiaren planta.

12/ Noblia ta leiala  
da Errenteriya,  
ezer egin nai badu  
badauka premiya;  
abundoso ipintzen  
badigu ogiya,  
urrengo urterako  
ermita berriya. (1)

---

(1) Joxepa Antoni bizi zan etxean gorde izan di-  
ran eskuz idatzitako orri batzuetatik.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: SAGARDAOREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. M. Soroa: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. Pepe Artola: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. P.M. Urruzuno: EUSKALERRITIK ZERURA. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: RAMUNTXO (*Aitua*).
7. R. Azkarate: GALTZAUNDI.
8. A. Apaolaza: PATXIKO TXERREN.
9. B. Iraola: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. P. Larzabal: BODAXURI (*Aitua*).
12. Bilintx: BERTSO TA LAN GUZIAK. (*Aitua*).
13. M. Izeta: DIRUA GALGARRI. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: GABON GAU BAT.
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. A. Zavala: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. F. Goñi: LURDESKO GERTAERAL.
21. P. Larzabal: HERRIKO BOZAK.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. F. Imaz: BERTSO GUZIAK.
25. A.P. Iturriaga: JOLASAK.
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. B. A. Moguel: IPUI ONAK.
29. T. Alzaga: BURRUNTZIYA.
30. G. Anduaga: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. M Soroa: BARATZAN.
32. M. Elicegui, A. Zavala: PELLO ERROTAREN BIZITZA.

33. *M. Elicegui, A. Zavala*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverría*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BIDUMA.
54. *A. Zavala*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSULARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala*: UDARREGI BERTSULARIA.
- 57-58. *C. Beobide*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zabalas* AXENTXIO TXANKA BERTSULARIA.
60. *A. Zavala*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: GAZTELU BERTSULARIA.
62. *A. Zavala*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSULARIA.
- 63-64. *A. Zavala*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSULARIAK.
65. *J.M. Satrustegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
66. *A. Zavala*: IRU BERTSOLARI.
67. BERTSOLARI TXAPELKETA (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: ALZO'KO IMAZ BERTSULARIA.
- 71-72. *A. Iturriaga*: IPUIAK.
73. *A. Zavala*: IRU ANAI BERTSOLARI.
- 74-75. *A. Zavala*: ERRENTERIA'KO BERTSOLARI ZAARRAK.



